


# DEMOKRAZIA PARITARIOA EUSKADIN

## 2001 – 2016

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE-PROZESUETAN



**Argitaraldia**

1.a, 2017ko urria

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Segurtasun Saila

**Internet**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Egilea**

Arantza Campos Rubio

**Koordinazioa**

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza

**Argitaratzailea**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz

**Diseinua****eta maketazioa**

ekipoPO

# AURKIBIDEA

|      |  |    |
|------|--|----|
| I.   | AURKEZPENA.....  | 7  |
| II.  | SARRERA .....  | 10 |
| III. | EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA EAEko HAUTESKUNDE-<br>-PROZESUETAN: ARAU ESPARRUA .....  | 11 |
| 1.   | Emakumeek politikaren arloko parte-hartzean eta ordezkaritzan berdintasuna izateko<br>eskubidearen aurrekariak: Hauteskundeetako parekotasuna. Arauak eta emakumeen<br>erakundeen eta emakumeen bultzada politikoak..... | 11 |
| 1.1. | Nazioarteko eremua.....  | 11 |
| 1.2. | Europako eremua: parekotasuneko kuotak .....   | 14 |
| 1.3. | Estatuko eremua .....  | 17 |
| 2.   | Emakumeek politikaren arloko parte-hartzean eta ordezkaritzan berdintasuna izateko eskubidea:<br>Hauteskundeetako parekotasuna EAEn .....  | 21 |
| 2.1. | Hauteskundeetako parekotasunaren arloko euskal legedia. Eusko Legebiltzarra, Batzar<br>Nagusiak, Tokiko Erakundeak .....   | 21 |
| 2.2. | Alderdi politikoak eta hauteskundeetako parekotasunaren arloko legegintza-proposamenen<br>aurreko Europako araudia nola hartu den.....   | 25 |
| IV.  | EUSKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK.....  | 29 |
| 1.   | Sarrera .....  | 29 |
| 2.   | Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak .....  | 29 |
| 2.1. | Hauteskunde-zerrendak .....  | 30 |
|      | Emakume hautagaiak .....   | 30 |
|      | Zerrendaburu diren emakume hautagaiak .....  | 34 |
|      | Zerrendan 6. eta 7. tokietan dauden emakume hautagaiak .....   | 37 |
|      | Ordezko hautagaiak diren emakumeak .....   | 39 |
| 2.2. | Hauteskunde-emaitzak .....   | 41 |
|      | Emakume hautetsiak .....   | 41 |
|      | Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera .....   | 43 |
|      | Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera .....   | 45 |
|      | 6. eta 7. tokietan dauden emakumeak, hautetsien zenbaki absolutuaren arabera .....   | 46 |
| 2.3. | Emakumeen iraupena Eusko Legebiltzarrean .....   | 48 |
|      | Legegintzaldi bakarrean egon diren emakume hautetsiak .....  | 49 |

|   |    |
|---|----|
| Bi legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak.....                          | 49 |
| Hiru legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak .....                       | 50 |
| Lau legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak.....                         | 50 |
| Bost legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak.....                        | 50 |
| Ondorioak .....   | 50 |
| <br>2. 4. Ondorioak.....  | 51 |
| 3. Gobernu organoak .....   | 52 |
| 4. Ahaldunak, artekariak eta administratzaileak.....                            | 54 |
| 4. 1. Ahaldunak .....   | 54 |
| 4. 2. Artekariak .....  | 56 |
| 4. 3. Administratzaileak.....   | 58 |
| 4. 4. Ondorioak.....  | 58 |
| <br>V. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIAK..... | 60 |
| 1. Hauteskundeei buruzko araudia: .....   | 60 |
| 2. Lurralde historikoetako hauteskunde-barrutiak.....                           | 60 |
| <br>VI. ARABAKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK.....                         | 62 |
| 1. Sarrera .....  | 62 |
| 2. Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeak .....                             | 62 |
| 2. 1. Hauteskunde-zerrendak .....   | 62 |
| Emakume hautagaiak.....   | 62 |
| Zerrendaburu diren emakume hautagaiak .....                                     | 63 |
| Ordezko hautagaiak diren emakumeak.....   | 64 |
| 2. 2. Hauteskundeetako emaitzak .....   | 65 |
| Emakume hautetsiak .....  | 65 |
| Zerrendaburu diren emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera.....        | 66 |
| 2. 3. Ondorioak.....  | 67 |
| 3. Arabako gobernu organoak.....  | 68 |
| 3. 1. Gobernu organoen osaera .....   | 69 |
| 3. 2. Ondorioak.....  | 69 |

|  |    |
|--|----|
| VII. BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK .....                   | 70 |
| 1. Sarrera .....   | 70 |
| 2. Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeak .....                     | 70 |
| 2. 1. Hauteskunde-zerrendak .....  | 70 |
| Emakume hautagaiak .....   | 70 |
| Zerrendaburu diren emakume hautagaiak .....                              | 71 |
| Ordezko hautagaiak diren emakumeak .....                                 | 72 |
| 2. 2. Hauteskunde-emaitzak .....   | 73 |
| Emakume hautetsiak .....   | 73 |
| Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera .....                   | 74 |
| Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera ..... | 75 |
| 2. 3. Ondorioak .....  | 77 |
| 3. Bizkaiko gobernu organoak .....                                       | 78 |
| 3. 1. Gobernu organoen osaera .....                                      | 78 |
| 3. 2. Ondorioak .....  | 78 |
| VIII. GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK .....                | 79 |
| 1. Sarrera .....   | 79 |
| 2. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Hauteskundeak .....                   | 79 |
| 2. 1. Hauteskunde-zerrendak .....  | 79 |
| Emakume hautagaiak .....   | 79 |
| Zerrendaburu diren emakume hautagaiak .....                              | 81 |
| Ordezko hautagaiak diren emakumeak .....                                 | 82 |
| 2. 2. Hauteskundeetako emaitzak .....                                    | 83 |
| Emakume hautetsiak .....   | 83 |
| Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera .....                   | 84 |
| Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera ..... | 85 |
| 2. 3. Ondorioak .....  | 86 |
| 3. Gipuzkoako gobernu organoak .....                                     | 87 |
| 3. 1. Gobernu organoen osaera .....                                      | 87 |
| 3. 2. Ondorioak .....  | 87 |

|       |   |     |
|-------|---|-----|
| IX.   | BATZAR NAGUSIEI BURUZKO GOGOETAK .....                                  | 88  |
| X .   | EAEko UDAL HAUTESKUNDEAK .....  | 90  |
| 1.    | Sarrera.....  | 90  |
| 2.    | Hauteskunde-zerrendak.....  | 91  |
| 2. 1. | Emakume hautagaiak .....  | 91  |
| 2. 2. | Zerrendaburu diren emakume hautagaiak.....                              | 93  |
| 3.    | Hauteskunde-emaitzak .....  | 96  |
| 3. 1. | Emakume hautetsiak.....   | 96  |
| 3. 2. | Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera.....                   | 98  |
| 3. 3. | Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera..... | 101 |
| 4.    | Ondorio orokorrak .....   | 101 |
| 5.    | Gobernu organoen osaera. Alkatetzak .....                               | 102 |
| XI .  | AZKEN GOGOETAK .....  | 104 |
| XII.  | BIBLIOGRAFIA.....   | 107 |

## I. AURKEZPENA

Azterlan honen helburua da aztertzea nolako eragingarritasuna duen hauteskunde-legedi indardunak demokrazia paritarioa lortzeko.

Segurtasun Sailak berdintasunari buruzko programazioan ezarrita zuen helburu bat da, Arantza Campos Rubio irakaslearen Ian honetan gauzatu dena, hauteskunde-zerbitzuaren laguntzarekin, betiere honako hauen ustatze estatistikoan oinarrituta: hauteskunde-emaitzzen artxibotik datozen datuak (artxibo hori herritarren eskura dago <http://www.euskadi.eus/elecciones/web-gunean>) eta sarbide publikoko beste iturri batzuetako datuak.

Emakumeek eta gizonek ordezkaritza publiko karguetan presentzia orekatua edukitzea da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen helburuetako bat. Horretarako aldatu zuen Eusko Legebiltzarrerako eta lurralte historikoetako batzar nagusietarako hauteskundeei buruzko legedia, hauteskunde-zerrendetan nahitaezko parekotasun-printzipioa sartzeko; honako honetan datza printzipio hori: zerrenda horietako 6 hautagairen tarteak hartuta haien erdia emakumeak izatea.

Konstituzio Auzitegiaren 2009ko otsailaren 19ko 3/2009 epaiak berekin ekarri zuen euskal legea berrinterpretatu behar izatea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoari egokitzeo; izan ere, azken horrek emakumeek eta gizonek hauteskunde-zerrendetan presentzia orekatua izateari buruzko printzipio bat ezartzen du, zeinean eskatzen baita sexuetako batek ez dezala izan % 40tik beherako presentzia. Epai baten ondorioz, euskal legea berrinterpretatu behar izan zen, hautagai-zerrendetan gutxienez ere emakumeen % 50 eta gizonen % 40 egon zitezen.

Demokrazia paritarioa lortzera bideratutako neurriak aukeratzea eta neurri horien eraginkortasuna faktore askoren mendearen dago; esate baterako, hauteskunde-sistema (gehiengoaren araberakoa ala proportzionala; izen bakarreko barrutietakoala hautagai-zerrenda anitzetakoala; zerrenda itxi, desblokeatu edo irekietakoala), beste faktore batzuez gainera: herrialdearen garapen sozioekonomikoa eta tradizioa demokratikoa, besteak beste. Neurri horiek eraginkortasun-maila desberdinak eskain ditzake, kontuan hartuz borondatez ala legez ezartzekoak diren, haien ez-betetzea dela-eta zehapenik ezar daitekeen ala ez, hautagai-zerrendetan edo eserlekuen ordezkaritza orekatuan eragina duen, eta abar.

Bai euskal legediak, bai estatukoak ere parekotasuneko edo hautagai-zerrendetan nahitaezko ordezkaritza orekatuko printzipioak ezarri dituzte, eta haien ez-betetzeak berekin dakar hauteskunde-zerrenda bazter uztea; horrenbestez, neurri eraginkorra da ezinbestez, zerrenda horien osaerari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, emakumeek eta gizonek bizitza politikoan parte-hartze paritarioa izan dezaten lortzeko neurri horiek daukaten eraginkortasuna neurtzeko, ez da nahikoa hauteskunde-zerrenden osaera aztertzea; horretaz gainera, emakume hautetsien kopuria aztertu eta ikus behar da emakume hautagaien eta emakume hautetsien ehunekoetan desberdintasunik baden. Hori gertatzen denean, arrazoia izan daiteke hautagaiak zerrendetan kokatzen direla ordezkaritza lortzea espero ez den tokietan.

Hori dela eta, azterlanak analizatu eta alderatzen ditu, hautagaien eta hautetsien generoaren araberako zenbatekoak eta ehuneko bereiziez gainera, hautagai horiek zerrendetan betetzen duten tokiari buruzko datuak: zerrendako burutza eta tarte paritarioko burutza.

Halaber, alderdi nagusien barneko arauen parekotasunari buruzko aurreikuspenak errepasatzen dira, bai eta administratzaile, ahaldun eta artekari emakumezkoen osaera ere, zeren eta horrek isla baitezake oreka paritariorik badagoen alderdien funtzionamenduan, eta zeharka, azaldu baitezake emakumeek zer garrantzi duten zerrendak osatzeko garaian.

Berdintasunari buruzko euskal legearen egiazko eraginkortasuna egiaztatzeko, aztertu beharra dago ea erantzukizunak eta jarduera-arloak modu oreaktuan banatzen diren hautetsien artean, eta ea emakume hautetsiek bizitza politikoan irauten duten.

Azterlanak autonomia erkidegoko hiru erakunde-mailak hartzen ditu: udaletakoa, forukoa eta autonomikoa. Udaletan Estatuko Berdintasunari buruzko Lege Organikoa aplikatzen denez, horrek aukera ematen du bi arau-ereduen eragingarritasuna egiaztatzeko.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak aztertzerakoan, begiratu da zenbaterainokoa den emakumeen presentzia hauteskunde-zerrendetan (2001-2016); hautetsien artean eta gobernu organoetan, eta, azkenik, hautagai-zerrenden ahaldun, artekari eta administratzaile gisa. Halaber, begiratu da zenbat irauten duten emakume hautetsiek ordezkaritza-postuetan.

Lurralde historikoetako batzar nagusietarako eta udaletarako hauteskundeak aztertzerakoan, begiratu da zenbateko den emakumeen presentzia hauteskunde-zerrendetan (2003-2015), hautetsien artean eta gobernu organoetan.

Kontuan hartu dira bai ordezkaritza lortu duten hautagai-zerrendei buruzko datuak, bai ordezkaritzarik lortu ez dutenei buruzkoak ere; izan ere, hori aintzat hartu beharreko datu bat zen alderatzeko zein neurriean eragin dezakeen hautagai-zerrendetan ordezkaritza erreala izateko itxaropenak, emakumeak sinbolikoki kokatzerakoan edo ez kokatzerakoan zerrendaburu gisa edo ordezkaritza lortzeko moduko tokietan.

Azterlanean ondorioztatzen da autonomia erkidegoko hiru erakunde-mailetan herri ordezkaritzako karguetan emakumeek duten presentziaren gorakada nabarmena hein batean zor zaiela bai berdintasunari buruzko euskal legeak, bai berdintasunari buruzko lege organikoak ezarritako neurriei; halere, badirudi eragingarritasun berehalakoago bat izan duela euskal legean jasotako parekotasunaren printzipioak, estatuko legean jasotako zerrenden ordezkaritza oreaktuaren printzipioak baino.

Herri ordezkaritzako karguetan emakumeek eta gizonek ageri dituzten ehunekoetan izan den bilakaerak, itxura batean, pixkanaka oreakrako joera du, eta eragin handiagoa du Eusko Legebiltzarrean (2016ko hauteskundeetan emakume hautetsietan mugarririk historiko bat lortu zen) eta batzar nagusietan, udal organoetan baino. Deigarri gertatzen da emakume alkateen batez besteko ehunekoa, zeina oso urrun baitago berdintasunetik edo oreka paritariotik.

Baina etorkizuneko hauteskundeetara itxaron beharko da aztertzeko ea parekotasuna handitzeko joera egiturazko bihurtzen den; izan ere, hauteskunde batzuen azterketa konparatiboak erakusten du deialdien,

hautagai-zerrenden eta lurrealdean araberako jokaera gorabeheratsua dagoela, zeinak erakusten baitu maiz emakumeak hauteskunde-zerrendetan ordezkaritza lortzeko moduko tokietan kokatzea jartzen dela gizonezkoen ordezkaritza zabala lortzeko aurreikuspenaren mende.

Etorkizuneko hauteskunde-prozesuen azterketak aukera eman lezake adierazteko ea egokia den bestelako legegintza-neurriak hartza neurri positiboen gehigarri, beharrezkoak izanez gero, egiazki paritarioa den demokrazia batetik hurbilago egoteko.

Azkenik, azterlan honek akuilu bat izan nahi du hauteskundeetako parekotasunari buruzko arauen eraginkortasunean zerikusia duten beste alderdi kualitatibo batzuei buruzko etorkizuneko azterlanetarako; besteak beste, hauteskunde-zerrendak osatzeko barne-prozedurak; ordezkaritza-erakundeen lanerako organoentzako osaera (mahaia, eleduen batzarra) eta ea batzorde espezializatuetako banaketak generoko rolak errepikatzen dituen.

## II. SARRERA

Demokrazia Paritarioaren kontzeptualizatzea, Teoria Feministak garatua eta Parekotasunaren aldeko emakumeen Mugimenduak bultzatua, txosten honen esparru teorikoa da, eta haren helburu nagusia da EAEko hauteskunde-prozesuetako emakumeen eta gizonen parte-hartze soziopolitikoaren berri ematea. Horretarako gure lurraldean indarrean dauden bi legeek aztergai daukagun gaian duten eraginkortasuna ebaluatuko da. Lehenengoa 2005ean onetsi zen, eta haren aplikazio-eremu EA da, [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legea](#) da, (aurrerantzean EGBEL), eta bigarrena 2007an onetsi zen, eta Estatu osoa du aplikazio-eremu: [Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa](#) da, (aurrerantzean, EGBEL). Bi arauek aldaketak sartzen dituzte, EAEn emakumeen eta gizonen parte-hartze soziopolitikoan eragiten dutenak. Alde batetik, Eusko Legebiltzarrerako, lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako eta udal guztietako udalbatzetaarako hauteskunde-deialdietaurkezten behar diren zerrenden osaerari dagozkie; bestetik Eusko Jaurlaritzako organoena osaerari.

Bi arau horiek Demokrazia Paritarioa gauzatzeko modu desberdinak adierazten dituzte. Hauteskunde-zerrenden osaerari dagokionez, EGBLak «printzipio paritario» bat jasotzen du zerrendak osatzeari dagokionez: % 50na 6 pertsonako tarte bakoitzean. Parekotasunaren adierazpide hori «mugatua» dela esaten dugu, eta hobetzeko modukoa da noski. Mugatua zeren eta EGBLaren araugintza-agindua bete baitaiteke gizonezkoak jarriz tartearren lehenengo hiru postuetan eta emakumeak azken hiruetan, eta horrekin parekotasunaren arazoak gizonek eta emakumeek zerrendan betetzen dituzten tokietara eramatzen da; hau da, kontua da zeintzuek beteko dituzten gutxi-asko hautetsi gertatzea bermatuta dauden tokiak. Mugatze hori zuzen liteke parekotasunaren irizpidean «lehentasun-hurrenkerera» sartuz, hain zuzen ere kremailera erako zerrendak deitu ohi direnak: emakume bat - gizon bat - emakume bat..., edo alderantziz, gizon bat - emakume bat - gizon bat... Irizpide hori jada jasota dago berdintasunari buruzko zenbait legetan. Bere aldetik, EGBELak, «presentzia orekatuaren» printzipioaren pean, aipatzen du zerrendetan «ez dela sekula egongo sexu bakoitzetik ez % 40 baino gutxiago, ez eta % 60 baino gehiago ere», 5 pertsonako tarte bakoitzean. EGBLaren parekotasunaren adierazpena mugatua dela esaten badugu, EGBELarena oraindik ere mugatuagoa da. EGBLaren gertatzen zen bezala, EGBELaren agindua bete daiteke tarte bakoitzeko lehenengo hiru tokietan gizonezkoak jarriz eta azkeneko bietan emakumeak, eta horrela tarte guztietan. Kasu honetan, zerrendan betetzen den tokia are garrantzitsuagoa da amaierako emaitzei begira. Ikusten dugu muga hori zuzentzeko modua izan dela, EGBLaren kasuan bezala, zerrenda parekideak osatzea «lehentasun-hurrenkerarekin», alegia, *kremailera erako zerrendak*. Proposamen horrek ez die amaierarik ematen eragin paritario guztiei, baino askoz ere eraginkorragoa da haien zuzentzeko. Gobernu organoena osaerari dagokionez, EGBLak, azken xedapenetatik hirugarrenean [Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea](#) aldatzen du, eta agindu bat sartzen du: Gobernuko ordezkarietan sexu bakoitzetik gutxienez ere % 40 egotea. Agindu horren norainokoa eztaba daiteke, baina egiaztatu dugu ez duela erabiltzen hauteskunde-zerrendak osatzeko erabiltzen den irizpide bera, eta gobernuak osatzekoak progresibotasun gutxiago duela.

Zehaztu beharra dago ezen lan honetan, arau horietan ezarritako aginduak aplikatu zaizkiela haietan jasota ez dauden item batzuei; esate baterako zerrendaburuei: lehendakaria, alkateak eta abar. Horrek aukera eman digu ebaluatzea noraino gauden arauen betetze formal zorrotz baten aurrean ala emakumeen eta gizonen «berdintasun eragingarria» gauzatze materiala egiazki bilatzen duen konpromiso baten aurrean.

Azkenik, modu berritzale batez, analisi batzuk sartu dira ahaldunen, artekarien eta administratzaileen figuren gainean; izan ere, haien alderdi politikoek izendatzen dituzte —ez dituzte herritarrek hautatzen—, baina eginkizun oso garantzitsua dute, bai sinbolikoa bai materiala ere, hauteskundeetan eta emakumeen eta gizonen parte-hartzean.

### III. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA EAEko HAUTESKUNDE-PROZESUETAN: ARAU ESPARRUA

Ondoren aurkezten dugun arau esparrua sarreran aurkeztutako oinarriekin koherentea den azalpen bat da.

- Emakumeek politikaren arloko parte-hartzean eta ordezkaritzan berdintasuna izateko eskubidearen aurrekariak: Hauteskundeetako parekotasuna. Arauak eta emakumeen erakundeen eta emakumeen bultzada politikoak**

#### 1. 1 Nazioarteko eremua

Nazio Batuen Erakundea honako erabaki hauek hartu ditu:

1948

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, abenduaren 10ekoa

Herritarrek bereizkeriarik ez pairatzeko eskubidea:

**1. art.** Baiezatzen da pertsona guztiak aske jaiotzen gara eta eskubide berberak dauzkagu. **2. art.** Adierazten da, aurreko artikuluarekin bat, guztiok eskubide berberak dauzkagula eta, horrenbestez, ez dela inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, eta abarrengatik. **7. art.** Adierazten da herritar guztiak berdinak direla legearen aurrean eta, beraz, legezko babesa bera eduki behar dutela. **21.art.** Pertsona orok beren herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea zehazten da, bai eta funtziopublikoan berdintasunez sartzeko eskubidea eta bere herrialdean boto-askatasuna bermatzen duen prozedura baten bidez hauteskundeak izateko eskubidea ere.

1952

Emakumearen Eskubide Politikoen Konbentzia

Konbentzioak bilatzen du eskubideei dagokienez emakumeak eta gizonak berdinak izan daitezela, zeren eta herritar guztiak zilegi baitute herrialdeko gobernuan parte hartzea<sup>1</sup>. Espainiako Estatuak 1974an berretsi zuen<sup>2</sup>.

<sup>1</sup>Horren aurrekaria 1948ko Eskubideen Aldarrikapena da; izan ere, haren 21. artikuluaren idazketan eragin erabakigarria izan zuen Eleanor Rooseveltek. «Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea» aipatzen du artikulu horrek.

<sup>2</sup>Gogorarazi beharra dago hora berresteko orduan, Espainiako Antolamendu Juridikoan ez zegoela jasota emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa. [NU 20.12.1952](#).

**2. art.** Emakumeak hautagaiak izan ahalko dira legedi nazionalean ezarritako organismo publiko guztietaiarako, gizonekiko berdintasun baldintzetan; **3. art.** Joko da emakumeek kargu publikoak betetzera eta legedi nazionalean ezarritako funtziopublikoak betetzera gizonekiko berdintasun baldintzetan, inongo bereizkeriarik gabe.

1966

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna

*Itunaren helburua da eskubideak ezartzea; horien artean dago emakumeen eta gizonen berdintasunarena. Botere publikoek eskubide horiek zaindu beharko dituzte. «Aukera-berdintasuna» esapidearekin emakumeen bazterkeriaren aurka egiteko estrategia bat ezartzen da. Espainiako Estatuak 1977an berretsi zuen<sup>3</sup>.*

**2.1 art.** Itun honetako estatu alderdietako bakoitzak konpromisoa hartzen du, bere lurraldean egon eta bere jurisdikzioaren mende dauden gizabanako guztiei errespetatu eta bermatzeko itun honetan aitortutako eskubideak, inolako bereizketarik egin gabe, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein gizarte-ezaugarri dela bide. Estatuak dira aitortutako eskubide guztiak eraginkorrak izan daitezzen behar diren neurri guztiak onesteko erantzukizuna dutenak.

**25. art.** Herritar guztiek izango dituzte, 2. artikulan aipatutako bereizketarik gabe eta bidegabeko murritzetarik gabe,urrengo eskubideak eta aukerak: a) Arazo publikoetan parte hartzea, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkarien bidez; b) Botoa ematea eta hautatua izatea benetako eta aldizkako hauteskundeetan, halakoak egiten direnean sufragio unibertsal eta berdinaren bidez eta hautesleen borondatea askatasunez agertzea bermatzen duen boto sekretuaren bidez; c) Berdintasun-baldintza orokorretan sarrera izatea euren herrialdeko funtziopublikoan.

**26. art.** Pertsona guztiak berdinak dira legearen arabera, eta eskubidea dute, bereizkeriarik gabe, legearen babesia izateko. Hartara, legeak bereizkeria oro debekatuko du, eta pertsona guztiei babes bera eta eragingarria bermatuko die, edozein bereizkeriaren aurka, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila edo beste edozein gizarte-ezaugarri dela bide. Idazkera Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 7. artikulan ageri denaren ia berdina da. Ondorioztatzen da herritar guztiek legearen aurrean eduki beharreko berdintasunaren aitortzeaz batera hura babestu ere egin beharra dagoela.

1967

Emakumearen Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena

**4. artikuluak** zehazten du inongo bazterkeriarik ez gertatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna gauzatzeko, neurri batzuk onetsi behar direla; esate baterako botoa emateko eskubidea eta hautatua izateko eskubidea, edo kargu publikoak betetzeko eskubidea.

<sup>3</sup>NU 19.12.1966.

1979

**Emakumea bereizteko era guztiak deuseztatzeari buruzko Konbentzia.  
Emakumearen Bereizkeria Ezabatzeko Komitea**

*Emakumeen aurkako bereizkeria oro ezabatzeari buruzko hitzarmena* (CEDAW) delakoan onetsia. Espainiako Estatuak 1983an berretsi zuen<sup>4</sup>. Ezartzen du estatuek neurriak hartuko dituztela eremu politikoan eta publikoan emakumeen bereizkeria ezabatzeko. Halaber, emakumeen eskubide politikoak bermatzen ditu, gizonekiko berdintasun baldintzetan.

**2. art.** «Estatu alderdiek emakumearen aurkako bereizkeria kondenatzen dute, horren mota edozein dela; orobat, adostu dute emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeko politika egitea, atzerapenik gabe, egoki diren bide guztiak erabilita, eta, xede horrekin, euren konpromisoa da: a) Konstituzio nazionalaletan eta beste edozein legeria egokitan gizonaren eta emakumearen arteko berdintasun-printzipioa sendotzea, baldin eta oraindik hori sendotu ez badute, eta lege nahiz beste bide egoki batzuen bitartez praktikan printzipo hori gauzatzen dela ziurtatzea; b) Emakumearen aurkako bereizkeria guztiak debekatzen dituzten neurri egokiak hartza, legegintzazkoak eta beste izaera batekoak, kasuan kasuko zehapenekin; c) Emakumearen eskubideen babes juridikoa ezartzea, emakumeak gizonaren eskubide berberak izan behar dituela oinarri hartuta; eta emakumearen babes eragingarria bermatzea, bereizkeria-egintza ororen aurka, auzitegi nazional edo eskudunen bidez eta beste erakunde publiko batzuen bidez; d) Emakumearen aurkako bereizkeria-egintza edo -eginerarik ez gauzatzea, eta agintarietik nahiz erakunde publikoek betebehar horrekin bat etorri z jardun dezatela zaintzea; e) Neurri egoki guztiak hartza, edozein pertsona, erakunde edo enpresak emakumearen aurka gauzatzen duen bereizkeria ezabatzeko; f) Neurri egoki guztiak hartza, baita legegintzazkoak ere, emakumearen aurkako bereizkeria gauzatzen duten lege, erregelamendu, usadio eta eginerak aldarazi edo indargabetzeko; g) Emakumearen aurkako bereizkeria gauzatzen duten zigor-xedapen nazional guztiak indargabetzea».

**7. art.** «Estatu alderdiek neurri egoki guztiak hartuko dituzte, emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeko, herrialde bakoitzeko bizitza politiko eta publikoan; bereziki, hurrengo eskubideak bermatuko dizkiete emakumeei, gizonen baldintza berberetan: a) Hauteskunde eta erreferendum publiko guztietan botoa ematea eta hautagai izatea, antolakundeetako kideak hauteskunde publikoen bidez hautatu behar direnean; b) Gobernu-politikak azaltzean eta horiek betearaztean parte hartza, eta kargu publikoak izatea eta eginkizun publiko guztiak gauzatzea gobernu-maila orotan; c) Estatuz kanpoko erakunde eta elkarretoetan parte hartza, halakoak herrialdeko bizitza publiko eta politikoaz arduratzen direnean».

**8. art.** «Estatu alderdiek neurri egoki guztiak hartuko dituzte, emakumeari aukera bermatzeko, nazioartean mailan bere gobernua ordezkatzen eta nazioarteko erakundeetan parte hartzeko, gizonen baldintza berberetan eta inolako bereizkeriarik gabe.»

1975 - 1995

**Emakumeari buruzko Mundu Konferentziak. Mexikotik Beijingera**

Nazio Batuen Emakumeari buruzko Mundu Konferentziak, Mexikon (1975), Kopenhagen (1980), Nairobin (1985) eta Beijingen (1995) egindakoak.

<sup>4</sup>1984ko martxoaren 21eko BOE, 69. zenbakia. Emakumearen Kode a. Gizarte Gaietarako Ministerioa. Madril, 1992.

Konferentziaren helburua izan da bazterkeriaren aurka eta berdintasunaren alde borrokatzea. Horretarako, estrategia bikoitza aldeztu da. *a) ekintza positiboa*, zeinarekin bermatu nahi baita emakumeek bizitzaren eremu desberdinaren parte har dezatela berdintasun-baldintzetan, hartara lortzeko Nazio Batuen sistemako langileen artean emakumeen % 50 egotea, gutxienez, Beijingetik aurrera; *b) zeharkakotasuna*, zeinarekin bermatu nahi baita politika publiko guztiak eta haien diseinatu eta ezartzeko prozesu guztiak genero-ikuspegiarekin egiten direla, hau da, kontuan hartuta gizartea emakumeek eta gizonek osatzen dutela.

2000

Beijing Review Conferences

Ezarritako neurriak ebaluatzen dira<sup>5</sup>, eta ikusten da hobekuntza handia gertatu dela ekintza positiboak aplikatu dituzten herrialdeetan; esate baterako, «parekotasuneko hauteskunde-kuotak».

2003

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 58/142 Ebazpena, emakumeak politikan parte hartzeari buruzkoa

*12 jarraibide ezartzen ditu emakumeen presentziari eta parte-hartze soziopolitikoari buruz.*

**1.art.** e) Premiatzen du generoen arteko orekaren helburua sustatzera kargu publiko guztietan, eta egoki diren neurri guztiak hartzera alderdi politikoei pizgarriak emateko berma dezaten emakumeak aukera zuzen eta ekitatiboa izan dezatela kargu publiko guztiak lortzeko, hautatu beharrekoak zen hautatzen ez direnak; **2. art.** Gobernu guztiei gonbita egiten die, bai eta sektore pribatuei, erakundez kanpoko erakundeei eta gizarte zibileko beste eragile batzuei, honako hauek egin ditzaten: **a)** Gaikuntzarako mekanismo eta programak ezartzea, emakumea hauteskunde-prozesuan parte hartzera bultzatzeko, eta hura hobeki prestatzeko bere bota arrazoia ezagututa eman dezaten hauteskunde aske eta garbietan; **b)** Emakumeek prozesu politikoan parte har dezaten bazterkeriaz eragozten edo mugatzen duten legeak, erregelamenduak eta jokamoldeak ezabatzea, eta neurri positiboak aplikatzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna azkarrago lortze aldera.

## 1. 2. Europako eremua: parekotasunerako kuotak

1988

Europako Parlamentuaren 1988ko 169. Ebazpena

Alderdiei eskatzen zaie «beren hautagai-zerrendak ezar ditzatela argiro zehaztutako kuoten sistema kontrolagarri batez, halako moduz non *epe labur batean gizonen eta emakumeen berdintasun numerikoa erdietsiko den ordezkaritza politikoko organo guztietan*.»

<sup>5</sup>Beijing-eko adierazpena eta ekintza plataforma aplikatzeko adierazpen politikoa eta neurri eta ekimen berriak.

1992

### «Emakumeak Boterean» Europako Goi-bilera

Atenasen egin zen 1992ko azaroaren 3an. Planteamendu politiko desberdinak zituzten hainbat emakumek sinatua, erakundeetako eremu guztietakoak, horien artean ministroak eta estatuburuak, zeinek ohartarazi baitzuten emakumeek erabaki-postuetan azpi-ordezkatuta zeudela. Orduantxe hitz egin zen lehenengo aldiz botere publikoetako banaketa oreaktuari buruz. Lehenengo aldiz erabili zen *Demokrazia Paritarioa* terminoa: emakumeek berdintasunez ordezkatuta egon beharko lukete esparru guztietako botere-guneetan. Goi-bilera hartatik Atenasko 1992ko Adierazpena atera zen.

#### Atenasko 1992Ko Adierazpena

*Lehenengo aldiz, Demokrazia Paritarioa terminoa erabili zen.*

Honako hau baieztatzen da: a) «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun formala eta erreala gizakiaren funsezko eskubide bat da»; b) «Emakumeak populazioaren erdia baino gehiago dira; horrenbestez, demokraziak eskatzen du nazioetako ordezkartzan eta administrazioan parekotasuna egon dadila»; c) «Emakumeak gizateriaren inteligentzien eta gaitasun potentzialen erdia dira, eta hain zuzenago eta oreaktuago bat lortzeko, bai emakumeentzat, bai gizonentzat»; d) «Emakumeek eta gizonek erabaki-postuetan azpi-ordezkatuta egotea galera bat da gizarte osorako»; e) «Emakumeak eta gizonek erabakiak hartzerakoan parte-hartze oreaktu bat edukitzeak ideia, balore eta jokabide desberdinak ekar ditzake, mundu zuzenago eta oreaktuago bat lortzeko, bai emakumeentzat, bai gizonentzat»; izan ere, «emakumeak erabaki-postuetan azpi-ordezkatuta egoteak eragozten du gizarte osoaren interesak eta beharrak osoki barneratzea», e) «Botere publiko eta politikoetan emakumeen eta gizonen arteko banaketa oreaktu bat lortzeko beharra» aldarrikatzen zuen, eta «parte-hartzearen berdintasuna» aldarrikatzen zuen «erabaki publiko eta politikoak hartzerakoan», bai eta «erabaki-prozesuen egituraren aldaketa sakonak egiteko beharra» ere, berdintasun hori bermatze aldera.

Horren guztiaren asmoa zen agintari politikoek (europarrek eta nazioetakoek) onar zitzatela demokraziaren ondorioak, zeinetan oinarritzen baitira alderdi guztiak, halako moduz non bermatuko baitzuten gizonen eta emakumeen artean oreka bat egon zedila postu politikoetan, boterean parte hartzeari dagokionez (Aldeguer, 2016).

#### 1996, Erromako Adierazpena

«Emakumeak politikaren eta gizartearen berrikuntzaren alde» Europako Goi-bileratik aurrera, eskatzen da emakumeek berdintasunez ordezkatuta egon daitezela botere-guneetan, Europako gizartearen esparru guztietan. Halaber, Adierazpenak eskatzen du emakumeek presentzia handiagoa izan dezatela Europar Batasuneko kide diren estatuetako gobernuetan.

Atenasko 1992ko Adierazpenetik Erromako 1996ko Adierazpenera bitarteko aldian, honako ebazpen hauek onetsi ziren<sup>6</sup>:

- 1994: Emakumeek erabaki-organoetan parte-hartzeari buruzko 1994ko otsailaren 11ko Ebazpena.
- 1995: Kontseiluaren Ebazpena, 1995eko martxoaren 29koa, erabakiak hartzerakoan emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izateari buruzkoa.
- 1995: Kontseiluaren Erabakia, 1995eko abenduaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunari buruzko epe ertaineko ekintza programa komunitario bati buruzkoa.
- 1996: Kontseiluaren 96/694 Gomendioa, 1996ko abenduaren 2koa, erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izateari buruzkoa.

1997

Europako Kontseilua, Europako Ministroen IV. Konferentzian

Europako Kontseiluak, [Istanbulen 1997ko 13an eta 14an egindako konferentzia](#) horretan, adierazpen bat egin zuen *emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz, bera demokraziaren funtsezko irizpidetza hartuta*. Gainera [Parlamentu arteko Batasunak](#), 1997ko otsailaren 14an eta 18an Nueva Delhin egindako Konferentzian, «Gizonen eta emakumeen arteko lankidetzarantz politikan» izenekoan, zenbait neurri aztertu zituen emakumeek parlamentuetan duten presentzia handitzeko, eta hainbat proposamen egin zituen kuotak ezartzeari buruz eta pizgarri ekonomikoak sartzeari burua.

1999, Europako Biltzarra Parisen

1999an, adierazpen berri bat egin zen Parisen egindako Europako Biltzarrean. «Emakumeak eta gizonak boterera» izenburuko biltzarraren harira, berriz ere egiaztatu zen erabaki-postuetan desberdintasunek beren horretan dihardutela. Adierazpena Europar Batasuneko estatu kideetako ordezkari ziren ministroek sinatu zuten, emakumeek zein gizonek, eta horrekin urrats bat haratago egiten zuten, konpromisoa hartzen baitzuten *berdintasun erreala* lortzea bideratzen duten neurriak hartzeko eta neurri horiei eusteko. Adierazpen horrek *gobernuei eta alderdiei gomendatzen die hauteskunde-esparruan eta aholku-organoetako kideak izendatzerakoan neurriak har ditzaten*.

2003, Atenasko Biltzar Berezia

*Emakumeei eta Europako Konbentzioari buruzko adierazpena. Atenas, 2003an.* Atenasen egindako biltzar berezi baten ondoren egin zen adierazpen hori, eta Europar Batasuneko parlamentu nazionaletan

<sup>6</sup>1994: 1994ko otsailaren 11ko Ebazpena.

1995: Kontseiluaren 1995eko martxoaren 27ko Ebazpena.

1995: Kontseiluaren 1995eko abenduaren 22ko Erabakia.

1996: Kontseiluaren 1996ko abenduaren 2ko 96/694 Gomendioa.

ordezkariet eta Europako Parlamentuko Aukera Berdintasunaren arloko Batzordeen Sareak sinatu zuten. Beste behin adierazten da berdintasuna funtsezko eskubide bat dela, eta bakea, justizia soziala eta giza eskubideen errespetua nahi dituen gizarte demokratiko ororen giltzarria.

### 2006, Londresko Itun Europarra

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko Itun Europarra, 2006an Londresen Frantziak, Spainiak, Finlandiak, Suediak eta Txekiaro Errepublikak sinatua, beste ekimen bat da, eta hartan aurrekoetan baino jarduketa-eremu zabalagoak jasotzen dira.

Parisko 1999ko Europako Biltzarretik Londresko 2006ko Itun Europarrera, zeina [2011n](#) berritu baitzen, honako ebauden hauek onetsi dira:

- 2000an, Kontseiluaren baitan 2000ko ekainaren 29an bildutako Kontseiluaren eta Laneko eta Gizarte Gaietako Ministroen 2000/C218/02 Ebaudia, gizonek eta emakumeek lanbide-jardueran eta familia-bizitzan parte-hartze oreaktua izateari buruzkoa.
- 2000an, Kontseiluaren 2000ko azaroaren 27ko Erabakia, bazterkeriaren aurka borrokatzeko Europako ekintza-programa bat ezartzen duena.
- 2003an, Kontseiluaren 2003ko uztailaren 15eko Ebaudia, kapital sozialari eta giza kapitalari buruzkoa. Kapital sozialaren eta giza kapitalaren prestakuntza jakintzaren gizartean: ikaskuntza, lana, kohesio soziala eta gizonen eta emakumeen berdintasuna.
- 2006an, Genero Berdintasunaren aldeko Itunak (2006).
- 2011-2020 aldian, Genero Berdintasunaren aldeko Itunak (2011-2020)

### 1. 3. Estatuko eremua

Spainiako Estatuan, Demokrazia Paritarioaren harrera juridikoak Europako esperientzien hedapenaren eraginaren pean dago. Estatuko araudiaren berezitasunen bat da zenbait autonomia erkidegok abiatutako bidearen ondorengoa dela. Horien artean, EAE dago, zeina *lehenengo* autonomia erkidegoa izan baitzen *hauteskundeetarako parekotasunerako* araudi bat aplikatu zuena Eusko Legebiltzarrerako 2005eko hauteskundeetan.

Berdintasunaren ideiak norainoko desberdina dauka, aipagai ditugun arau-aginduen arabera. Demokrazia Paritarioaren testuinguruan «*berdintasun eragingarria*» aipatzen dugu, eta hain zuzen ere horri buruz hitz egingo dugu hemendik aurrera.

1978

## Espainiako Konstituzioa

Honako hauek dira berdintasuna, modu orokorrean, aipatzen duten artikuluak: **1.1 artikulua**, zeinean balio goaren edo funtsezko printzipio gisa agertzen baita; **9.2 artikulua**, zeinaren helburua baita berdintasuna sustatzea eta desberdintasunak ezabatzea, eta botere publikoek eskubide horren berme eragingarrirako konpromisoa har dezatela; **14. artikulua**, zeinean zehazten baita «justiziaren aurreko» *berdintasun formal liberalaren* printzipio juridikoa: «legearen baitako» berdintasuna (legegilearen muga), eta «legearen aplikazioaren» esparruaren berdintasuna (Administrazio Publikorako eta Botere Judizialerako muga); eta **23.1 artikulua**, zeinak aitortzen baitu «Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuenzuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez hautatuko dira, sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan (...) Era berean, herritarrek eskubidea dute, berdintasun-baldintzetan eta legeek ezartzen dituzten betekizunekin, funtzio eta kargu publikoetara heltzeko».

1985

## 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde-araubide Orokorrari buruzkoa

**6. artikuluak** sufragio pasiboa arautzen du, eta aipatzen ditu «hautesle-izaera izan eta legeak berak ezartzen dituen hautaezintasun-arrazoietako batean ez dauden espanyarrak» (orokorrean, eta ulertu beharra dago unibertsala dela, nahiz eta emakumeak eta gizonak ez aipatu); bestalde, **43. artikuluak** eta ondorengoko «Hautagai-zerrendek Hauteskunde-administrazioaren aurrean dauzkaten ordezkariak» eta «Hautagaien aurkezpena eta aldarrikapena» aipatzen dituzte.

Demokrazia Paritarioari buruzko Europako eztabaidea guztia 80eko hamarkadan zehar gertatzen da. Baina 90eko hamarkadara arte ez dira hasten Europako erakundeak erabakiak hartzen hauteskunde-parekotasunaren gaia arautzeko beharrari buruz.

Espaniako Estatuan 2001etik 2007an [Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa](#) onetsi zen arte, zenbait talde parlamentariok legegintza-proposamenak aurkezu zituzten<sup>7</sup>. Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoa aldatu nahi zuten, hautetsi izatera iristeko emakumeen eta gizonen berdintasuna «bermatzeko», baina guztiak porrot egin zuten eta atzera bota ziren Alderdi Popularra haien aurka agertu zelako. 2003an, parekotasunari buruzko hiru lege proposamen aurkezu ziren berriz ere Kongresuan. Horietatik<sup>8</sup> bik aurrez aurkeztutako testuak errepikatu zituzten eta hirugarrenean, berriz,<sup>9</sup> proposatzen da zerrendetan lehentasun-hurrenkera bat errespeta dadila: «emakumea-gizona-emakumea...» edo «gizona-emakumea-gizona...». Horiek eta 2004an aurkeztutakoak<sup>10</sup> bera bota ziren atzera, baina balio izan zuten Kongresuaren Osoko Bilkuran eztabaidea behin eta berriz egin zedin.

2007ra arte itxaron beharko da. Parlamentuan beste gehiengo bat zegoela eta gobernu-aldaketa eginda [Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa](#) onetsi zen, zeinean Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoari 44 bis artikulua gehitu baitzitzaion.

<sup>7</sup>2001ean, Sozialisten Talde Parlamentarioak aurkeztutako lege proposamena; 2002an, Ezker Batuko Talde Parlamentario Federalak aurkeztutako lege proposamena; 2002an, Talde Parlamentario Mistoak aurkeztutako lege proposamena.

<sup>8</sup>Talde Parlamentario Sozialistarena, Ezker Batuko Talde Parlamentarioarena eta talde Parlamentario Mistoarena.

<sup>9</sup>Iniciativa per Catalunya-Verds (ICV)

<sup>10</sup>2004an, Izquierda Verde-Izquierda Unida-Iniciativa per Catalunya-Vert Talde Parlamentarioaren lege proposamena; 2004an, Kanariar Uharteetako Parlamentua aurkeztutako lege proposamena.

Lege horrek ordenamenduan sartzen du hauteskunde parekotasunaren adierazpideetako bat, «emakumeen eta gizonen presentzia orekatuarena», Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzen duen bigaren xedapen gehigarriaren bitartez. Honako hau dio: «Bat. 44 bis artikulu berria gehitzen da».

#### 44 bis artikulua

- 1 Kongresurako diputatuen hauteskundeetarako, udal-hauteskundeetarako eta Kanarietako uharte-kontseiluetako nahiz kabildoetako kideen hauteskundeetarako lege honetan ezarritakoaren arabera aurkezten diren hautagai-zerrendak, eta Europako Parlamenturako diputatuen eta autonomia-erkidegoetako legebiltzarretarako kideen hauteskundeetarako aurkezten diren hautagai-zerrendak modu orekatuan osatu beharko dira gizon- eta emakume-kopuruari dagokionez; horrenbestez, zerrenda osoan sexu bereko pertsonak gutxienez ehuneko berrogei izan beharko dira. Bost postu baino gutxiago bete behar direnean, emakumeen eta gizonen arteko proportzioa ahalik orekatuena izango da, batzuen eta besteen kopuruari dagokionez.  
Autonomia-erkidegoetako legebiltzarretarako kideen hauteskundeetan, kasuan kasuko hauteskunde-araubideei buruzko legeek neurriak ezarri ahal izango dituzte, aipatu legebiltzarretako hauteskundeetara aurkezten diren hautagai-zerrendetan emakume gehiago izan daitezen ahalbidetzeko.
2. Halaber, ehuneko berrogeiari eutsiko zaio gutxieneko proportzio gisa, bost postutik bost posturako tarte bakoitzean. Zerrendaren azken tartean bost postu baino gutxiago daudenean, tarte horretan, emakumeen eta gizonen artean izan beharreko proportzio hori ahalik orekatuena izango da, batzuen eta besteen kopuruari dagokionez; edozein kasutan, zerrenda osoa kontuan hartzen denean, ezarritako proportzioari eutsi beharko zaio.
3. Ordezkoen zerrendei aurreko paragrafoetan jasotako erregelak aplikatzeko zaizkie.
4. Lege honen 171. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, senaturako hautagai-zerrendak hainbat zerrendetan batzen direnean, zerrenda horiek ere modu orekatuan osatu beharko dira, emakume- eta gizon-kopuruari dagokionez, batzuen eta besteen arteko proportzioa ahalik orekatuena izan dadin, kopuruaren aldetik..»

**Bi.** 187. artikuluaren 2. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio:

Lege honen 44 bis artikuluan ezarritakoa ez da galduko 3.000 biztanle edo gutxiagoko udalerriean aurkezten diren hautagai-zerrendetan.

**Hiru.** 201. artikuluaren 3. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio:

Lege honen 44 bis artikuluan ezarritakoa ez da galduko 5.000 biztanle edo gutxiagoko uharteetan aurkezten diren hautagai-zerrendetan.

**Lau.** Lehenengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoa aldarazi da; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

2. Konstituzioak estatuarti erreserbatu dizkion eskumenak aplikatzeagatik, autonomia-erkidegoek euren lege-biltzarretarako deitutako hauteskundeetan ere aplikatuko dira lege organiko honen lehenengo tituluko hurrengo artikuluak:

1 - 42; 44; 44 bis; 45; 46.1, 2, 4, 5, 6 eta 8; 47.4; 49; 51.2 eta 3; 52; 53; 54; 58; 59; 60; 61; 62; 63; 65; 66; 68; 69; 70.1 eta 3; 72; 73; 74; 75; 85; 86.1; 87.2; 90; 91; 92; 93; 94; 95.3; 96; 103.2; 108.2 eta 8; 109 a 119; 125 - 130; 131.2; 132; 135 - 152.

**Bost.** Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, zazpigarrena hain zuzen:

2011 baino lehenago, udal-hauteskundeetarako egiten diren deialdietan, 44 bis artikuluan ezarritakoa galduko da gutxienez 5.000 biztanle dituzten udalerriean bakarrik; 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, lege honen 187. artikuluaren 2. paragrafoko bigarren lerrokadan ezarritako biztanle-kopurua aplikatuko da.

Baina lege hori onetsi baino lehen, legegintza-jarduera trinko bat gertatzen da autonomia erkidegoan, ondorio garrantzitsuak dituena EAEn egiten diren hauteskunde-prozesuetako zerrenden osaera parekidean. Zehazki, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea da.

Gaur egun, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa soilik udal hauteskundeetan da aplikatzeko. Eusko Legebiltzarrerako eta lurralte historikoetako batzar nagusietarako hauteskundeetan Euskal Autonomia Erkidegoko araua aplikatzen da, EGBELaren aurretik onetsi baitzen.

2002tik 2007ra, ezkerreko alderdiek edo joera nazionalistako alderdiek gobernatzen zuten erkidegoetan, nola baitzen EAE, Juan José Ibarretxe lehendakaria buru zuela<sup>11</sup>, parlamentu autonomikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lege-ekimenak onetsi zituzten, horren barne hauteskunde-parekotasuna zegoela.

Gai hori zela-eta ireki ziren konstituzio-kontrakotasuneko prozesu guztiak eskumen-arazo batekin dute zerikusia: oinarrizko eskubideei buruz legeak egiteko forma juridikoa. Konstituzioak adierazten du oinarrizko eskubideei buruz —emakumeen eta gizonen berdintasuna da horietako bat— legeak egiteko forma juridikoa «Lege Organikoarena» dela, eta lege organikoak onestea Estatuko Botere Legegilearen eskumen esklusiboa dela eta botere legegile autonomikoetarako galarazita dagoela. Eusko Legebiltzarrak ez du eskumenik emakumeen eta gizonen berdintasunerako oinarrizko eskubideari buruz, zeren eta ez baita eskuduna lege organikoak onesteko. Egin dezakeena da —eta jada egin du— 2007aren aurretiko bere eskumenen eremuko legeak egitea, beste hiru autonomia erkidegok egin duten bezalaxe.<sup>12</sup>

Hauteskunde-arau parekide guztiak direla-eta konstituzio-kontrakotasuneko errekursoa aurkeztu zen. Lehenengo bien (Balear Uharteak eta Gaztela-Mantxa) aurkako errekursoa Gobernuko Lehendakariak aurkeztu zuen; Euskadikoaren aurkakoa Kongresuko Talde Parlamentario Popularreko 62 diputatuk, eta laugarrena (Andaluzia) talde bereko 50 diputatu baino gehiagok eraman zuten Konstituzio Auzitegira.

Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegian aurkeztutako errekursoetako bakarra ere ez zen aurrera atera. Lehenengo bi kasuetan, PSOEk, Gobernura iritsita, errekursoetan atzera egin zuen, eta Auzitegiak atzera-egiteak onartu zituen. Euskadiko kasuan, errekursoa ebatzi zen [urtarilaren 19ko 13/2009 epaiaren bitarte](#) eta Andaluziako kasuan, berriz, [martxoaren 31ko 40/2011 epaiaren bitarte](#). Garrantzitsua da azpimarratzea ezen kasu hauetan legeak aplikatu ahal izan zirela, zeren eta errekurso bat aurkezteak ez baitu suposatzen inpugnatzen den araua eteteko eragina izatea; hori dela eta, hauteskunde-parekotasunaren arloan estatuan aplikatu zen lehenengo araua euskal legea izan zen, Eusko Legebiltzarrerako 2005eko hauteskundeetan.

---

<sup>11</sup>Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarrera publikoa zegoen, berdintasunaren aitorpen formalaz haratago.

<sup>12</sup>Balear Uharteak, ekainaren 21eko 6/2002 Legea, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoaren 8/1986 Hauteskunde Legea aldatzekoa. 1. artikuluak 8/1986 Legearen 16. artikulua aldatzen du. Laugarren apartatuan dio hauteskundeetarako hautagai-zerrendek emakumeen eta gizonen arteko oreka islatu behar dutela, eta sexu bateko zein besteko hautagaiak txandaka sartu behar dituztela, eremu politikoan berdintasuna lortzeko helburuarekin (lehentasun-hurrenkera ezartzen du); Gaztela-Mantxako ekainaren 27ko 11/2002 Legeak, berriz, Gaztela-Mantxako abenduaren 23ko 8/1986 Hauteskunde Legea aldatzen du. 1. artikuluak berdintasun-printzipioa bermatzen du, eta 8/1986 Legearen 23. artikulari 1.bis apartatu berria gehitzen dio, zeinean xedatzen baita hautagai-zerrendak aurkeztu beharko direla emakumeak eta gizonak txandaka jarriz: batzuk postu bikoitietan eta besteak bakoitietan; horrekin oreka lortu nahi da zerrendetan (Lehentasun-hurrenkera sartzen du); Andaluziak apirilaren 8ko 5/2005 Legea onetsi zuen, Andaluziako Hauteskundeei buruzko urriaren 2ko 1/1986 Legea aldatzen duena. 2. artikuluak, 1/1986 Legearen 23.1 artikulua aldatzen duenak, esaten du emakumeak eta gizonak txandaka kokatu beharko direla hautagai-zerrendetan, eta, Gaztela-Mantxan bezala, toki bikoitietan sexu batekoak egongo dira eta toki bakoitietan, berriz, bestekoak.

## **2. Emakumeek politikaren arloko parte-hartzean eta ordezkaritzan berdintasuna izateko eskubidea: Hauteskundeetako parekotasuna EAEn**

### **2. 1. Hauteskundeetako parekotasunaren arloko euskal legedia. Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, Tokiko Erakundeak**

Euskadiko [Autonomia Estatutuaren](#) 9.1 artikuluan, Konstituzioan xedatutakoari igoeran bat eginez, berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatiko bazterketarik ez izateko eskubidea aldarrikatzen da; 9.2.d artikuluan, berriz, euskal botere publikoei eskatzen zaie neurriak har ditzatela banakakoaren eta banakako horiek integratuta dauden taldeen askatasunerako eta berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko.

Bestalde, Estatutuan, Euskadiren eskumenen esklusiboa diren gaien artean, 10.39 artikuluan, «emakume kondizioa» jasotzen da.

Berdintasunaren arloari dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde komunelai eta lurralte historikoetako organoiei dagozkien eskumenak mugatzearen esparruan, 2005ean *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea* onetsi zen. Bertan euskal botere publikoek berdintasunaren arloan dauzkaten eskumenak ezarri ziren:

- Erkidegoko erakunde komunelai dagokie, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai legegintzako eskumena, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta zuzeneko ekintza ere.
- Foru organoiei eta Tokiko Administrazioari dagokie arloko arauak betearaztea, Erkidegoko erakunde komunen zuzeneko ekintza ezertan kendu gabe.

Toki Administrazioari dagokionez Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 28. artikuluan ezartzen du udalek beste administrazio publikoek betetzen dituztenen jarduera osagarriak betetzen ahalko dituztela, bereziki emakumearen sustapenaren arloan. Eskumenen banaketa horretan oinarrituta, autonomia erkidegoaren Administrazioari, Foru Administrazioari eta Tokiko Administrazioari dagozkien eginkizunak EGBLan ezarrita daude, 5., 6. eta 7. artikuluetan, hurrenez hurren:

#### **Eusko Legebiltzarra**

**1979**

**3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18ko,  
Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuarena**

9.1 artikuluan<sup>13</sup>, Konstituziorako igorpena egiten du, berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatiko (besteak beste) bazterketarik ez izateko eskubidea aldarrikatzen du, eta 9.2.d) artikuluan ezartzen du botere publikoek behar diren baldintzak sustatu behar dituztela eta oztopoak kendu behar dituztela herritarren eta herritarrak biltzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin.

<sup>13</sup>Gernikako Estatutua izenaz ere ezagutzen dena da. [1979ko abenduaren 22ko BOEn \(306. zk.\) argitaratu zen](#).

1980

Apirilaren 26an Eusko Legebiltzarra Gernikan bildu zen. Hura osatzen zuten 60 pertsonetatik 4 emakumeak ziren, % 6,7, guztiak ere EAJKoak

1988

2/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, «Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea» sortzeari buruzkoa

2005

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak

Lehentasunezkotzat jotzen da emakumeak baztertzeko modu guztiak ezabatzea eta behar diren neurriak hartzea EAeko eremu guztieta partea har dezaten sustatzeko.

Zioen azalpenean esaten da azken xedea dela berdintasunezko gizarte bat lortzea. Botere publikoen berdintasunaren arloko jarduna orientatu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta bizitzaren eremu guztieta aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzen eta bermatzen bideratutako neurriak arautzen ditu.

EGBLak, azken xedapenetatik 4.ean, honako hau dio:

Laugarrena: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzea.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko [ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 50. artikuluan, paragrafo bat gehitzen da. Paragrafo hori 4.a izango da](#) eta hala esango du:

«4. Alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesleen elkarteen aurkezten dituzten hautagai-zerrendetan, %50, gutxienez, emakumeak izango dira<sup>14</sup>. Proportzio hori hautagai-zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakotzean mantenduko da. Eskualdeko hauteskunde-batzorde eskudunek, hain zuzen, artikulu honetan hautagaien nahiz ordezkoen kasuan ezartzen dena betetzen duten hautagai-zerrendak baino ez dituzte onartuko».

Eusko Jaurlaritzak onetsitako araua dela eta, haren aukako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoa aurkeztu zuten PPko 62 diputatuk. Konstituzio Auzitegiak lau urte geroago ebatzi zuen errekursoa, [urtarilaren 19ko 13/2009 epaiaren bitarbez](#). Errekursoa aurkezteko moduak ez zuen saihetsi Eusko Legebiltzarrerako 2005eko hauteskundeetan arau horrek zerrenden osaera arau zezala; emakumeen berdintasunaren aldeko ratiorekin handienarekin aplikatu zen aldi bakarra izan zen.

EGBLak «parekotasun-printzipio mugatua» adierazten zuen, zeren eta ezartzen baitzuen zerrenden osaeraen 6 pertsonako tartean gutxienez ere emakumeen % 50 egotea». Bestela esanda, «ekintza positiboko» neurri bat ezartzen zuen emakumeen alde, zeren eta aukera ematen baitzuen emakumeen % 50 edo gehiago zituzten zerrendak egoteko, are % 100ekoak ere. Harrigarria bada ere, ez zuen lehentasun-hurrenkerarik ezartzen hautagai-zerrenda mistoetan, «kremaillera erako zerrendak» deitu ohi direnak.

<sup>14</sup>Letra Iodia nirea da.

2005etik aurrera, EGBLa aplikatuko da Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-zerrendak osatzeko, baina haren aplikazioa modu murriztaileago batez gertatuko da, zeren eta Konstituzio Auzitegiak, EGBLaren konstituzio-kontrakotasunari buruzko 2009ko bere [epaian](#), konstituzio-kontrakotzat deklaratu baitzen zerrendetan % 100 emakumeak egotea, ez ordea, % 50 emakumeak eta gizonak 6 pertsonako tartetan, zeren eta arau hori ez baitzegoen «presentzia orekatuaren» printzipioaren aurka —sekula ez % 60 baino gehiago eta % 40 baino gutxiago bi sexuetatik—, EGBELan jaso bezala eta Auzitegiak berak konstituziokotzat jo bezala [Konstituzio Auzitegiaren 12/2008 Epaian, 2008ko urtarrilaren 29koan](#).

Epai horrekin, EGBLak bere identitate zeinuetako bat galtzen du, emakumeak baizik ez dituzten hautagai-zerrendak egotekoa; izan ere hori berria zen Europako legediaren panoraman, eta emakumeen parte-hartze politikoa errazten zuen hautagai-zerrenda feministean; esate baterako, [Plazandrek](#). Aukera hori eztabaidagarria da ikuspuntu dogmatikotik, zeren eta posizio esentzialista baten gisara har baitaiteke (Barrère, 2012), baina esenzialismoei eta nominalismoei buruzko (Amorós, 1985) eta identitate-politikei buruzko (Greppi, 2006) gai konplexu horren gaineko eztabaidea beste aukera egokiago baterako utzi beharko dugu.

Eusko Legebiltzarrerako 2009ko hauteskundeetarako, araua soilik aplikatu ahal izan bere adierazpide murriztaileenean. Bizitza laburra izan zuen, beraz, legegintzaren egoitzan «berdintasun eragingarria» eta, horrenbestez, parekotasuna eta emakumeen ordezkaritza politikoa, beste modu batera ulertzeko aukera ematen zuen arau horrek.

### Batzar Nagusiak

Batzar nagusiek eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurrealdeen eskubide

1977

**Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar nagusiak eta dagozkien  
foru aldundiak berrezarri ziren**

historikoetan dute beren jatorria. Gaur egungo batzar nagusiak 1977an berrezarri ziren<sup>15</sup>.

1979

**Se aprueban los Reales Decretos números 122/1979, 123/1979  
y 124/1979, de 26 de enero**

1979ko urtarrilean<sup>16</sup> haien antolamendua eta funtzionamendua aratu zuen, eta haien kideak nola hautatu eta zein eskumen izango zituzten ezarri zen. Urte bereko abenduan [Gernikako Estatutua](#) onetsi zen; hori dela eta, une horretatik aurrera foru organo horiek lurrealdez gaineko beste batzuekin batera egongo ziren: Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza.

<sup>15</sup> Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak berrezartzeko martxoaren 4ko 18/1977 Errege Lege Dekretuaren bitartez, haien itun ekonomikoaren araubidea 1937an indargabetu zuen legedia indarrik gabe utzi ondoren, zeren eta erregimen frankistak «probintzia traidoretzat» jo baitzituen. Arabakoekin, ordea, ez zen berdin gertatu.

<sup>16</sup>Konstituzioa onetsi ondoren, urtarrilaren 26ko 122/1979, 123/1979 y 124/1979 errege dekretuen bitartez.

1987

**Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea**

Gernikako Estatutuaren 10.3 artikuluak autonomia erkidegoari eskumen osoa ematen dio batzar nagusietarako hauteskunde-legedia dela eta. Eusko Legebiltzarra, haien hauteskunde-sistema arautzeko organo arduradun gisa, 1987an garatu zuen hori.

1987an, Eusko Legebiltzarrak martxoaren 27ko 1/1987 Legea onetsi zuen, lurralde historikoetako batzar nagusietarako hauteskundeei buruzkoa.

Batzar nagusietarako hauteskundeek beren hauteskunde-araudi propioa dute<sup>17</sup>.

2005

**4/2005 Legea, otsailaren 18ko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa**

Lege horren azken xedapenetatik bosgarrenak aurrekoak aldatzen du; honako hau dio:

Bosgarrena.- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea aldatzea.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko 1/1987 Legean, 6 bis artikulua honela erredaktatuta geratuko da:

1. Alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesleen elkarteen aurkezten dituzten hautagai-zerrendetan, % 50, gutxienez, emakumeak izango dira<sup>18</sup>. Proportzio hori hautagai-zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakoitzean mantenduko da. Eskualdeko hauteskunde-batzorde eskudunek, hain zuzen, artikulu honetan hautagaien nahiz ordezkoen kasuan ezartzen dena betetzen duten hautagai-zerrendak baino ez dituzte onartuko.

EGBLa aplikatu zen batzar nagusietarako lehenengo hauteskundeak 2007ko maiatzaren 27rako deitu zirenak izan ziren. Une horretan argitu beharreko gai bat izan zen<sup>19</sup>. 2005eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan gertatu zenaz bestera, oraingoan, Konstituzio Auzitegia oraindik ere EGBLa Konstituzioaren araberakoa izateari buruzko iritzia eman gabe bazegoen ere, EGBELa jada onetsita zegoen; hau da, hauteskunde-berdintasuna dela-eta bi arau zeuden. EGBELa, maila autonomikoko, 2005ean onetsi zen, baina haren aurkako errekurtoa aurkeztu zen Konstituzio Auzitegian; EGBELa<sup>20</sup>, berriz, estatu eremukoa zen, eta 2007an onetsi zen. Bi lege horiek formula bera partekatzen dute zerrenden

<sup>17</sup>Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak berrezartzeko martxoaren 4ko 18/1977 Errege Lege Dekretuaren bitartez, haien itun ekonomikoaren araubidea 1937an indargabetu zuen legedia indarrik gabe utzi ondoren, zeren eta erregimen frankistak «probintzia traidoretzat» jo baitzituen. Arabakoekin, ordea, ez zen berdin gertatu.

<sup>18</sup>Letra etzana nirea da.

<sup>19</sup>Ikuus [Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 5/2007 Instrukzioa](#), apirilaren 12ko, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 44. bis eta 187.2 artikuluen aplikazioari buruzkoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragringarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren idazkeraren arabera (BOE, 94. zk., 2007ko apirilaren 18ko).

<sup>20</sup>3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22ko, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako. 2007-03-23ko BOEn argitaratua, 71. zk.

osaeran «parekotasunaren printzipioa» adierazteko. EGBELak «presentzia orekatuaren printzipioa» izenaz ezagutzen zena adierazten zuen bitartean —»sekula ez % 60 baino gehiago edo % 40 baino gutxiago sexu bakoitzetik»—, EGBLak «parekotasun-printzipio mugatua» deitzen duguna adierazten du, zeren eta osaera bat ezartzen baitu zerrendetan, «gutxienez ere» emakumeen % 50ekoa, 6 pertsonako tarte bakoitzean».

## Udal-hauteskundeak

EAeko udal hauteskundeetan, Eusko Legebiltzarrerako eta batzar nagusietarako hauteskundeetan ez bezala, ez da aplikatzen EGBLak araututako autonomia erkidegoko araudia. Udal hauteskundeetan, aplikatzeko den araudia estatuko da, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EGBELak aldatuta dagoena. Udal hauteskundeetan aurkeztuko diren zerrenden osaerari dagokionez EGBLak emandako agindua 44 bis<sup>21</sup> artikuluuan jasotakoa da. Oro har, zerrendetan ez da «ez dela sekula egongo sexu bakoitzetik ez % 40 baino gutxiago, ez eta % 60 baino gehiago ere», 5 pertsonako tarte bakoitzean».

Hauteskunde bakoitzaren analisia egiterakoan, laburki aipatuko dugu alderdi politikoek gai hori dela-eta izan duten jarrera, arau horiek eztabaidatzeko garaian eta gaur den egunean.

## 2. 2. Alderdi politikoak eta hauteskundeetako parekotasunaren arloko legegintza-proposamenen aurreko Europako araudia nola hartu den

Parekotasunari buruz legeak egiteko beharrak faktore anitzi zor zaio; horien artean dago alderdi politikoen jokaera historikoa<sup>22</sup> eta eskaera feministari eman dizkioten erantzun apalak, hain zuzen ere herritar guztiengan eragina duten erabakiak hartzen diren organoetan emakumeek presente egoteari buruzko eskaerari. Parekotasunari buruzko legedia beharrezkoa den erantzun bat da, baina ez nahikoa, ordezkartzako demokrazien hautemangarritasunerako, zuzenagoak izan daitezen, hau da, demokrazia paritarioak.

Ondoren aipatzen ditugu alderdien barruan «kuotak» ezartzeko prozesuak, zerrenden osaeran emakumeen eta gizonen presentziari buruzko araudia onetsi aurrekoak eta onetsi eta gerokoak. Prozesu horiek, bai eta gertatu ziren eztabaidak ere, emakumeek eta gizonek zerrendetan eduki beharreko presentziari buruzko egungo araugintza-esparruaren aurrekari bat dira. Neurri horiek alderdien erabaki-organoen osaeran daukaten eragingarritasunari dagokionez, oso ere erlatiboa da, zeren eta ez-betetze kasuetarako zehapeneririk ez baitago.

## PSOE

1982an, Kataluniako Alderdi Sozialistako emakumeek lortu zuten beren alderdian kuota-konpromiso batzuk ezartzea. % 12rekin hasi ziren; gero % 15, eta, azkenik, % 20.

<sup>21</sup>Artikulu horren arautzea txosten honen 1985. urteari buruzko apartatuan dago, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoari buruzkoan.

<sup>22</sup>Soilik jasotzen dira gaur egun Eusko Legebiltzarrean ordezkartzita dutenak.

1988an, XXXI. Kongresu Federalaren ondoren, kuota % 25era igo zen, eta Estatutu Federaletan sartu zen.

1997an XXXIV. Kongresu Federalaren ondoren, «*sexu bakoitzetik % 40 baino gutxiago ez eta % 60 baino gehiago ere ez*» *presentzia orekatuaren printzipioa* sartu zen, eta Estatutu Federaletan jaso zen.

Aztertu den alditik (2001-2016) kanpokoa bada ere, aipatu beharra dago 2017ko Kongresu Federalean PSOEren Estatutuetako 5. artikulan aldaketa bat sartu zela. Horren arabera, alderdiko hainbat organoentzako hautagai-zerrendak paritarioak izango dira eta “gizonak eta emakumeak kopuru berean eta txandaka egongo dira zerrendetan.” Aldaketa honen abiapuntua 2014ko uztaileko Ohiz kanpoko Kongresua izan zen, berton, besteak beste, proposamen bat onartu baitzen arlo eta erakunde guzietan gizoneen eta emakumeen ordezkaritza orekatua lortze aldera.

## IU

1990ean, Valentziako Erkidegoko III. Batzarrean, honako betebehar hau jaso zen: «*sexu bakarrak ere ez gainditzea delegatuen zerrendetako hautagaien % 50*».

1992an, Batzar Federalean eskatu zen Valentziako neurria sartzeko edo emakumeen % 35eko kuota, gutxienez. Bi neurri horietatik bakarra ere ez zen sartu Estatutu Federaletan.

1995ean, estatutuen 14. artikuluak «*presentzia orekatuaren printzipioa*» ezarri zuen, tarteen arabera eta lehentasun-hurrenkerari jarraituz (ahal den guzietan).

## PP

Ez araudia onetsi aurretik, ez geroztik, ez dago [PPren estatutuetan](#) inongo jarraibiderik alderdiko gobernu organoentzako osatzeko moduari buruz, emakumeen eta gizoneen portzentajeari dagokionez.

## PODEMOS

Alderdiaaren [Estatutuetan](#) berariaz jasota dago alderdiko organoak parekideak izango direla. 3.3 artikulan honako hau esaten du: «Podemosek sustatzen du generoa dela sufragio pasiborako eskubideaz baliatzeri aplikatzeko zaion zuzenketa-faktore bakarra». Podemosen kide anitzeko organoak halako moduz osatuko dira non haietan dagoen emakumeen ordezkaritza kideen erdiarena izango baita gutxienez ere. Berdintasunerako eskubidea baliatu ahal izan dadin bermatzeko, bilatuko da bi generoen parte-hartze aktiboa muga dezaketen oztopoak ken daitezela.».

## EAJ-PNV

EGBLa onetsi aurrekoak diren [2004ko Estatutuetan](#), X. tituluan barneko karguen eta kargu publikoetarako hautagaien hauteskundeei buruz hitz egiten da. **109.2 artikulan** honako hau esaten da: «Barneko karguetarako eta kargu publikoetarako hautagaiak hautatzerakoan, kontuan hartuko dira emakumeek barne-erantzukizuneko eta erantzukizun instituzionaleko postuetan eduki beharreko parte-hartzearen gutxienekoak, zeinak aurrez adostu baitira kasuan-kasuan eskudun diren batzarretan, unean-unean

indarrean den Generoen Orekarako Planaren irizpideen arabera. **Bigarren xedapen gehigarrian**, beriz, honako hau dio: «EAJ-PNVk bere gain hartzen du emakumeek eta gizonek EAJ-PNVko barne erantzukizuneko eta erantzukizun instituzionaleko postuetan presentzia orekatua izateko konpromisoa. Horretarako, Euzkadi Buru Batzarrak Batzar Nazionalari, gehienez ere urtebeteko epean, Generoen Orekarako Plana aurkeztuko dio. Plan hori Batzar Nazionalak onetsi beharko du, eta kasuan-kasuan eskudun diren batzarrek beren eremuko karguetan eskatzekoa den emakumeen presentzia modu malgu eta progresiboa zenbatesteko irizpide orokorrak ezarriko ditu. Plan hori betetzeko, Batzar Nazionalak lau urtez behin, Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, emakumeen gutxieneko ehunekoak onetsi eta berrikusiko ditu barneko kargu nazionaletarako, bai eta eremu nazionaleko eta nazioz gaindiko eremuko hautagai-zerrendetarako eta kargu instituzionaletarako ere».

[EAJ-PNVren 2016ko Estatutuetan](#) 2005eko ekainaren 6ko Batzar Nazional Bereziaren erabakia ageri da; hartan, izan ere, 2004ko Estatutu Nazionalen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, honako hau aipatzen du EAJ-PNVren emakumeen eta gizonen orekarako planari buruz: «1.- Emakumeen eta gizonen orekarako plana honako hotan oinarrituko da: emakumeen eta gizonen parekotasuna ezartzea barneko karguetarako eta kargu instituzionaletarako egiten diren proposamenetan. 2.- Planteatzen da BETETZEKO EZINTASUNARENGATIKO salbuespen bat ezartzea, zeina modu frogagarrian ziurtatu beharko baita; hura kontrolatzea, beriz, Estatutuen defentsa esleituta daukaten organoentzako geratuko da. 3.- Emakumeen eta gizonen ordezkaritza paritarioa izango da EAJ-PNVk etorriko diren barne-karguetarako edo kargu instituzionaletarako hauteskunde-prozesuetarako hartuko duen irizpidea, eta formalki sartuko da erakundearen antolamendua berrikusteko eta Estatutuak eta Erregelamenduak aldatzeko proiektuan, zeinari hurrengo Batzar Nagusian helduko baitio alderdiak.».

## EA

[2009ko Estatutuetan](#) honako hau esaten da 17. c) artikuluan: «Hautatzea eta hautatua izatea alderdiaren barneko karguetarako. Ahaleginak egingo dira emakumeen eta gizonen presentzian oreka lortzeko, bai eta adin desberdinako alderdikideen presentzian ere. Ez da bazterkeriarik egingo sexua, arraza, adina edo erlijioa direla eta. Eskubide horretaz baliatzeko, ezinbestekoa izango da kotizazioan egunean egotea». Ez da ezartzen emakumeen inongo ehunekorik, eskatzekoa denik.

## SORTU

Sorturen [2011ko Estatutuetan](#), ez da inongo neurirrik jasotzen alderdiaren organoentzako geratzen dutenik. Adierazpen batzuk egon badaude bilatzen dutenak ez dadila sexua dela-eta inongo bazterkeriarik onartu, besteak beste, eta alderdikide guztien aukera-berdintasuna bermatuz jardungo dela.

## Ondorioa

Esan dezakegu nolabaiteko desoreka bat ikusten dugula alderdiek gizartean, oro har, deseatzeko modukotzat jotzen dutenean edo beren erakundeen egituretan bilatu behar denean. Eremu publikoan berdintasunaren printzipioa zehazten duten arauen alde egiten badute ere —hartara, «berdintasun eragingarria» lortzeko beharraz hitz egiten dugu—, ordezkaritza politikoaren eremuan ez dugu apustu bera aurkitzen erakundeen eta egituren barrenean.

Alderdi guztien jokaera ez da bera, eta horietako batzuetan aurrerapen eta konpromiso nabarmenak gertatzen dira. Batzuek —PSE-EE (PSOE), EAJ-PNV, eta PODEMOS-AHAL DUGU— beren estatutuetan nahitaez bete beharreko neurriak jasotzen dituzte. Lehenengo bien kasuan, EGBELaren formularekin —sexu bakoitzetik % 60-40—, eta hirugarrenaren kasuan, berriz, EGBLaren formularekin, Konstituzio Auzitegiak aldatu gabekoa —»emakumeen % 50, gutxienez». Beste batzuek, nola baitira Ezker Batua eta EA, ehuneko horiek ahal den guztietan «bilatzen saiatzeaz» hitz egiten dute. SORTUK eta PPk ez dute inongo neurri zehatzik aipatzen: lehenengoak esaten du sexua dela-eta ez dela inongo bazterketarik onartuko, eta guztiei aukera berak ematen ahaleginduko dela; PPren kasuan, berriz, gaiari buruzko inongo aipamenik ez dago.

## IV. EUSKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

### 1. Sarrera

Atal honetan, emakumeek eta gizonek EAEn duten parte-hartze soziopolitikoa aztertzen da, eta ebaluatzen da zein izan den EGBLak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan izan duen eragina, onetsi zenetik hasi eta gaur arte, hiru eremu desberdinat. Horietako bitan, zerrendetan eta gobernu organoetan emakumeek duten presentziari buruzkoetan zuzenean, eta hirugarren batean, ahaldunen, artekarien eta administratzaleen osaeretan zeharka, zeren eta EGBLak ez baitu horrelakorik arautzen. Halaber, analisi labur bat egingo dugu emakume hautetsiek, beren bizitza politikoan, ordezkaritza-postuetan irauten duten denborari buruz.

### 2. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

Analisia honako ardatz hauek ditu: 1) Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-deialditarako erkidegoan dauden hiru barrutiak [2001eko maiatzaren 13an](#), [2005eko apirilaren 17an](#), [2009ko martxoaren 1ean](#), [2012ko urriaren 21ean](#) eta [2016ko irailaren 25ean](#); 2) ahaldunen, administratzaleen eta artekarien osaera<sup>23</sup> hauteskunde guztietako alderditan (salbu eta ahaldunen kasuan,<sup>24</sup> soilik 2016ko irailaren 25eko hauteskundeak jaso baitira), eta 3) gobernu organoen osaera analisiaren xede diren 5 legegintzaldietan.

Zerrenden osaeran [EGBLak](#) daukan eragina, eta horretatik heldu diren ondorioak lehenengo aldiz 2005eko apirilaren 17ko hauteskundeetan ikusi ziren. Horixe izan zen une honetara arte egindako deialdietatik EGBLa jatorrizko esanahiaren arabera aplikatu zen aldi bakarra<sup>25</sup>. EGBLak eta EGBELak ez zuten formula bera partekatzen zerrenden osaeran «parekotasunaren printzipioa» adierazteko. EGBELak «proportzionaltasun-printzipioaz» ezagutzen dena adierazten du, zeinak honako hau baitakar berekin: »sekula ez % 60 baino gehiago edo % 40 baino gutxiago sexu bakoitzetik» EGBLak bi formula desberdin onartzentzituen zerrendak osatzeari begira, eta horrek aukera ematen zuen berdintasuna «berdintasun eragingarriaren» ideiaren arabera ulertzeko. Alde batetik, «parekotasun-printzipio mugatua» dei genezakeena ezartzen zuen, zerrendetarako sexu bakoitzeko % 50 finkatzen baitzuen 6 pertsonako tartetan, uko eginez, aldi berean «kremailera erako zerrendak» deitu ohi den lehentasun-hurrenkera ezartzeari; eta besteak, berriz, aukera ematen zuen «ekintza positibo» bat aplikatzeko emakumearen alde, eta % 100 emakumez osatutako hautagai-zerrendak aurkezteko. EGBLaren existentzia gorabeheratsuak berekin ekarri du lau urteko epe laburrean, 2005eko otsailetik 2009ko martxora, Eusko Legebiltzarrerako bi hauteskunde-deialdi egitea, eta horietako bakoitzean EGBLa aplikatu da arau-eduki desberdinarekin, zeren eta Konstituzio Auzitegiak 2009ko urtarrilean eman baitzuen haren konstituzio-kontrakotasunari buruzko iritzia.

<sup>23</sup>Hauteskunde Administrazioak eta Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak emandako datuak.

<sup>24</sup>Hauteskunde Administrazioak emandako datu numerikoak.

<sup>25</sup>6 pertsonako tarte bakoitzeko sexu bakoitzetik % 50eko zerrendak osatzearena argiro desitxuratuta geratu da Alderdi Popularrak planteatutako konstituzio-kontrakotasuneko arazo baten aurrean Konstituzio Auzitegiaren 2009ko urtarrilaren 19ko STC 13/2009 epaiaren ondoren, zeren eta eragozten baitu soilik emakumeenak diren hautagai-zerrendak aurkeztea; izan ere, halakoak aurkeztu ahal izatea EGBLaren berritasun bat zen, hori ekintza positiboko neurritzat hartuta. Eztabaida soilik teorikoa izan da, zeren eta 2005eko apirilaren 17ko hauteskundeetan ez baitzen aurkezta hautagai-zerrenda bakar bat ere soilik emakumez osaturik, eta 2009ko maiatzaren 1ean jada konstituzio-kontrakotzat jota baitzeuden.

Analisiak kontuan hartzen ditu Eusko Legebiltzarrera aurkeztu diren alderdi guztiak,<sup>26</sup> baina argitu beharrekoa den modu berezi samar batez. Alderiak legez kanpo uzteak eragindako sigla-dantzaren, hauteskunde-koalizio konplexuen eta Legebiltzarrean presentzia nabarmena izan duten beste alderdi batzuk agertzearen eta desagertzearen ondorioz, emaitzen ondorioak bi kasuren arabera jaso ditu azterketa honek. Batetik, bakartzat hartuko dira, batetik, EAJ-PNV eta EAJ-PNV/EA eta, bestetik, EH, PCTV-EHAK, EH BILDU. Lehenengo kasuan, EAJ-PNV aipatuko dugu; bigarrenean, berriz, EH BILDU.

EGBLa eta EGBELa onetsi aurreko azken hauteskundeko eta onetsi ondoko hauteskunde guztiak datuak kontuan hartzeak aukera ematen du lan honen ekarpen berritzaleeneko bat egiteko: egiaztatzea ea EGBLaren ezarpena lagungarri gertatzen den emakumeek erabaki-postuetan daukaten presentziak joera egonkorra, denboran irauten duena, bihur dadin, eta bilaka dadin egiturazko izaera duen errealtitatea, eta ez une jakin bateko errealtitatea, berdintasun eragingarria lortzeaz beste interes batzuen araberakoa. Hainbat azterlanek erakutsi diguten bezala,<sup>27</sup> araua hitzez hitz bete daiteke haren espiritua bete gabe. EGBLaren kasuan, «berdintasun eragingarria» lortzea da espiritu hori.

## 2. 1. Hauteskunde-zerrendak

### Emakume hautagaiak<sup>28</sup>

#### Araba / Álava

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Emakume hautagaien kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, eta 71 izatetik 135 izatera pasa da. Zerrendetan tokien % 41 egiten zuten 2001ean eta % 54, berriz, 2005ean. Joera horri ez zaio eusten 2009ean, eta % 50era jaisten da. 2012an, berriz, errekuperatu egiten da, eta % 53ra iritsi. Azkenik, 2016an, berriz ere jaisten da % 50era. EGBLak % 50eko presentzia arautzen duenez eta 2009tik 2016ra izan diren gorabeherak txikiak direnez, positiboki baloratu daiteke EGBLaren aplikazioa. Ezin dugu esan eragin nabarmen berezitua dagoenik lurralde horretan beste batzuekiko eta erkidegoaren osotasunarekiko, zeren eta Arabako emakumeen portzentajea handiagoa izan baita 2005ean, % 54rekin, txikiagoa 2009an, ehuneko 50rekin, handiagoa 2012an, ehuneko 53rekin eta txikiagoa 2016an, % 50ekin.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, eta 47 izatetik 67 izatera pasa dira; % 38 egiten zuten 2001ean eta % 54, berriz, 2005ean. Joera horri ez zaio eusten 2009ean, eta % 49ra jaisten da. 2012an, berriz, errekuperatu egiten da eta % 50era iritsi. Azkenik, 2016an, berriz ere igo da % 51ra. 2009tik 2016ra izan diren gora-behera arinak direla-eta, balorazio positibo bat egin daiteke arauaren aplikazioari buruz. *Ordezkaritza lortzen duten alderdiek emakumeen kopuru eta ehuneko txikiagoa dute ordezkaritza lortzen ez duten alderdiek baino eta alderdien osotasunak baino, deialdi*

<sup>26</sup>Ordezkaritza lortu duten alderdiak: PSE-EE (PSOE), EAJ-PNV, EA, PP, EH, IU-EB/B, ARALAR, PCTV-EHAK, EH BILDUEH BILDU, UPyD, PODEMOS/AHAL DUGU-IU. Ordezkaririk lortu ez duten alderdiak: C'S, PACMA/ATTKA, GANEMOS, RECORTES CERO-GV, EB-AZ, PARTIDO HUMANISTA, EK-PCPE, ONGI ETORRI, PFYV, VOX, LIBERTAD NAVARRA, UPYD, EB-B, EQUO, HARTOS.ORG, PUM+J, UCE, IU-VERDES-EZKER ANITZA, POSI, ONGI ETORRI, PYC, TRABAJADORES DIALOGO, EA, BERDEAK-LV, PARTIDO CARLISTA, ASKATASUNA, P. KARMA DEMOCRATICO, BERDEAK-PACMA, PARTIDO CARLISTA, UNIDAD ALAVESA.

<sup>27</sup>Eusko Legebiltzarrak emandako datuak.

<sup>28</sup>Eusko Legebiltzarrean bete beharreko postuak 75 dira, 25 barruti bakoitzeko.

guztietan. EGBLak nazioartek terminoetan duen eragina ez da homogeneoa, eta txikiagoa da Arabako kasuan. 2005ean eragina Gipuzkoako eta Bizkaiko eta EAE osoko bera da, % 54rekin, handiagoa da 2012an, % 53rekin, eta txikiagoa 2009an eta 2016an, nahiz eta bietan % 50era iristen den.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, 24 izatetik 68 izatera pasa baitira; % 48 egiten dute 2001ean eta % 54, berriz, 2005ean. Aurreko kasuetan bezala, 2009an ez zaio joera horri eusten, eta % 51raino jaisten da. 2012an, % 54koa izatera iristen da eta 2016an, berriz, % 50eko da. 2001ean % 48tik abiatu zen; 2005ean, berriz, nabarmen handitu zen eta ondorengo hauteskundeetan egonkortasuna lortu zen; hori dela eta, kontuan hartuta EGBLak % 50eko presentzia arautzen duela, ondoriozta dezakegu EGBLaren aplikazioa dela-eta balorazio nahiko positiboa egin daitekeela. *Alderdi horiek emakumeen kopuru eta ehuneko handiagoak dituzte ordezkaritza lortu duten alderdiek eta alderdien osotasunak baino*, deialdi guztietan. Lurraldearen araberako eragin erlatiboari dagokionez, Araban handiagoa izan da beste bietan baino eta erkidegoaren osotasunean baino, salbu eta 2009ko hauteskundeetan, orduan berdina izan baitzen. Handiagoa da 2005ean eta 2012an, % 54rekin, eta 2016an, % 50ekin; eta berdina 2009an, % 51rekin.

## Bizkaia

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Emakume hautagaien kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, eta 106 izatetik 158 izatera pasa da. Zerrendetan tokien % 42 egiten zuten 2001ean eta % 53, berriz, 2005ean. Joera horri ez zaio eutsi 2009an, ez eta 2012an ere, eta % 51ra eta % 49ra jaitsi da hurrenez hurren. 2016an, % 51ra arte errekuperatu da. Deialdi bakoitzeko gorabeherak 2005etik 2016ra 2 puntuoak direnez, balorazio positibo bat egin beharra dago EGBLaren aplikazioari buruz. Eragina lurraldez lurralte desberdina da 2005eko % 53ko tasak eragin handiagoa du Gipuzkoan baino eta txikiagoa Araban baino, eta Erkidegokoaren berdina da. Alderantziz, 2009ko % 51ko portzentajea handiagoa da Araban baino, eta Gipuzkoakoaren eta Erkidegokoaren berdina da. 2012ko % 49ko portzentajeak eragin okerragoa du barruti guztietan eta okerragoa, halaber, Erkidegoan baino. 2016ko % 51ko portzentajeak oreka dakar. Arabakoa gainditzen du eta Gipuzkoakoaren eta Erkidegokoaren berdina da.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, 54 izatetik 67 izatera pasa baita (2001ean % 43 izatetik 2005ean % 54 izatera). Joera horri ez zaio eusten 2009an, zeroen eta % 50era jaisten da, eta 2012an okerrera egiten du, % 49rekin. 2016an, ordea, nabarmen egiten du hobera, % 53rekin. 2009tik 2016ra izan diren gorabeherak oso txikiak direnez, balorazio positibo bat egiten dugu EGBLaren aplikazioa dela eta. *Ordezkaritza lortzen duten alderdiek emakumeen kopuru eta ehuneko handiagoa dute*, oro har, ordezkaritza lortzen ez duten alderdiek baino eta alderdien osotasunak baino, deialdi gehienetan. 2005ean EGBLaren eragina % 54koa izan zen, eta berdina izan zen hiru barrutietan eta erkidegoaren osotasunean. Ez da gauza bera gertatu 2009an, 2012an eta 2016an. 2009an eta 2016an emaitza bera lortu zen Gipuzkoan eta erkidegoaren osotasunean, baina Araban baino hobea; 2012an, berriz, % 49rekin emaitza okerragoa da Arabakoa eta Gipuzkoakoa baino eta Erkidegokoa baino. Eraginak gorabehera handiak ditu kasuan kasuko hauteskundeen arabera, baina nabarmentzekoa da 2005eko bat-etortzea.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, eta 52 izatetik 91 izatera pasa da. Zerrendetan tokien % 42 egiten zuten 2001ean eta % 52, berriz, 2005ean. Ehunekoak behera egiten du ondorengo hauteskunde guztieta: % 51 da 2009an; % 50 2012an, eta % 49 2016an. Ehunekoak nabarmen gora egiten duen azken kasua 2005eko da, eta deigarri gertatzen da une horretatik aurrera joera beheranzkoa dela; horrek bereziki garrantzitsu egiten du EGBLak daukan eragina, % 50eko presentzia arautzean beheranzko joerak muga bat izan dezan ahalbidetzen baitu. *Alderdi horiek emakumeen kopuru eta ehuneko txikiagoak dituzte ordezkaritza lortu duten alderdiek eta alderdien osotasunak baino*, deialdi gehienetan. Eragina desberdina da: 2005eko % 52ko portzentajea txikiagoa da Araban ageri dena baino, baina handiagoa da Gipuzkoakoa baino eta Erkidegokoaren berdina da. 2009an, % 51 Arabakoaren eta Erkidegokoaren berdina da, baina Gipuzkoakoa baino txikiagoa da. 2012ko % 50ekoa da hiru barrutietako eta Erkidegoko eragin txikiena; eta 2016ko % 49koak beheranzko jokaera argia erakusten du eta Gipuzkoan eta Erkidegoan gertatzen denaren parekoa da.

## Gipuzkoa

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Emakumeen kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, eta 93 izatetik 130 izatera pasa da. Zerrendetan tokien % 47 egiten zuten 2001ean eta % 52, berriz, 2005ean. 2009tik 2016ra gertatutako gorabeherak puntu batekoak dira: % 51 2009an, % 50 2012an eta % 51 2016an. 2009tik 2016ra izan diren gorabeherak puntu batekoak direnez, balorazio positibo bat egiten dugu EGBLaren aplikazioa dela eta. Lurraldeko eragin erlatiboa dagokionez, 2005eko % 52ko portzentajea da eragin txikiena, zeina beste bi barrutiek eta Erkidegoak gainditzen baitute. 2009ko eta 2016ko % 51 dela eta, eragina handiagoa da Arabakoa baino eta Bizkaikoaren eta Erkidegokoaren berdina da; 2012ko % 50ak, berriz, Araban eta Erkidegoan ageri dena baino eragin txikiagoa da, eta Bizkaikoan ageri dena baino handiagoa. Gorabeherak 2 eta 3 puntu bitartekoak dira. Bestalde, EGBLak erregulartasun handienaz eragiten duen lurraldea da; hau da, hauteskunde batzuetatik besteetara dauden gorabehera txikienak dituena da.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak 56tik 81era egin du gora 2001etik 2005era, eta emakumeen presentzia 2001ean % 45ekoa izatetik 2005ean % 54koa izatera pasa da. 2009an, emakume hautagaien ehunekoak 4 puntu behera egin du; 2012an, berriz, beste puntu bat behera, % 49koa izateraino. 2016an, errekuperatu egiten da, % 53ra iritsita. Ordezkaritza lortzen duten alderdian eta ordezkaritzarik lortzen ez dutenetan emakumeek egiten duten ehunekoari eta alderdi guztieta ageri den ehunekoari erreparatuta, ikusten da Bizkaikoaren antzekoa dela eta Arabakoaz bestelakoa dela. Oraingoan *ordezkaritza lortzen duten alderdiek emakumeen kopuru eta ehuneko handiagoa aurkezten dute ordezkaritzarik lortzen ez dutenek baino*. Datu horiekin, esan daiteke EGBLak eragin positiboa izan duela lehenengo unean, eta ondorengo hauteskundeetan finkatzeko joera bat izan duela.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak gora egin du 2001etik 2005era, baina bi hauteskundeetan % 49 dira. 2009an, 3 puntu egin zuen gora, % 52rekin, eta 2012an, berriz % 51raino behera; azkenik, 2016ko % 49koarekin hasierako puntura itzuli da. Joerak ez du lortu hasierako % 49a igotzea; hori dela eta, beheranzko joera bat aipatu beharra dago EGBLaren eraginari dagokionez. *Alderdi horiek emakumeen kopuru eta ehuneko txikiagoak dituzte ordezkaritza lortu duten alderdiek eta alderdien osotasunak baino*, 2001etik 2016ra bitarteko deialdi gehienetan. Lurraldeari dagokion eraginak honako datu hauek

erakusten dizkigu: 2005eko % 49ko portzentajea da eragin guztieta txikieta termino absolutuetan, barrutieei zein Erkidegoari erreparatuta. 2009ko % 52a, ordea, kontrako muturra da, hortxe gertatzen baita eragin handiena, barrutieei zein Erkidegoari erreparatuta. 2012ko % 51 eta 2016ko 49a eragin desberdina erakusten dute, batzuetan beste barruti batzuetakoak eta Erkidegokoak baino handiagoak eta beste batzuetan txikiagoak.

## Euskal Autonomia Erkidegoa

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Emakumeen kopuruak 10 puntu egin du gora 2001etik 2005era, eta 270 izatetik 423 izatera pasa dira; 2001ean % 43ko presentzia izan zuten eta 2005ean, berriz, % 53koa. 2009ko, 2012ko eta 2016ko hauteskundeetan, emakumeak % 51 izan dira. EGBLak % 50eko presentzia arautzen duenez eta 2009tik gaur arte presentzia egonkorra, % 51 ingurukoa, izan denez, ondorio positiboa atera dezakegu EGBLaren aplikazioari buruz.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak 157tik 215era egin du gora 2001etik 2005era, eta emakumeen presentzia 2001ean % 42koa izatetik 2005ean % 54koa izatera pasa da. 2009an, emakume hautagaien ehunekoak 4 puntu behera egin du, % 49ra, eta 2012an beste puntu bat gehiago. 2016an, berriz, % 52ra arte errekuperatu da. Ordezkaritza duten alderdietan dauden emakumeen portzentajeari dagokionez, jokaera gorabeheratsua da: 2005ean eta 2016an % 54 eta % 52 izan ziren, hurrenez hurren, eta *handiagoa* da ordezkaritzarik ez duten alderdietakoa baino. 2009an eta 2012an, aldiz, % 50ekin eta 49rekin, hurrenez hurren, portzentajea *txikiagoa* da. Datu horiek, esan dezakegu EGBLak, lehenengo une batean, eragin positiboa izan zuela; gero, beherakada bat izan zela, eta 2016an, azkenik, balizko errekuperazio bat. Beste hauteskunde batzuetara arte itxaron beharko dugu joera alde baterantz edo besterantz den ikusteko.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Emakume hautagaien kopuruak eta ehunekoak gora egin du 2001etik 2005era, eta 2001ean 113 izatetik, % 45, 2005ean 208 izatera, % 52, pasa zen. 2009an eta 2012an puntu bat egin du behera, eta % 51 ingurukoa da. Hortik % 49raino jaisten da 2016an. Hauteskunde guztiako eragina ez da homogeneoa, eta ordezkaritza duten alderdiekiko alderaketan, ez dago joera argirik. Eragin handiagoa izan du 2009an eta 2012an, eta txikiagoa, berriz, 2005ean eta 2016an.

## Ondorioak

- EGBLak emakumeek zerrendetan egoteko izan duen eragina zalantzarik gabekoa da, bereziki 2005eko hauteskundeetan. Hauteskunde horietan, hain zuzen ere, gertatu zen emakumeek ordezkaritza lortu zuten alderdietan betetzen zuten ehunekoak berdina izan zela hiru lurralteetan, eta orain arteko handiena: % 54. Kasu horretan, kopuruak eta ehunekoak gora egin zuen lurralte eta alderdi guztieta, ordezkaritza lortu zutenetan eta lortu ez zutenetan, salbu eta Gipuzkoako kasuan, non ordezkaritza lortu zuten alderdien ehunekoak eta lortu ez zutenena ez baitzen aldatu. Gainerako hauteskundeetan, hautagai-zerrenden ehunekoak gora egin du kasu guztieta 2001ekoarekin alderatuta.
- Deialdiaren eta lurraltearen arabera gorabeherak egon diren arren, oro har baiezta dezakegu EGBLaren eragina handiagoa izan dela ordezkaritza lortu duten alderdietan.

- Alderdi batzuek 2005ean «gutxienez ere emakumeen % 50eko» araua aplikatu dute (% 60ra edo % 70era arte): horixe da deialdi horretan ehuneko altuenak aurkitzea azaldu dezaketen egitateetako bat.
- EGBLaren eragin txikiena 2009an topatzen dugu. Kasu horretan, Konstituzio Auzitegiak iritzia emana zuen jada «gutxienez ere emakumeen % 50eko» arauaren konstituzio-kontrakotasunari buruz, EGBELean adierazitako «ez % 60 baino gehiago ez eta % 40 baino gutxiago bi sexuetako edozeinetatik» argudioa aplikatuta. EGBELak funtzionatu du EGBLrako muga bat balitz bezala.
- Balorazio positibo bat egin beharra dago EGBLak zerrenden osaeren izan duen eraginari buruz, ikuspuntu formaletik. Emakume hautetsien ehunekoa, ikusiko dugun bezala, ez dator bat hauta daitezkeen emakumeen kopuruarekin; horrenbestez, EGBLaren eragingarritasunari buruzko galdera eraman behar dugu emakumeek zerrendetan daukaten tokira; hau da, aztertzena ea EGBLak hautatu duen formulak bilatzen duen helburua, berdintasun eragingarriarena, betetzen duen.

## Zerrendaburu diren emakume hautagaiak

### Araba / Álava

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Zerrendaburu diren emakume hautetsien kopuruaren bilakaera gorabeheratsua da. 2001ean % 29 izatetik 2005ean % 40 izatera pasatu zen; baina 2009an, berriz, % 10eraino jaitsi zen. 2012an % 40ra iritsi zen eta 2016an, azkenik, % 42ra. Gorabehera horrek EGBLaren gabeziako bat erakuts dezake, gai horri buruzko isiltasun formala dela eta. Ez da iristen EGBLak bilatzen duen % 50eko presentziara.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Honetan ere gorabeheratsua da EGBLaren eragina. *Txikiagoa da ordezkaritza lortu duten alderdian ordezkaritzarik lortu ez duten alderdian baino.* 2001ean % 20 izatetik (EB-IUko bat) 2005ean % 40 izatera iritsi zen (bi, bata EH Bildurena eta bestea EB-IUrena). 2009an, ordea, % 0 izan zen, bat ere ez baitzen izan. 2012an, halako errekuperazio bat gertatu zen % 20rekin (EH Bilduko bat) eta % 60rekin 2016an (EH Bilduko bat, PSE-EEko (PSOE) bat eta AHAL DUGUko bat). Nabarmenzekoa da 2016ko % 60a.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Kasu honetan ere gorabeheratsua da, baina ehunekoa nabarmen handiagoa da ordezkaritza lortu duten alderdian baino. % 50etik abiatzen da 2001ean % 20ra jaisten da 2009an eta 2012an berriz ere iristen da % 50era. Baina 2016ko % 29ko presentziak goranzko joera hausten du alderdi guztietan.

### Bizkaia

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Zerrendaburu diren emakume hautagaien kopuruaren bilakaera positiboa da 2001etik 2012ra, eta 2016an berriz jaisten da, baina soilik 2012ari dagokionez. Igoera moderatua da 2001etik 2012ra, % 10ekin, 17rekin, 21ekin eta 35ekin, hurrenez hurren. 2016an, % 29koa da. Datu horiek oso urrun daude EGBLak bilatzen duen % 50etik.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Lehenengo lau deialdietan zerrendaburu diren emakume hautagaien kopuruari —emakume bat— eusten zaio, eta azkeneko deialdian biraino igotzen da. Portzentajeetan, termino erlatiboetan, gertatzen diren aldaketa guztiak ez dagozkie termino absolutuetan gertatutako aldaketei. 2001ean eta 2005ean % 20 da: bi kasuetan EHBILDU-ko hautagai bat. 2009an eta 2012an portzentajeak % 25eraino igotzen den arren, termino absolutuetan hautagai bakarra da, lehen bezalaxe. Lehenengo kasuan EAJ-PNVko bat eta bigarren kasuan, berriz, EH Bilduko bat. 2016an, portzentajea ez ezik —% 40ra iristen da— hautagaien kopurua ere aldatzen da: bi daude, bata EH Bildukoa eta bestea PSOE-EE/PSEkoa. 2005ean zerrendaburu diren emakumeen portzentajeari eusten zaio, eta 2009an eta 2012an % 25eraino igotzen da. 2016an, azkenik, hobera egiten du, % 40raino. EGBLaren eragin bat ikusten dugun arren, ezin dugu ondorioztatu guztiz asegarrria denik.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

2001eko % 0ko portzentajearekin eta ondorengo deialdietako % 14, 20, 38 eta 22koarekin, ordezkaritza duten alderdietan ageri den eragin bera ikusten da, zeren eta presentziak pixkanaka gora egiten baitu 2012ra arte, eta 2016an jaisten baita. Bilakaera bera da baina portzentaje desberdinak, oro har alderdi horietan ageri den presentzia txikiagoa baita ordezkaritza lortzen duten alderdietan ageri dena baino.

## **Gipuzkoa**

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

EGBLaren eragina deuseza da 2005ean: 8 puntu galdu ziren, 2001eko % 38tik 2005eko % 30era pasa baitzen. 2009an igoera nabarmena da, % 44ra iristen baita; gero berriz ere jaisten da 2012an, % 38rekin, eta 2016an errekuperatzen da, % 45ekin.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

2005eko aurrerapena agerikoa da: 2001ean % 20 izatetik (PPko bat), 2005ean % 50 izatera pasa zen (hiru, PPko, EH-Bildukoa eta ARALARrekoak), eta EGBLa eraginkortasun handienera iritsi zela esan dezakegu. 2009an, berriz, atzeratze bat gertatu zen % 50etik % 33ra iritsi baitzen (hirutik bira, PPko eta ARALARrekoak); horrek berresten digu ez zaiola joerari eusten. 2012an beheranzko joerak jarraitzen du % 25ekin, eta 2016an aldaketa bat gertatzen da, % 60rekin. Horrenbestez, portaera aldakorra du EGBLaren eraginak.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

EGBLaren eragin deuseza ikus daiteke hura aplikatz lortutako % 0koarekin, zeren eta 2001ean emakume zerrendaburuak % 67 baitziren. 2009an 2001eko ehunekoak berreskuratu ziren, baina 2012an berriz behera jarraitzen dugu % 44raino, eta 2016an, berriz, % 33raino. EGBLaren eragin txikiagoaz hitz egin dezakegun arren, oro har ikusten dena da emakumeen presentzia handiagoa dela ordezkaritza duten alderdietan ageri dena baino.

## **Euskal Autonomia Erkidegoa**

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Emakumeen kopuruak 14 puntu egiten du gora 2001etik 2016ra, eta % 24tik % 38ra iristen da. Bilakaera ez da jarraitua; izan ere, gorabehera batzuk ikusten dira, zeinek ez baitigute uzten EGBLaren eragin argi batez hitz egiten, joera positiboa izan arren. Ez da EGBLak bilatzen duen % 50era iristen.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

2001ean % 20 izatetik 2005ean % 38 izatera pasa zen. Hurrengo bi deialdietan, 2009an eta 2012an, % 20ra eta % 23ra jaitsi zen, hurrenez hurren. 2016an, % 53rekin, joera aldatu egiten da. Horrenbestez, eragin positiboa da, baino ordezkaritza lortzen ez duten alderdietan ageri dena baino txikiagoa.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Emakumeen kopuruak behera egiten du 2001etik 2005era, 2001ean % 30ekoa izatetik 2005ean % 19koa izatera pasa baitzen. 2009an eta 2016an 2001eko presentzia berreskuratu zen, eta 2012a da eragin handiena gertatzen den unea: % 44. Ordezkaritza lortzen duten alderdietan baino presentzia handiagoa ikusten da.

## Ondorioa

- Alderdiek barruti bakoitzean duten portaera irregularra eta askotarikoa da: gorabeheratsua Araban, positiboa Bizkaian eta deuseza Gipuzkoan. Hori dela eta, EGBLak erkidego osoan izan duen eragina positiboa da 2005ean, eta ondorengo hauteskundeetan bilakaera jarraitua izan du, baina sekula % 50era iritsi gabe. Ordezkaritza lotzen dutenei dagokienez, eragina positiboa da, baina % 50etik urrunago gelditzen dira: % 30etik beherakoa da batez bestekoa. Ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdietan, EGBLaren eragina ez da iristen, ezta ere, % 50era, baina portzentajea txikixeagoa da ordezkaritza lortzen duten alderdietan baino.
- Barrutiei erreparatuta, EGBLaren eragina dela-eta soilik Bizkaian gertatzen da emakume zerrendaburuen kopurua handiagoa izatea ordezkaritza duten alderdietan gainerakoetan baino. Gipuzkoa da alderdi guztietai portzentaje okerrena lortzen duena. Hiru lurraldeetan behin gertatzen da portzentajea % 0 dela: 2001ean. Araban, 2009an, ordezkaritza lortzen duten alderdietan, Bizkaian, 2001ean, ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdietan eta Gipuzkoan, 2005ean, ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdietan.
- Ikusten dugu jokaera aldakorra dagoela EGBLaren eraginean, eta hoberantz egiten duela onesten den urtean, baina gero ez dela % 50era hurbiltzen, eta joera finkatu ere ez dela finkatzen.
- Zerrendaburu diren emakumeen presentzia txikiak adierazten du zer garantzi duen zerrendan toki horretan egoteak. EGBLak emakumeen eta gizonen % 50eko presentzia aipatzen duen arren, ez da gauza bera zerrendan bigarren tokian edo seigarren tokian egotea, gutxienez ere ordezkarri ugari lortzen ez duten alderdietan, zeren eta zerrendan daukaten tokiak bermatuko baitu hautatuak izatea ala ez izatea. Baina zerrendaburuaren gai 6ko tarte bakoitzean errepikatzen da. 2001ean zerrendako seigarren eta zapigarren tokiek esanahi bera zuten beste edozein tokik baino, baina 2005etik aurrera tartetako mugako toiek esanahi berritu bat dute, zeren eta hautatua izateko aukera desberdinak erakusten baitituze, legearen letra errespetatuz bai baina haren xedetik urrunduz. Lor ditzaketen hautetsien kopurua dela-eta alderdiek dauzkaten itxaropenen arabera ez da gauza gera 6. tokian egotea (lehen tarteko azken tokia) edo 7. tokian egotea (bigarren tarteko lehenengo). Horren azterketak erakuts dezake alderdi batzuen estrategia dela gizonezkoen posizioa lehenestea eta EGBLak bilatzen duen «berdintasun eragingarria» iristea neutralizatzea.

## Zerrendan 6. eta 7. tokietan dauden emakume hautagaiak

### Araba / Álava

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

6. tokian emakumeen portzentajeak hobera egiten du deialdi guzietan, salbu eta 2016an. % 50era 2009an eta 2012an baizik ez da iristen. 7. tokian kontrakoa gertatzen da, emakumeen portzentajeak okerrera egiten du deialdi guzietan, salbu eta 2016koan. % 50era 2001ean baizik ez da iristen.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

6. tokian igoera nabarmena a 2012ra arte, zeren eta 2016an % 71tik % 17ra pasatzen baita. 7. tokian presentzia oso txikia da orokorrean, eta urte okerrenak 2009a eta 2012a dira % Orekin; onenak, berriz, 2005a eta 2016a.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Urte horietan kontrakoa gertatzen da, baina alde txikiiek. Presentzia handiagoa da 7. tokian 6.ean baino, oro har. Eragin erlatiboki positiboa dela esan dezakegu.

### Bizkaia

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

6. tokian, emakumeen portzentajeak hobera egiten du deialdi guzietan, eta 2005ean % 50era iristen da; hurrengoan ehuneko hori gainditzen du. 7. tokian portzentajea gorabeheratsua da: 2001ean % 50 da eta ez da sekula gehiago iristen portzentaje horretara. Joera, beraz, 6. tokian ageri denaren kontrakoa da. Portzentajea handia bada 6. tokian, txikia da 7.ean, eta alderantziz.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Orokorean bezala, 6. tokiak presentziaren portzentajea handitzen du deialdi bakoitzean; 7. tokian, berriz, gorabeheratsua da. Ezin da ondorioztatu orokorraren aurkakoa den joera bat dagoenik. Emakumeek ez dute % 50eko presentzia gainditzen bi toki horietan.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Orokorean gertatzen den bezala, 6. tokiaren portzentajeak gora egiten du deialditik deialdira eta % 50ra iristen da eta ehuneko hori gainditu ere gainditzen du. 7. tokiaren portzentajeak, aldiz, behera egiten du, eta ez da sekula % 50era iristen. Portzentaje txikiena 2016an aurkitzen dugu, % 11rekin.

## **Gipuzkoa**

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

6. tokian portzentajeak okerrera egiten du deialdi guzietan, 2005ean izan ezik, orduan % 64ra iritsi baitzen. 7. tokian, aldiz, portzentajeak, gorabeheratsua bada ere, hobera egiten du deialdi guzietan, eta % 50ekoa gaintitzen du. Beste behin, joerak kontrakoak dira bi posizio horietan.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

6. tokian portzentajeak okerrera egiten du deialdi guzietan. 2009an iristen da txikienera: % 14. 7. tokian, portzentajeak bilakaera positiboa du, eta 2005ean % 83ra eta 2016an % 80ra iristen da. Bi posizio horietako jokaera, halaber, kontrakoak da.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Ordezkaritza lortu ez duten alderditan ageri den eragina ordezkaritzarik lortu duten alderditan ageri den bera da. Bi posizio horien arteko oposizio-kasu muturrekoena 2009an gertatzen da, orduan 6. tokiaren portzentajea % 0 baita. 7. tokia % 100era iristen da.

## **Euskal Autonomia Erkidegoa**

EGBLak EAEn duen eragina nahiko antzekoa da. Bi posizio horietako portzentajeak antzekoak dira deialdi guzietan, eta pixka bat egiten dute gora 2005eko deialditik aurrera. Oro har, portzentajea % 50 ingurukoa da, eta proportzio berdinan gertatzen da ordezkaritza lortu duten alderditan eta ordezkaritzarik lortu ez dutenetan. Portzentajeak ez dira hain desberdinak izaten 6. eta 7. tokietan.

## **Ondorioak**

- Eragina bera da lurralte guzietan. 6. eta 7. tokietako portzentajeek lotura hertsia dute, baina kontrako norabidean. 6. tokiaren eragina positiboa bada, 7. tokiarena negatiboa izango da, eta alderantziz. Erlazio hori deialdi, lurralte eta alderdi guzietan gertatzen da, ordezkaritza dutenetan zein ordezkaritzarik ez dutenetan.
- EGBLaren eragina positiboa denean ordezkaritza duten alderdietako bi posizioen edozeinetan, negatiboa da posizio berdinan ordezkaritzarik ez duten alderditan, eta alderantziz.
- EGBLak Gipuzkoan izan duen eragina desberdina da Araban eta Bizkaian izan duenetik: 6. tokian batere eraginik ez du, eta 2009an lortu da emaitzarik txarrena, % 14rekin, eta positiboa 7. tokian — emaitzarik onena 2005an lortu zen, % 83rekin—. Araban eta Bizkaian, portzentaje desberdinekin bada ere, kontrako gertatzen da. Gipuzkoan, 7. tokiaren portzentajeak gora egiten du deialditik deialdira; 6. tokiaren portzentajeak, berriz, behera egiten du. Barrutien araberako portzentaje desberdin horrek azaltzen ditu erkidegoaren guztizkoan lortu diren emaitza orekatuak.

- Atal honetan eskainitako datuei buruz aintzakotzat har daitekeen ondorio bat da alderdietan estrategia batzuk badaudela «gizonezkoei irteerako posizioak bermatzeko», lortzea espero duten eserleku kopuruaren arabera, alderdiz alderdi datu horiek aztertzen dituen atalean ikusiko dugun bezala.

## **Ordezko hautagaiak diren emakumeak**

### **Araba / Álava**

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Ordezkoak diren emakumeen kopuruak gora egin du deialdi guztietaan: 2001eko % 35etik 2016ko % 52ra, 2005eko % 62ko emaitza lortu gabe.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Ordezkoak diren emakumeen kopuruak gora egin du: 2001ean, % 45 da; 2005ean, % 70; 2009an, % 59; 2012an, % 47, eta 2016an, azkenik, % 52. Kasu guztietaan % 50era iristen den arren, esan daiteke EGBLak eragin positiboa izan duela, irregularra izan bada ere.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Ehunekoak nabarmen egin du gora: 2001eko % 0tik 2016ko % 52ra. Deialdi guztietaan gertatzen da, baina modu irregularrean. Alderdi guztien portaera, ordezkaritza izan zein ez izan, antzekoa da.

### **Bizkaia**

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Ordezkoak diren emakumeen kopuruak gora egin du deialdi guztietaan: 2001eko % 35etik 2016ko % 55era, 2005eko % 60ko emaitza lortu gabe.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Ordezkoak diren emakumeen kopuruak gora egin du deialdi guztietaan: 2001ean, % 33 da; 2005ean, % 57; 2009an, % 56; 2012an, % 67, eta 2016an, azkenik, % 50. Kasu honetan, ehuneko handiena 2012an aurkitzen dugu, eta ez 2005ean.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Ehunekoak nabarmen egin du gora: 2001eko % 37tik 2016ko % 59ra, 2005eko % 63ra iritsi gabe. 2012an izan ezik, emakume ordezkoen portzentajeek ordezkaritza lortzen duten alderdien gainditzen dute.

## Gipuzkoa

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Ordezkoak diren emakumeen kopuruak gora egin du deialdi guzietan: 2001eko % 46tik 2016ko % 54ra, 2005eko % 50eko emaitza gaindituta. Eragina positiboa da, zeren eta EGBLak bilatzen duen % 50eko emaitza lortzen baita.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Ordezkoak diren emakumeen kopuruaren bilakaera positiboa eta jarraitua da, eta portzentajeetan % 41tik % 62ra iritsi da 2016an, 2005eko % 48ko emaitza 14 puntutan gaindituz.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Bilakaera gorabeheratsua da, eta ez du joera argirik adierazten, nahiz eta % 40-70eko tarteari eutsi. 2005eko portzentajea, % 54rekin, txikienetako bat da, 2016eko % 44koarekin batera, biak ere 2001eko % 56ko emaitzaren azpitik. 2016eko emaitzek, % 44rekin, ez dute aukerarik ematen esateko ez beheranzko joerarik dagoenik —2009ko eta 2012ko % 70ekoa eta % 58koa ikusita—, ez eta goranzkorik ere.

## Euskal Autonomia Erkidegoa

- Aurkeztu diren alderdi GUZTIAK:

Ordezkoak diren emakumeen kopuruak gora egin du deialdi guzietan: 2001eko % 38tik 2016ko % 54era, 2005eko eta 2009ko % 58ko emaitza lortu gabe. Joera horrek % 50koaren eta % 60koaren arteko tartea erakusten du.

- Ordezkaritza LORTU DUTEN alderdiak:

Bilakaera aldekoa da eta nahiko egonkorra, zeren eta deialdi guzietan 2001eko % 40koa gainditzen baita, eta gainerakoentzako arteko gorabehera 3 puntukoa baita: % 55etik % 58ra. Esan dezakegu EGBLak eragin positiboa izan duela. 2001ean, ordezkaritzaren % 40rekin, EGBLaren % 50era iristen ez den bitartean, gainerakoan ezarritako % 50ekora iristen da eta gainditu ere gainditzen da.

- Ordezkaritzarik LORTU EZ DUTEN alderdiak:

Portzentajeak nabarmen egin du gora: 2001eko % 35etik 2016ko % 53ra, eta deialdi guzietan gertatzen da igoera. EGBLak alderdi horietan izan duen eragina ordezkaritza duten alderdian gertatzen denaren antzekoa da.

## Ondorioak

- Hauteskunde, barruti eta alderdi guzietan, EGBLaren eragina positiboa da. Aintzat hartutako item guztiak portaera homogeneoena da.
- 2005eko eragina ere guzietan handiena da, salbu eta Bizkaiko kasuan, non 2012an gertatzen baita ordezkaritza lortzen duten alderdien kasuan.

- Portaera antzekoa da barruti guztieta eta barrutien guztizkoan.
- Oro har, EGBLak bilatzen duen % 50era iristen da.
- Eragina positiboa eta iraunkorra da. Eraginik handiena 2005ean gertatzen da.

## 2. 2. Hauteskunde-emaitzak

### Emakume hautetsiak

#### Araba / Álava

Beste behin, bilakaera askotarikoa da. 2005ean igoera ikusgarri bat gertatu zen, zeren eta lehenengo deialdian, 2005ean, 7 emakume hautetsi izatetik 12 emakume hautetsi izatera pasa baitzen; hori dela eta, esan dezakegu EGBLak eragin handia izan zuela hauteskunde horietan. 2009an eta 2012an, ordea, beheranzko joera txiki bat gertatu zen, 11 emakume hautetsirekin. Azkenik, 2016an goranzko joera hasi zen berriz eta 13 emakume hautetsirekin gizon hautetsien kopurua gainditzen da termino absolutuetan. Portzentajeetan, berriz, 2001ean % 20 izatetik 2005ean % 48 izatera 2009an eta 2012an % 44 izatera eta 2016an % 52 izatera pasa da. 2005, 2009 eta 2012an emakume hautetsiak ez dira iristen % 50era, baina 2016an bai. Esan dezakegu eragin positibo bat badagoela, baina oraindik ere ezin dugu baiezta «berdintasun eragingarriko» egiturazko errealitate bat denik. Momentuz esan dezakegu bilakaera positiboa izanda ere ez dela jarraitua.

#### Bizkaia

Beste behin, bilakaera askotarikoa da. 2001etik 2005era % 100eko igoera gertatzen da, 6 emakume hautetsi izatetik 12 izatera pasa baitzen 2005ean, baina 2009an bi gutxiago izan ziren; 2016an, aldiz, errekuperazioa etorri zen eta lehenengo aldiz (Araban bezala), 14 emakume hautetsirekin, gizon hautetsien kopurua gainditu zen. Portzentajeetan, 2001eko % 24tik 2005eko % 48ra pasa zen, eta 2009an, berriz, % 40ra jaitsi zen; 2012an % 48koa errekuperatu zen. 2016an, azkenik, emaitza positibo bat gertatu zen % 56koa, zeina hurbilago baitago EGBELak bideratzen duen gehieneko portzentajetik EGBLak bideratzen duen % 50etik baino. Esan dezakegu eragina positiboa dela baina ez jarraitua. Badirudi EGBELak ezartzen duen gehienekoa, % 60, helburu bideragarria dela, eta «berdintasun eragingarriaren» ideian sakontzen du: egiturazko berdintasun bat da, ez berdintasun formal hutsa. Datu horrek ondorengo hauteskundeetan izan duen jarraipena aipagarria da.

#### Gipuzkoa

- Lurralde horretan, jokaera beste bi lurraldeetan 2016ko hauteskundeetara arte izandakoaren aurkakoa da; izan ere, urte horretan, joerari eutsi baitzitzaion, beste bi lurraldeetan gertatutakoarekin parekatzen da. Emakume hautetsien kopuruak gora egin zuen 2001etik 2005era, 2001ean 13 izatetik 2005ean 15 izatera pasa baitzen. Bi kasuetan % 50ekoa gainditzen da, eta 2005ean % 60ra iristen da. 2009, 2012 eta 2016ko hauteskundeetan, % 50ekoa gainditzen jarraitzen da; izan ere, lehenengo bi deialdietan % 52 ageri da eta hirugarrenean, berriz, % 56. Kasu guztieta EGBELak ezarritako gutxienekoa, % 40, gainditzen da, bai eta EGBLaren % 50koa ere (esan dugun bezala, % 50 hori ez zen 2005ean inolako oztopoa emakumeentzat). Kasu horietan guztieta, emakume hautetsien kopurua handiagoa da gizonezkoena baino, eta 2005ean gertatzen da alderik handiena: 15 emakume eta 10 gizon.

- 2005etik aurrera emakume hautetsietan gertatu den jaitsiera Arabako eta Bizkaiko joeraren kontrakoa da. Zaila da esatea egitate hori azaltzen duen arrazoi bakarra zerrendako irteerako tokiarekin lotuta dagoela. Litekeena da beste arrazoi batzuk egotea, eta arrazoi horiek bilatu behar izatea EGBLaren eta EGBELaren eragingarritasunetik kanpo, baina egitate horrek balio digu adierazteko zeinen ahula de EGBLaren eraginkortasuna, beste faktore batzuk jokoan sartzen direnean. Ezin dugu ondorioztatu EGBELak eragin positiboa izan duenik; are gehiago, gure buruari galdu behar diogu ea % 50eko portzentajea eskatzeak, 6ko tarteetan, beste inongo baldintzarik ezarri gabe, esate baterako lehentasun-hurrenkeran, ez ote duen alderdien interes puntualeen mende jartzen berdintasunarena bezain garrantzitsua den gai bat; eta okerrago dena, batzuetan kontrako eragina ez ote duen (ez beti, baina bai batzuetan) emakumeak hautatuak izateko aukerari dagokionez. Irteerako tokian antzemandako okertzeak, berez, ezin du jaitsiera hori azaldu.

## **Euskal Autonomia Erkidegoa**

- EGBLaren askotariko eragina. Zalantzak gabe 26 hautetsitik 39 hautetsira pasatzearekin (2001ean % 35 izatetik 2005ean % 52 izatera) EGBLaren eragina oso positiboa da. Baina 2009ko eta 2012ko hauteskundeek zalantzan jartzen dute eragin hori, eta emakume hautetsien kopurua berriz ere jartzen dute % 50ekoaren azpitik (%45 2009an eta % 48 2012an). Espero liteke halako finkatze bat gertatzea beheranzko joeran, baina ez da halakorik gertatu; izan ere, 2016an emakume hautetsien kopurua handiagoa da, 41, eta portzentajea, berriz, altuagoa, % 55, % 50etik 5 puntu gorago. 2016ko emaitzak ikusita, eragina positiboa da, baina kontuan hartu behar dira, legearen hitzez hitzekotasunaren alderdi gehiago, errealtitatea egiturazko erara eraldatzen duen eragin bati buruz hitz egin ahal izateko. Egiaztatu dugu bilakaera positibo bat egon dela, baina goiz da finkatze bati buruz hitz egiteko.
- Arabako eta Bizkaiko eragina antzekoa da; Gipuzkoakoa, berriz, desberdina. Arabako eta Bizkaiko emaitzak erkidegoko emaitzen antzekoak dira, baina Gipuzkoakoak pixka bat aldentzen dira erkidegokoetatik, bereziki 2005ean (emakumeen % 50 baino ehuneko handia zuten hautagai-zerrendak aurkez zitezkeen).

## **Ondorioak**

- Araban eta Bizkaian bilakaera positiboa da, baina askotarikoa. Bi kasuetan % 50era iristen da lehenengo aldiz 2016an, eta horrek berekin ekarri du lehenengo aldiz hautetsien artean emakume gehiago egotea gizonak baino bi lurraldeetan. Aitzitik, Gipuzkoan, 2001etik emakume hautetsien portzentajeak % 50ekoa bete du hauteskunde guztietan, eta batzuetan gainditu ere egin du. Hauteskunde guztietan emakume hautetsi gehiago egon dira. Araban eta Bizkaian ez bezala, 2016an emaitzarik onena lortu baitzuten, % 50; Araban, berriz, % 52 izan ziren eta Bizkaian % 56. Gipuzkoan emaitzarik onena 2005ean lortu zen, % 60rekin.
- Emakume hautetsietan igoera nabarmen bat gertatzen da EGBLaren eraginez, baina itxaron egin beharko da igoera hori finkatzerako.

## **Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera**

### **Araba / Álava**

PSE-EE (PSOE), EAJ-PNV eta PPk emakume hautetsiak lortu zituzten 5 deialdian. 2005ean, EGBLaren eragina handiagoa da EAJ-PNVn eta PPn, PSE-EEEn (PSOE) baino. Lehenengo biek 2001ean % 22 zituzten; 2005ean, EAJ-PNV % 50era pasa da eta PP, berriz, % 43ra. PSE-EEren (PSOE) kasuan, eragina txikiagoa da: 2001ean % 40koa izatetik 2005ean % 43koa izatera. EAJ-PNVn izandako eragina egonkorragoa da, % 50 ingurukoa, PSE-EEEn (PSOE) eta PPn baino: lehenengoan 2016an % 67ra iritsi zen, eta bigarrenean 2009an baizik ez zen iritsi % 50era. EH BILDUn izandako eragina positiboa da: emakume hautetsiak lortu zituen aurkeztu ahal izan zen lau hauteskundeetatik hirutan, eta 2001eko % 0tik, 2016ko % 60ra pasa da, betiere EGBLak bilatzen duen % 50ekoa lortuz. EB/IUk % 100 lortu du ordezkaritza erdietsi duen bi deialdian. ARALAR eta UPyDren kasuan, EB/IUren emaitza berarekin, hautetsi bat, eragina % 0koa da. PODEMOS-AHAL DUGUk bere lehen hauteskundeetan, 2016koan, % 50koa lortzen du, hain zuzen EGBLak bilatzen duena. PSE-EE (PSOE) eta EH BILDU dira 5 deialdian bilakaera positiboa izan duten bi alderdiak. EGBLak 2005ean izan duen eragina ukaezina da. EAJ-PNVk emakume hautetsien % 50 lortu zuen eta EB/IUk % 100; PP eta PSE-EEk (PSOE), berriz, % 43. Joera goranzkoa da kasu guztieta, PPren kasuan izan ezik.

### **Bizkaia**

Ei PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNVk emakume hautetsiak lortu dituzte bost deialdian. PP eta EH BILDUk lautan lortu zuten, baina biek arrazoi desberdinengatik. Lehenengoak 2001ean 6 hautetsiak gizonak direlako eta bigarrenak 2009an ordezkaritzarik lortu ez zuelako, marka guztiak legez kanpo utziak zituelako. PP 2001ean 0 emakume hautetsi izatetik 2005ean 2 izatera pasa da, eta 2009an, 2012an eta 2016an 1era jaitsi da; halere, emaitza absolutu horiek bestelako portzentajeak erakusten dituzte: 2005ean, 2 emakume hautetsirekin, % 40 da eta 2009an, 2012an eta 2016an deialdi bakoitzean lortutako emakume hautetsiak % 25, % 33 eta % 50 egiten du, termino absolutuetan hautetsiak galdu direlako. PSE-EE (PSOE) pasa da 2001ean 1 izatetik, ordezkaritzaren % 25ekin, 2005ean eta 2009an 3 izatera, % 50ekin eta % 38rekin, hurrenez hurren. 2012an eta 2016an portzentaje hobeak lortu zituen, % 40 eta % 67, baina termino absolutuetan hautetsi 1 gutxiago lortuz. EAJ-PNV da bilakaera positiboa eta jarraituena duena: 2001ean 4 izatetik, % 33rekin, 2005ean 5 izatera pasa zen, % 45ekin, eta 6ra ere iristen da 2009an, % 50ekoa lortuz. 2012an eta 2016an, azkenik % 55eraino igotzen da, aurreko hauteskundeetako kopuru berarekin, 6 emakume. EH BILDUk emakume hautetsi bat lortu zuen 2001ean, % 50, eta 2, berriz, 2005ean, % 100. 2009an legez kanpo gelditu zen eta 2012an eta 2016an, 3 emakume hautetsirekin, % 50 eta % 60 lortu zuen, hurrenez hurren. Araban bezala, EGBLaren eragina 2005ean ukaezina da; izan ere, ordezkaritza duten alderdi guztiekin EGBLaren gutxienekoa, % 40, lortzen dute; 2005ean % 100era ere iristen da EH BILDUREn kasuan. Goranzko joera horri ez zitzaion eutsi 2009an, EAJ-PNVren salbuespenarekin; izan ere, alderdi horretan emakume hautetsien kopuruak eta ordezkaritzaren ehunekoak gora egiten jarraitzen dute. 2012an eta 2016an goranzko joera portzentuala alderdi guztieta errekkuperatzen da. PPn, termino portzentualetan, ikusten da argien joera hori; izan ere 2012an, emakume hautetsi batekin, % 33 lortu zuen, eta 2016an, orduan ere emakume hautetsi batekin, lehenengo aldiz emakume hautetsien % 50era iristen da. EB-IUk eta Aralarrek ez dute emakume hautetsi bakarra ere lortzen 2001ean eta 2005ean, lehenengo kasuan, eta 2009an, bigarrenean. Araban bezala, PODEMOS-AHAL DUGU, bere lehen hauteskundeetan, emakumeen % 50era iristen da: 4tik 2 dira.

## Gipuzkoa

PP, PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNVk emakume hautetsiak lortzen dituzte bost deialdietan; eragin positiboena, termino erlatiboa, PSE-EEEn (PSOE) gertatzen da, zeren eta kasu guztieta % 50era iristen baita, eta bera da hori gertatzen den alderdi bakarra, zeren eta EAJ-PNVk 2016an eta EH BILDUK 2012an % 44 baizik ez baitute lortzen, eta PPk, berri, 2009an, % 33. Bere aldetik, ARALARrek, aurkeztu den bi hauteskundeetan, % 100 lortu zuen 2005ean eta % 50 2009an. EB-IU eta EAk ez dute ordezkarri bakarra ere lortzen: lehenengoak 2001an, 2005etan eta 2009an, eta bigarrenak 2009an. EH/BILDUK 2 lortu zituen 2001ean, % 50ekin, eta 3 2005ean, % 60rekin. 2009an, ezin izan zen aurkeztu, legez kanpo zegoelako. 2012an, emakume hautetsi gehiagorekin, portzentajea % 44ra jaisten da, eta 2016an errekuperatzen da, bi hautetsi gehiagorekin (% 75). PPk bilakaera negatibo argia dauka, zeren eta 2001ean 3 emakume hautetsi lortu baitzuen (% 75), 2 2005ean (% 67) eta 1 2009an, 2012an eta 2016an (% 33 2009an eta % 50 2012an eta 2016an). PSE-EEk (PSOE), 2 hautetsirekin 2001ean (ordezkaritzaren % 50), emakume hautetsi bat gehiago lortu zuen 2005ean, % 60ra iritsita. 2009ko 5ekin % 63ra iristen da; 2012an 3ra egin zuen behera eta 2016an, azkenik, 2ra; ehuneko, berri, besterik da: % 60 2012an eta % 67 2016an. EAJ-PNV da egonkorrena portzentajeetan, eta % 50era iristen da kasu guztieta, 2016an izan ezik. Barrutian emakume hautetsi gehien lortzen dituen alderdia da: 6 hautetsi 2001ean, 2005ean eta 2009an; 5 hautetsi 2012an eta 4 hautetsi 2016an. Horrenbestez, EAJ-PNVk bilakaera askotarikoa dauka. Kasu honetan ezin dugu esan EGBLak eragin positibo absolutua izan duenik, zeren eta 2001ean alderdi guztiekin % 40koa gainditu baitzuten, EGBELak ezarritako gutxienekoa, eta guztiekin, EAJ-PNVk izan ezik, EGBLaren % 50ekoa. 2005ean EAJ-PNV, EH BILDU eta PSE-EEk (PSOE) hobera egin zuten, baina PPk okerrera. 2009an PSE-EE (PSOE) da hobera egiten duena eta PP eta EAJ-PNV, berri, okerrera egiten dutenak. 2012an hobera PPk egiten du bakarrik, eta 2016an berdin mantentzen da. EAJ-PNVk okerrera egiten du eta PSE-EE (PSOE) eta EH BILDUK hobera egiten dute. PODEMOS-AHAL DUGU ez du % 50ekoa lortzen: 3 hautetsietatik 1 emakumea izanda, % 33ra iristen da. Horrenbestez, EGBLak era askotako eraginak izan ditu.

## Euskal Autonomia Erkidegoa

EGBLaren eragin desberdina. EGBLak EAJ-PNVn 2005ean izan duen eragina oso positiboa da: % 36 izatetik, 12 emakume hautetsirekin, 2005ean % 52 izatera pasa da, 15 emakume hautsirekin. Ondorengo hauteskundeetan eragina positiboa da eta goranzkoa. EGBLak aurreikusitako % 50ekora iristen da, eta hautsietan gehiago dira emakumeak gizonak baino. EH BILDUREn kasuan, 3, 6, 10 eta 12 emakume hautetsirekin eta % 43, 67, 48 eta 67ko portzentajearekin, eragina alternoa da eta ez egonkorra. PSE-EEren (PSOE) kasuan, antzeko zerbait gertatzen da. 2005eko eragina oso positiboa da, eta % 38tik % 50era iristen da, eta 2009an eta 2012an mantentzen da. 2016an, berri, bilakaera positiboa dago, % 67rekin eta 6 emakume hautetsirekin. El PP da deialdi guztieta emakume hautetsiak lortuta sekula % 50era iritsi ez dena. 2005eko eragina nabarmena den arren, geroko indizeak hurbilago daude EGBELak defendatzen duen gutxienekotik, % 40, EGBLak defendatzen duenetik baino, % 50. EGBLak EB-IU, PODEMOS-AHAL DUGU eta UPyDn duen eragina ez da % 50era iristen.

## Ondorioak

Eragin positiboa baina desberdina gertatzen da alderdi guztieta. EAJ-PNV, EH BILDU eta PSE-EEren (PSOE) kasuan berdintasun eragingarria lortzen den bitartean, emakume hautetsien % 50, EB-IU, PODEMOS-AHAL DUGU eta UPyDren kasuan ez da lortzen. Ondorioa izan daiteke zenbat eta postu gehiago lortu orduan eta errazagoa dela horietan emakumeak ere egotea, baina ordezkaritza lortzeko itxaropen txikiak dauden alderdietan (banatzeko postu gutxiago dagoenean), emakume hautetsien kopurua jaisten dela (termino absolutuetan eta portzentualetan). Hori barruti guztieta gertatzen da, bereziki Araban eta

Bizkaian eta intentsitate txikiagoz Gipuzkoan. Halaber, hauteskunde guztietan aplika daiteke, 2016koan izan ezik. Itxaron beharko da beste hauteskunde batzuk izan arte egiazatzeko ea joeran aldaketarik ba ote dagoen edo, besterik gabe, ohiko gorabehera batzuen aurrean gauden, berdintasun eragingarria lortzeaz beste interes batzuen araberakoak.

### Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera

#### Araba / Álava

EB-IU eta EH BILDU k % 50 edo gehiago lortzen dute. Lehenengoak % 100, zeren eta emakume zerrendaburuak aurkezu baititu ordezkaritza lortu duen bi kasuetan. Bigarrenak % 75ekin, zeren eta hiru hauteskundetan emakume zerrendaburu bat aurkezu baitu. EGBLaren eragin positiboa zalantzakoa da. PSE-EE (PSOE) eta PODEMOS-AHAL DUGUk behin egiten dute (2016). Gainerako alderdiek sekula ere ez dute emakume zerrendaburu bat aurkezu.

#### Bizkaia

EH BILDU da emakume zerrendaburu bat aurkezterik izan duen hauteskunde guztietan aurkezu duen bakarra. EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE) behin egin dute, 2009an eta 2016an, hurrenez hurren. Gainerako alderdiek sekula ere ez dute emakume zerrendaburu bat aurkezu. EGBLaren eragina oso ahula edo deuseza da.

#### Gipuzkoa

Ordezkaritza lortu duten alderdietatik ARALAR da bakarra emakume zerrendaburu bat aurkezu duena aurkezu den deialdi guztietan. PPk 5 hauteskundetatik 4tan egin du hori. EH BILDUK 2005ean eta 2016an aurkezu du emakume zerrendaburu bat. PSE-EE (PSOE) eta PODEMOS-AHAL DUGUk behin egin dute, 2016an. Ez EAJ-PNVk, ez IU/EBk ez dute emakume zerrendabururik aurkezu inongo deialditan. Ezin dugu EGBLaren eragin positiboari buruzko iritzirik eman.

#### Euskal Autonomia Erkidegoa

EH BILDU, PSE-EE (PSOE), ARALAR eta PODEMOS-AHAL DUGUk % 50era iristen dira hauteskunde batean edo gehiagotan. EGBLaren eragin handiena EH BILDUn aurkitzen dugu: 2001ean % 33 izatetik 2005ean eta 2016an % 100era izatera eta 2012an % 67 izatera pasa da. Ondotik, ARALAR dator, zeinak lortzen baitu 2005ean % 100 izatea eta 2009an, berriz, % 33. Gero, PODEMOS-AHAL DUGU dago, 2016an % 67 lortu baitu (aurkezu den bakarra da), eta azkenik, PSE-EE (PSOE) dago; izan ere, 2016koak, % 100arekin, emakume zerrendaburuak aurkezu dituen hauteskunde bakarrak dira. Azkenean PP eta EB-IU daude, % 33rekin 2001, 2005, 2009 eta 2012an, lehenengoaren kasuan, eta 2001 eta 2005ean, bigarrenaren kasuan. Gipuzkoa da portaera onena duen lurraldea; ondotik Araba eta Bizkaia datozi.

## Ondorioak

EH BILDU da alderdi bakarra deitutako 5 hauteskundeetatik 4tan argiro apustu egiten duena emakume zerrendaburuak aurkeztearen alde. Bizkaiko barrutia da jarrera hori argien erakusten duena; ondotik Araba eta Gipuzkoa dator. EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) kontrako muturrean daude, eta emaitza okerrenak Araban eta Gipuzkoan aurkitzen ditugu (bakarra ere ez inongo hauteskundetan). Bizkaian, lehenengoaren kasuan, emakume zerrendaburu bat behin bakarrik egon da, eta bigarrenaren kasuan, emakume zerrendaburuak soilik 2016ko zerrendan egon dira, hiru barrutietan. PPn eta EB-Bn gertatutako % 33ko emaitzen arrazoia Gipuzkoaren portaera ona izan da PPren kasuan, zeren eta Bizkaian eta Araban ez baitute emakume zerrendabururik aurkeztu inongo deialditan, eta Arabaren portaerari EB-Bren kasuan. ARALAR-en emaitza onak zor zaizkio Gipuzkoak izan duen portaera onari eta PODEMOS-AHAL DUGUrenak, berriz, Arabako eta Gipuzkoako kasuei.

### 6. eta 7. tokietan dauden emakumeak, hautetsien zenbaki absolutuaren arabera

- Termino absolutuetan, alderdiek barruti bakoitzean lortu nahi dituzten postuen tarteak 1etik, itxaropen txikienen kasuan, 12ra, itxaropen handienekin kasuan, doaz. EGBLarekin, emakumeen edo gizonen presentzia, 6. eta 7. tokietan, lotuta dago alderdiek ordezkari kopuru jakin bat lortzeko dauzkaten itxaropenekin, zeren eta ez baitago lehentasun-ordenarik eta portzentajeak sexu bakoitzetik % 50ekoak izan behar baitu 6ko tarteetan.
- Aurkitzen dugun lehenengo aldea da zerrenda guztietatik, 73, soilik 16tan (% 22) 6. eta 7. tokietan dauden pertsonak sexu berekoak direla, bi emakume edo bi gizon. Sexu bereko zerrenden kopurua eta ehunekoa 6 ordezkari edo gehiagoko alderdietan txikiagoa da, % 19, 6 ordezkari baino gutxiago dituzten alderditan ageri dena, % 31, baino. Gainerakoetan, 57tan (% 78), 6. eta y 7. tokian dauden pertsonen sexu ezberdina dute.
- Zerrenden % 22an, 6. eta 7. tokietan, % 50 emakumeak eta gizonak daude. Oreka hori lortzen da 6 ordezkari baino gehiago dituzten alderdiek aurkeztutako sexu bereko zerrenden kopurua dela eta (11 zerrenda), eta 6 ordezkari baino gutxiago lortzen dituztenen zerrenden kopurua dela eta (5 zerrenda). Lehenengo kasuan, 11 zerrendetatik % 55 emakumeenak dira eta % 45 gizonena; bigarren kasuan, ordea, % 40 emakumeak dira eta % 60 gizonak. Bi kasuetan, portzentajea handiagoa da 6 edo ordezkari gehiago lortu dituzten alderdietan (% 69) 6 ordezkari baino gutxiago lortzen dituzten (% 31) alderdietan baino. Izan ere, gertatzen da zerrendaburu emakumeak diren kasuak, lehenengoetan (%75), nabarmen handiagoa dela bigarrenetan baino (% 25), eta gizonak bi tokietan dauden kasuak, berriz orekatuago daudela: % 62 6 ordezkari baino gehiago dituzten alderdien zerrendetan eta % 38 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdien zerrendetan.
- 6 ordezkari baino gehiago lortzen dituzten alderdien artean, PP da 6. eta 7. tokietan sexu bereko pertsonak dituzten zerrenda gehien aurkezten dituena, guztien % 31, eta % 40 gizonak dira eta % 60 emakumeak. Ondotik, EH BILDU dator, % 19rekin: % 33 gizonak eta % 67 emakumeak. Hirugarren tokian EAJ-PNV dago, % 13rekin: % 50na gizonak eta emakumeak aurkezten ditu. Azkenean, PSE-EE (PSOE) dago, % 6rekin: % 100 gizonak dira. 6 ordezkari baino gutxiago lortzen dituztenen artean, portzentaje handiena PODEMOS-AHAL DUGUk lortzen du, % 19rekin (% 33 gizonak eta % 67 emakumeak); ondotik, UPyD eta EA dator, % 6rekin, biek ere % 100 gizonak dituztela. Azkenik, ARALAR eta EB-Bk ez dute inongo zerrendarik aurkezten, non 6. eta 7. tokietan sexu bereko pertsonak dauden.

- Gipuzkoa da 6. eta 7. tokietan sexu bereko pertsonen portzentaje handiena duen barrutia, % 32rekin (8 zerrenda): horietatik, % 75 6 ordezkari baino gehiago dituzten alderdiei dagozkie eta % 25, berriz, 6 ordezkari baino gutxiago dituzten alderdiei. 4 zerrenda horiekin, Bizkaia % 17 eta Arabak % 16 erdiesten dute. Lehenengo kasuan, Gipuzkoan bezala, zerrenden % 75 6 ordezkari baino gehiago dituzten alderdietatik dator, eta % 25 berriz, 6 ordezkari baino gutxiago dituztenetatik. Arabako kasuan, biek, 6 ordezkari baino gehiagokoek eta 6 ordezkari baino gutxiagokoek, % 50 egiten dute.
- Barrutien arabera, Araban sexu bereko hautagai-zerrendak aurkezten dituzten alderdi guztiek gizonezkoenak aurkezten dituzte: EAj-PNV eta PSE-EE (PSOE) dira hori behin egiten dutenak, 6 ordezkari baino gehiago dituzten alderdien artean. Gauza bera gertatzen da 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdian: PODEMOS-AHAL DUGU eta UPyDk behin bakarrik aurkezten dute gizonezkoak 6. eta 7. tokian dituzten zerrendak. Bizkaian, PPk baizik ez du aurkezten sexu bereko zerrendarik 3 kasutan, eta PODEMOS-AHAL DUGUk, berriz, behin. Gipuzkoan, PSE-EE (PSOE) kenduta, EAj-PNV, EH BILDU eta PPk 6. eta 7. tokian sexu bereko pertsonak dituzten zerrendak aurkezten dituzte kasuen % 20an, % 75ean eta % 40an, hurrenez hurren. PODEMOS-AHAL DUGU eta EAk behin aurkezten dute halako zerrenda bat: emakumeena lehenengo kasuan eta gizonena bigarrenean.
- EAEn, PSE-EEk (PSOE) portzentaje bera erdiesten du: % 7. Ondotik, EAj-PNV dago, % 13rekin eta EH BILDU, % 25ekin. Portzentaje handiena, berriz, PPk du, % 33rekin. 6 ordezkari baino gutxiago dituzten alderdien artean, PODEMOS-AHAL DUGUk 3tan egiten du eta UPyDk eta EAk, berriz, behin.
- Ordezkaritza lortzen duten alderdiek aurkeztutako 73 zerrendetatik, 57tan, % 78n, sexu desberdineko pertsonak ageri dira 6. eta 7. tokietan. 6. tokian 26 zerrendetan, % 46, gizonak daude, eta 31n, %54, emakumeak. 7. tokian trukea gertatzen da: 26 emakumeak dira, % 46, eta 31, berriz, % 54, gizonak. 6. tokiko 31 emakumeetatik gehienak (% 90) 6 edo ordezkari gehiago lortzen dituzten alderdietakoak dira; soiliak 3 (% 10) 6 ordezkari baino gutxiago dituzten alderdietakoak dira. 7. tokian dauden 26 emakumeetatik (% 46), 18 (% 69) 6 ordezkari baino gehiago dituzten alderdietakoak dira eta 8, berriz, (% 31) 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdietakoak. 7. tokian dauden 31 gizonetatik (% 54), 28 (% 90) 6 ordezkari baino gehiagoko alderdietakoak dira, eta gainerako 3rak (% 10) 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdietakoak
- Barrutien arabera, Araban 6. tokia 14 emakumek betetzen dute (% 67); horietatik 12 (% 86) 6 ordezkari baino gehiagoko alderdietakoak dira eta 2, berriz, % 14, 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdietakoak. 7. tokian 7 emakume aurkitzen ditugu (% 33); horietatik 5 (% 71) 6 ordezkari baino gehiagoko alderdietakoak dira , eta 2(% 29), berriz, 6 ordezkari baino gutxiagoko formazioetakoak. Bizkaian 6. tokia 11 emakumek betetzen dute (% 58); horietatik 10 (% 91) 6 ordezkari baino gehiagoko alderdietakoak dira eta 1, berriz, % 9, 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdietakoak. 7. tokian 8 emakume daude (% 42); horietatik 6 (% 75) 6 ordezkari baino gehiagoko alderdietakoak dira , eta 2 (% 25), berriz, 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdietakoak. Gipuzkoan, 6. tokia 6 emakumek betetzen dute, % 35. Horiek guztiek, % 100, 6 ordezkari baino gehiagoko alderdietakoak dira eta bakarra ere ez, % 0, 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdietakoak. 7. tokian 11 emakume daude (% 65); horietatik 7 (% 64) 6 ordezkari baino gehiagoko alderdietakoak dira eta 4 (% 36), berriz, 6 ordezkari baino gutxiagoko alderdietakoak.
- EAeko guztizkoan, 6 ordezkari baino gehiago lortzen dituzten alderdietatik, PP da emakumeen portzentaje handiena duena 6. tokian (% 90); ondotik, EAj-PNV dator (% 70) eta urrunago PSE-EE (PSOE), % 50ekin, eta EH BILDU, % 34rekin. Barrutien arabera, 6 ordezkari baino gehiagoko alderdi guztiek, EH BILDUk izan ezik, portaera bera dute Araban eta Bizkaian. Nabarmena da emakume gehiago aurkezten dituztela 6. tokian, hain zuzen ere alderdi berek, EH BILDUk izan ezik, Gipuzkoan

egiten dutenaren kontrakoa, zeren eta emakume gutxiago jartzen baitituzte 6. tokian. 6 ordezkari baino gutxiago lortzen dituztenen artean, portzentajeak honako hauek dira: % 100 emakumeak UPyDren eta ARALARren kasuan eta % 0 EB-Bren kasuan. Termino orokoretan, portaera bera da bi alderdi motetan: beti gehiago dira emakumeak gizonak baino 6. tokian eta, horrenbestez, emakume gutxiago daude 7. tokian; salbuespina Gipuzkoa da, bertan kontrakoa gertatzen baita kasu guzietan.

- 6 ordezkari inguru dituzten alderdiek antzeko jokaera dute. Aldeak bi kategorietako eta barrutietako bakoitzaren alderdien artean gertatzen dira.

## Ondorioak

- Sexu bereko pertsonek 6. eta 7. tokiak betetzen dituzteneko zerrenden portzentajea otso txikia da, eta horrek erakusten digu ordezkarien kopuru jakin bat lortzeko itxaropenak eragina duela toki horietan. 6 ordezkari baino bat gehiago lortzea espero bada, 7. tokia zerrendaburu bat balitz bezala da, eta toki horretan gizonezkoak jartzeko joera dago, emakumeen presentziarako oztopoak jarriz. Portaera aldatzen doa itxaropen horrek behera egiten duen neurrian. Hori egiaztatzen da, oro har, alderdi eta barruti guzietan, bai eta erkidegoaren osotasunean ere.
- Gutxitan gertatzen da 6. eta 7. tokiak sexu bereko pertsonek betetza; hori dela eta, jakin dezakegu zein den kasuko alderdiaren estrategia erkidegoan, oro har, eta barruti bakoitzean, bereziki, ordezkari gehiago edo gutxiago lortzeko dauzkaten itxaropenen arabera.
- Oro har, emakumeek, nagusiki 6. tokia betetzen dute eta gizonek, berriz, 7.a. Beste behin Gipuzkoa da honetan ere portaera desberdina duena. Gehienetan, emakumeek 7. tokia betetzen dute eta gizonek, berriz, 6.a.

## 2. 3. Emakumeen iraupena Eusko Legebiltzarrean

Hauteskunde-zerrenden osaera paritarioak zalantzak gabeko eragina dauka emakumeak ordezkartzako eta erabakiak hartzeko tokietara iristeko prozesuan. Halaber, Gobernuaren osaera orekatuak emakumeen parte-hartze sozio-politikoa segurtatzen du. Behin egiaztatuta bi neurri horiek eragina dutela emakumeen presentzian, gure azterketan beste urrats bat egin behar dugu eta gure buruari galdu behari diogu emakumeek erabakiak hartzeko postu horietan zenbat irauten duten, haien homologoak diren gizonek irauten dutenaren aldean, zeren eta emakumeen parte-hartze soziologikoaren helburua, parekotasunari dagokionez, ez baita alderdi soilik kuantitatiboa, kualitatiboa ere bai baita. Politika publiko batzuk ezarri ahal izateko, beharrezko da presentzia ez ezik, iraunkortasuna ere izatea.

Hori dela eta, aztertuko dugu emakumeek Eusko Legebiltzarreko legegintzaldi desberdinaren zenbat iraun duten. Azterketa ez da exhaustiboa, baina «berdintasun eragingarria» lortzeko prozesu luze horretan oraindik ere gauzatzeko dauden kontu batzuk adierazten ditu, parte-hartze sozio-politikoari dagokionez.

Atal honetan aztertuko dugu ea alderen bat badagoen emakumeen eta gizonen bizitza politiko instituzionalak irauten duen denboran. Horretarako, aztertuko dugu zenbat legegintzalditan egoten diren emakumeak eta gizonak. Hautetsi guztiak legegintzaldi bakar baterako hautatu izan balira, aztertutako 5 legegintzalditan 375 egongo ziren. Alabaina, hautetsietako batzuk behin bakarrik hautatu direnez, azterlanaren lagina 223

pertsonakoa da. Eusko Legebiltzarrean 5 legegintzaldietan egon diren 223 kideetatik, ez ditugu kontuan hartuko 2016an lehen aldiz hautetsiak izan diren 43ak. Legebiltzarra behin bakarrik edo behin baino gehiagotan osatu duten 223 pertsonetatik, 100 emakumeak izan dira, % 45, eta 123, berriz, gizonak, % 55. 43 hautetsi berriak kenduta, emakumeen portzentajea 2 puntu jaitsi zen, 180 izateraino. 180 pertsonetatik, 77 emakumeak dira, % 43, eta 103, berriz, gizonak, % 57.

### **Legegintzaldi bakarrean egon diren emakume hautetsiak**

- Beren jarduera parlamentarioa legegintzaldi bakarrean garatu duten hautetsiak, hau da, aztertutako aldean beriz hautatuak izan ez direnak, 87 dira, hau da, hautetsi guztien % 48. 87 horietatik, 31 emakumeak dira, % 36, eta 56, berriz, gizonak, % 64. Gizonak emakumeak baino gehiago izatearena hiru barrutietan ageri den joera bat da. Araban eta Bizkaian legegintzaldi bakar baterako hautatutako gizonak emakumeak halako bi dira. Gipuzkoan, berriz, ez da berdin gertatzen. Araban, zenbaki absolutuei erreparatuta, beren parlamentu-jarduna legegintzaldi bakarrean egin duten emakumeen eta gizonen kopuru bera izan da EH BILDUnen kasuan. EAJ-PNV, PSE-EE (PSOE), PP, ARALAR eta EB-Bn, berriz, hori egiten duten gizonen kopurua handiagoa da. Bizkaian, PSE-EE (PSOE) da alderdi bakarra emakume gehiago dituena gizonak baino; EH BILDUn, berriz, kopurua bera da; gainerakoetan, EAJ-PNV, PP, eta EBn, azkenik, gizonen kopurua handiagoa da. Gipuzkoan, EH BILDUn legegintzaldi bakarreko parlamentarioak izan diren emakumeak gehiago dira gizonak baino. PPn eta PSE-EE (PSOE), kopurua bera da bi sexuetan; eta EAJ-PNV eta ARALARren gizonen kopurua handiagoa da.
- Beren jarduera parlamentarioan legegintzaldi bakarrean garatzen duten emakumeak gutxiago dira gizonak baino; egitate hori hiru barrutietan errepikatzen da, baina ez alderdi guztietan. EH BILDU da alderdi bakarra non emakumeak gehiago diren.

### **Bi legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak**

- Bi legegintzalditan egon diren pertsonak 57 dira, guztizkoaren % 32. Emakumeen kopurua txikiagoa da, baina oso alde txikiz. 28 emakume (% 49) eta 29 gizon (% 51). Joera hori hiru barrutietan aurkitzen dugu. Araban, gizonen kopuru handiagoa alde txikiz gertatzen da. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, joera alderantzizkoa da. Araban, bi alderditan, PPn eta EH BILDUn, emakumeen eta gizonen kopurua bera da; EAJ-PNVren kasuan, gizonak gehiago dira, eta PSE-EEren (PSOE) kasuan emakumeak dira gehiago. Bizkaian, PSE-EE (PSOE) emakumeen eta gizonen kopuruak berdina izaten jarraitzen du; PPn, EAJ-PNV eta ARALARren gizonen kopurua handiagoa da; EH BILDUnen kasuan, azkenik, kontrakoa gertatzen da. Gipuzkoan bi legegintzalditan irauten duten emakumeak gizonak baino gehiago diren alderdiak gehiago dira: EAJ-PNV, PP, ARALAR eta EB-B. PSE-EE (PSOE) eta EH BILDUn, ordea, portaera kontrakoa da.
- Termino absolutuetan, emakumeek gutxiago errepikatzen dute gizonek baino, baina pertsona bakar bateko diferentziarekin. Hori ez da hiru barrutietan gertatzen, ez eta alderdi guztietan ere. Erkidego osoari erreparatuta, EAJ-PNV, PSE-EE (PSOE), EH BILDU eta ARALARren bi legegintzalditan irauten duten emakumeen kopurua eta gizonen kopurua bera da. PPn txikiagoa da emakumeen kopurua eta EB-Bn, berriz, handiagoa.

## Hiru legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak

- Hiru legegintzalditan iraun duten pertsonak 20 dira, guztizkoaren % 11. Kasu horretan, joera aldatzen da, eta hiru legegintzalditan irauten duten emakumeen kopurua handiagoa da, 11, % 55, gizonena baino, 9, % 45. Soilik Araban gertatzen da mantentzen diren emakumeen kopuruak ez duela gizonena gainditzen. Kasu honetan, soilik hiru alderditan errepikatzen dute emakume eta gizon hautetsiek. Araban eta Bizkaian, EAJ-PNVn emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa da; Gipuzkoan, berriz, erdibana daude. PSE-EEEn (PSOE) irauten dutenetatik gehiago dira emakumeak gizonak baino Gipuzkoan; Araban, berriz, kontrakoa gertatzen da. PPn, Bizkaian, irauten dutenetatik gehiago dira emakumeak gizonak baino. Gipuzkoan, berriz, kontrakoa gertatzen da.
- Zenbaki absolutuetan, emakumeek gehiago errepikatzen dute gizonek baino, baina egitate hori ez da hiru barrutietan gertatzen, ez eta alderdi guztieta ere.

## Lau legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak

- Lau legegintzalditan iraun duten pertsonak 11 dira, guztizkoaren % 6. 11 horietatik, 5 emakumeak dira, % 45, eta 6, berriz, gizonak, % 55. Kasu honetan, beste behin gertatzen da gizonek gehiago errepikatzen dutela emakumeek baino. Araban eta Bizkaian, errepikatzen duten gizonak emakumeak baino gehiago dira. Gipuzkoan, berriz, emakumeen eta gizonen kopurua bera da. Berriz ere lehengo hiru alderdi berdinatan gertatzen da gizonek ea emakumeek lau legegintzalditan errepikatzen dutela. Araban eta Bizkaian, gehiago dira gizonak emakumeak baino. Gipuzkoan, emakumeen eta gizonen kopuru berak errepikatzen du. EAJ-PNVn, emakumeen eta gizonen kopurua bera da, eta PSE-EEEn (PSOE) eta PPn, berriz, gizonen kopurua handiagoa da emakumeena baino.
- Lau legegintzalditan errepikatzen duten emakumeak gizonak baino gutxiago dira. Soilik Gipuzkoan parekatzen da, eta soilik EAJ-PNVn gertatzen da errepikatzen duten emakumeen kopurua bera dela. PPn eta PSE-EEEn (PSOE), emakumeen kopurua txikiagoa da gizonena baino: 0 dira PPn.

## Bost legegintzalditan egon diren emakume hautetsiak

- Bost legegintzalditan iraun duten pertsonak 4 dira, guztizkoaren % 2. Gizonak gehiago dira emakumeak baino. 4 pertsonetatik, 1, % 25, emakumea da, eta 3, % 75, berriz, gizonak. Kasu horretan, Gipuzkoa da errepikatzen duten pertsonen kopuru handiena duena, 2, eta biak EAJ-PNVkoak dira: bata emakumea da eta bestea gizona. Araban eta Bizkaian gizonek baino ez dute errepikatzen, bana barruti bakotzean, eta biak PPkoak dira.
- Zenbaki absolutuetan, gizonak emakumeak baino gehiago dira; eta gauza bera gertatzen da zenbaki erlatiboetan: % 25 emakumeak dira eta % 75, berriz, gizonak.

## Ondorioak

Datu kuantitatiboei reparatuta atera ditzakegun ondorioak aipagarriak dira, baina aldi berean oso mugatuak. Eskura ez dugun informazio kualitatibo bat eduki beharko genuke. Halere, ondorio batzuk atera ditzakegu:

- Hautetsien artean errepikatzen duten gizonak emakumeak baino gehiago dira.
- Legegintzaldi 1ean, 2tan, 4tan eta 5etan errepikatzen duten emakumeen kopurua nabarmen txikiagoa da gizonena baino. Emakumeek soilik gainditzen dituzte gizonak 3 legegintzalditan errepikatzeko kasuan.

Horrenbestez, jokabidea ez da paritarioa. Azterketa kualitatibo bat eskatzen duen errealtitate bat da. Espekulazio bat eginez, esan genezake publikoaren eta pribatuaren artean dagoen banaketa patriarkalari zor zaiola, bai eta emakumeek alderdi politikoetan betetzen dituzten botere-posizioei ere.

## 2. 4. Ondorioak

EGBLaren eragina bikoitza da. Aplikatzen den lehenengo aldian emakume hautagaien kopuruak nabarmen egiten du gora: % 43tik 2001ean % 53ra 2005ean. Horren arrazoia da EGBELa oraindik ere onetsi gabe zegoela eta Konstituzio Auzitegia epaia eman gabe zegoela EGBLaren ekintza positiboaren aukerari buruz, zeinaren arabera zerrendek «gutxienez ere emakumeen % 50 eduki beharko dituzten seiko tartetan». 2009ko, 2012ko eta 2016ko deialdietan, eta bete beharreko postuen kopurua bakoitia zela ikusita, portzentajeak EGBLak ezarritako % 50ekoa beteko zuen. Hori bai, kasu guztietai hautagaien % 51 emakumeak izan ziren eta % 49 gizonak. Horrenbestez, esan behar dugu EGBLak zalantzak gabe eragin positiboa izan zuela alderdi guztietai, are eragin oso positiboa ere, «berdintasun eragingarriaren» esanahiarekin aplikatu ahal izan zenean. Ordezkaritza lortzen duten alderdien kasuan, eragina askotarikoa da, eta emakume hautagaiak % 49 dira eta gizon hautagaiak % 51: portzentaje horiek kontraesanean daude ordezkaritzak lortzen ez duten alderdietan eta alderdien guztizkoan ikusten dena baino. Barrutie begiratuta, EGBLak eragin handiagoa du Gipuzkoan beste bietan baino, eta azken horien artean eragin handiagoa du Bizkaian Araban baino. EGBELak emakumeen presentziari muga ezartzeko bide gisa balio izan du Eusko Legebiltzarrerako zerrendetan. Emakumeen % 50 seiko tarteetan egotearena nahitaez bete beharreko araua denez, EGBLaren kasuan hautagaietan betetzen duten tokia funtsezko irizpide bilakatzen da legearen eraginkortasuna eta alderdien portaera baloratzeko.

Zerrendaburu diren emakumeen kopuruan izan den bilakaerak hobera egiten du EGBLa onestearekin, nahiz eta haren espirituak bilatzen duen % 50ekotik oso urrun gelditu. 2001ean % 24koa izatetik 2005ean % 28koa izatera pasa zen, lau puntu gora eginda. 2009an, portzentajeak 2001ekoraino jaitsi zen, eta 2012an eta 2016an errekuperatu eta egonkortzen da, ehuneko on batekin, % 38 hain zuzen, nahiz eta % 50era iritsi ez. Deialdien guztizkoan zerrendaburu diren emakumeen portzentajea % 31koa da, % 50etik urrun. Eragina handiagoa da Gipuzkoan Araban baino eta Bizkaian txikiagoa da. Emakume zerrendaburuen portzentajea puntu bat handiagoa da ordezkaritzak lortzen ez duten alderdietan, % 32koa, ordezkaritza lortzen dutenetan baino, % 31.

Esan dezakegu 7. tokiak funtzionatzen duela zerrendaburu batena balitz bezala; hori dela eta, emakumeak, nagusiki, 6. tokian daude, eta gizonak, berriz, 7.ean. Arau horrek ez du intentsitate berarekin funtzionatzen Gipuzkoan, non, 6. eta 7. tokietan sexu bereko pertsonak dituzten zerrenda gehiago aurkezteaz gainera, 7. tokian emakumeen portzentajea eta 6. tokian gizonena ere handiagoa baita. Oro har, alderdi gehienek antzeko emaitzak espero dituzte lurralte guztietai.

Ordezko tokietan doazen emakumeen portzentajeak nabarmen egin zuen gora 2005ean, eta % 58ra iritsi zen; emaitza hori 2009an errepikatu zen, eta 2012an eta 2016an behera egin zuen, % 56ra eta % 54ra, hurrenez hurren. Ordezkaritza lortzen duten alderdietan ageri den eragina ordezkaritzak lortzen ez duten

alderdian ageri den bera da: % 54. Kasu honetan, zalantzak gabekoa da EGBLaren eragin positiboa. Kasu guzietan, ordezko tokietan doazen emakumeen batez besteko portzentajeak titularrena gainditzen du, gutxigatik bada ere.

2005ean, emakume hautetsien kopuruak nabarmen egin zuen gora: 2001ean % 35 izatetik % 52 izatera pasa ziren, beren presentzia % 17 igota. EGBLak lehenengo une horretan bere eraginkortasunik handiena erakutsi zuen, zeren eta 2005ean EAEko historiako lehen legebiltzar paritarioa izatea ekarri baitzuen. 36 gizon eta 39 emakume. 2016ra arte itxaron beharko da fenomeno hori berriz gerta dadin, zeren eta ez 2009an, ez 2012an ez baitzen % 50ra iritsi. % 45 izan zen lehenengo kasuan, emaitza guzietatik txarrena, eta % 48, berriz, bigarrenean, 2005eko emaitza bera baina alderantziz. Deigarri gertatzen da 2016ko emaitza, zeren eta ordura arteko emaitza guztiak positiboki gainditzen baititu: 41 emakume, % 55, eta 34 gizon, % 45. Datu horiek guztiak kontuan hartuta eta EGBLaren eragina positiboki baloratuta, itxaron beharko dugu egiaztatzea ea Eusko Legebiltzarraren parekotasuna egiturazko egitate baten gisara finkatzen den edo, bestela, berdintasunaz beste inguruabar batzuen mende dagoen; esate baterako, alderdi berriak agertzearen mende. Azpimarratu beharra dago emakume hautetsien kopurua jaisten den hauteskundeetan, emakume hautagaien portzentajeari eusten zaiola eta ordezkoak diren emakumeen kopuruak gora egiten duela. Emakume zerrendaburu hautetsiekin aldaketa nabarmen bat gertatzen da 2005ean, baina sekula iritsi gabe EGBLaren % 50era, 2016ko kasuan izan ezik. Batez besteko emaitza da zerrendaburu diren emakume hautetsiak % 31 direla.

Lurralte osoa hartuta alderdi guztiekin emakume hautetsien kopurua handitu badute ere, EGBLaren aplikazioaren ondoren, eragina desberdina da ordezkaritza lortu duten alderdi guzietan. EH BILDUK emakume hautetsien kopuru handiena lortzen du: % 57. PSE-EE (PSOE)ren % 50ekin, EGBLak bilatzen duen % 50ekoa lortzen dute. EAJ-PNV bi puntura gelditzen da, % 48rekin, eta ondotik honako hauetako datoz: PODEMOS-AHAL DUGU, % 44rekin, PP eta ARALAR % 40rekin eta EB-B, % 33rekin. Zerrenda UPyD eta EAk ixten dute, % Orekin. Ordezkari kopuru handiena lortzen duten formazioak sentiberatasun handiagoa dute EGBLaren eragina dela eta ordezkari gutxiago lortzen dituztenen aldean. Salbuespina, PP da, azken horien antzeko ehunekoak lortzen baititu. EGBLaren eraginik handiena Gipuzkoan gertatzen da; izan ere, eragina zentzu berekoa da alderdi guzietan. Guztiekin gora egiten dute 2005ean, baina 2009an joerari EAJ-PNVk baino ez dio eusten, bera baita emakume hautetsien % 50koa gainditzea lortzen duen bakarra. PP eta PSE-EEk (PSOE) gora egin zuten 2005ean, baina berriz ere behera egin zuten 2009an, eta EB-B eta ARALARrek behera egin zuten. 2005eko joerari ez zaio eusten, eta 2016ra arte itxaron beharko da alderdi gehienetan % 50eko portzentajeak aurkitzeko. 2016an, % 50eko portzentajea lortzen da 6 ordezkari edo gehiago lortzen dituzten alderdi guzietan. PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNV dira deialdi batean emakume zerrendaburuak baizik aurkezten ez dituzten alderdi bakarrak. Beste muturrean EH BILDU da deialdi guzietan emakume zerrendaburu gehien aurkezten diuena. Zerrendetako titularren ehunekoak beti handiagoak dira emakume hautetsien ehunekoak baino.

### 3. Gobernu organoak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak «presentzia orekatuaren» printzipioaren aldeko apustua egiten du (ez % 60 baino gehiago, ez % 40 baino gutxiago sexu bakoitzetik). Ez da argi gelditzen arau horren aplikazio-eremua, zeren eta bi interpretazio egon baitaitezke: Gobernua, hertsiki, sailburuek osatzen dute; edo sailburuak ez ezik sailburuordeak eta Gobernuko gainerako karguak ere sartu behar dira. Legeak, zehazki, honako hau dio: Hirugarren xedapen gehigarria (Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen aldaketa). 1. Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean, paragrafo bat gehitzen da 17. artikuluan. Paragrafo hori 2.a izango da eta hala esango du: «2. Jaurlaritzan bi sexuek % 40ko ordezkaritza izango dute, gutxienez». Ikusten den bezala, kasu honetan EGBLak ez du % 50eko presentzia eskatzen.

## **Lehendakaria**

Emakume lehendakarien portzentajea % 0 da. Legegintzaldi guzietan lehendakaria gizonezko bat izan da. 2001, 2005, 2012 eta 2016an EAJ-PNVkoa eta 2009an PSE-EEko (PSOE).

## **Lehendakariordea**

Emakume lehendakariordeen portzentajea % 40koa da 5 hauteskundeak kontuan hartuta. 2001ean eta 2005ean, EAJ-PNVko 2 emakume. EGBLak eskatzen duen gutxienekoa, % 40koa lortzen da.

## **Sailburuak**

Sailburuen zenbateko absolutua legegintzalditik legegintzaldira aldatzen da: aztertzen ari garen legegintzaldietan, honako hauek aurkitu ditugu: 13, 2001ean; 11, 2005ean, 10, 2009an; 9, 2012an, eta 11 2016an. 2005ean % 31tik % 45era pasatzen da, EGBLaren eragin positibo argiarekin. 2009an baizik ez da lortzen emakume sailburuak % 50 izatea; eta 2012an eta 2016an portzentajea % 45koaren inguruan mantentzen da. 2001ean, Jaurlaritza hiru alderdiek osatzen zuten, eta hiruetako bakarra ere ez zen iristen % 40ra (EA eta EAJ-PNV % 33 eta EB-B % 0). 2005ean, hiru alderdiren Jaurlaritzari eusten zaio, eta % 40ekora iristen den bakarra EAJ-PNV da, % 57rekin. EA eta EB-Bk portzentajeak errepikatu zituzten. 2009an, PSE-EE (PSOE) buru zuen Jaurlaritza alderdi bakarrarena da, eta % 50era iristen da. Azkenik, 2016an, EAJ-PNVk eta PSE-EEk (PSOE) osatutako bi alderdiren Jaurlaritza guztira % 45era iristen da, baina alderdiei begiratuta soilik EAJ-PNVk, % 50ekin, gainditzen du EGBLak eskatzen duen % 40eko muga, eta PSE-EE (PSOE) % 33ra iristen da. Behin-behineko ondorioa da, datu askok abalatua, botere-tarte zabalak dituztenean, alderdiek parekotasunerako sentiberatasun handiagoa dutela botere-tarte txikiak dituztenean baino. Alderdi baten boterea gutxitzen denean, emakumeen ehunekoak ere behera egiten dut.

## **Sailburuak eta sailburuordeak**

- Sailburuordeen zenbateko absolutua, sailburuena bezala, aldakorra da, baina neurri handiagoan: 2001ean beheranzko joera du, eta 2009an, berriz, goranzkoa. 2005ean 9 jaisten dira, eta 2001ean 43 izatetik 2005ean 34 izatera pasatzen dira. 2009an, 11 gehiago daude 2005ean baino eta 2 gehiago 2001ean baino. 2012an, 14 gutxiago daude 2009an baino, 3 gutxiago 2005ean baino eta 12 gutxiago 2001ean baino. Joera 2016an finkatu da: 28 izan dira, sailburu gutxien dagoen legegintzaldia.
- 2001ko hirukoak % 19ko portzentajea ematen du, 8 emakume sailburuorderekin eta 35 gizon sailburuorderekin. EAk portzentaje onena du, % 26, eta EB-B, berriz txarrena, % 0; EAJ-PNVk % 14 lortzen du. 2005ean, hiruko berak, emakume sailburu bat gutxiago dituela (7), % 21 apal batera iristen da, EGBLak aipatzen duen % 40tik oso urrun. EA eta EAJ-PNVk portzentajea hobetzen dute, % 33rekin lehenengoa eta % 17rekin bigarrena. EB-Bk % Okoari eusten dio. 2009an, PSE-EEren (PSOE) 15 emakume sailburuordekin, % 33ra iritsi zen, orduan ere EGBLak ezarritako % 40tik urrun. 2012an, EAJ-PNVren kolore bakarreko gobernu batekin eta 9 emakume sailburuorderekin, gauzek ez dute hobera egiten, zeren eta % 29ra iritsita 4 puntu behera egiten baita. Azkenik, 2016an, bi alderdiren gobernu batekin eta 12 emakume eta 16 gizonekin % 43ra iristen da, EGBLak eskatutako % 40koa betez. EAJ-PNVko % 36 eta PSE-EEko (PSOE) % 67.

## 4. Ahaldunak, artekariak eta administratzaileak

Azterketaren atal hau berritzalea da, zeren eta EGBLak arautzen ez duen arren, gure ustez, alderdiek hauteskunde prozesuetan duten garrantzia ikusita, emakumeek hauteskunde-prozesuetan duten parte-hartze soziopolitikoaren beste adierazle bat gehiago baita. Adierazle horiekin, zehaztasun handiagoz hurbil gaitezke errealityate batera: emakumeen presentzia alderdi politikoen ohiko funtzionamenduan, horien jarduera garrantzitsuenetako batean: hauteskundeak. Hiru figura horietatik, lehenengo biak [Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen](#) 92. artikulutik 96 artikulura araututa daude, eta hirugarrena 138. artikulutik 150. artikulura arautzen da. Honako hau da hiru figura horiek hauteskunde-prozesuan duten eginkizuna:

Alderdiek administratzaile orokorrak izendatzen dituzte, eta horiek erantzungsotzat dute Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzarraren aurrean alderdiek hauteskundeak direla-eta izan dituzten diru-sarrerei buruz eta egin dituzten gastuei buruz, bai eta horien kontabilitateari buruz ere. Halaber, hauteskunde-ekitaldi eta operazioetan hautagai-zerrendak ordezkatzen dituzten ahaldunak izendatzen dituzte. Era berean, artekariak izendatzen dituzte, eta hauteskunde-mahai bakoitzeko bi bitarte izenda ditzakete. Hauteskundeen garapen eta boto-kontaketa zuzenak zaintzen dituzte.

Ahaldunek honako hauek egin ditzakete: a) Libreki sartu hauteskunde-lokal guztieta; b) Boto-operazioen eta boto-kontaketen garapena aztertu; c) Erreklamazio eta protestak egin; d) Hauteskunde-legeetan aurreikusitako ziurtagiriak eskatu, eta mahaiaren eraketa-aktaren kopia eskatu. Gainera, hautagai-zerrendako artekaririk ez badago, mahaiaren eztabaideetan parte hartu dezakete, ahotsarekin baina botorik gabe.

Artekariek esleitura daukaten mahaian jarduteko ahalmena dute. Ez dira mahai horretako kideak, baina haren eratzean parte har dezakete eta haren akta sina dezakete.

Ahaldunen kasuan, 2016ko hauteskunde autonomikoetako datuak hartu ditugu, eta artekarien kasuan, berriz, azken bost hauteskunde-prozesuetako (2001etik 2016ra) datuak.

### 4. 1. Ahaldunak

#### Eusko Legebiltzarrerako 2016ko hauteskundeetako emakume ahaldunak

##### Araba / Álava

- Hauteskundeetan parte hartu duten emakumeen portzentajea % 37koa da. Ez da Jaurlaritzari eskatzen zaion % 40kora iristen, ez eta zerrenden osaketan eskatzen den % 50ekora ere.
- Ordezkaritza duten alderdiek portzentaje handiagoa dute: % 38, % 40tik oso hurbil; ordezkaritzarik lortu ez duten alderdiek, berriz, % 24 dute. Ordezkaritza lortzen duten alderdien artean, portzentaje onena

dutenak EH BILDU, EAJ-PNV eta PODEMOS/AHAL DUGU-IU dira, % 39rekin; ondotik PP dator, % 36rekin, eta, azkenik, PSE-EE (PSOE), % 33rekin. Ordezkaritza lortzen ez duten alderdien artean, aipatu beharra dago PACMA/ATTKA, % 80rekin, portzentaje handiena duena, eta C'S, berriz, % 18rekin, txikienna.

- Barrutiz barruti, Arabak (% 37) portzentaje txikiagoa du Bizkaiak (% 41) eta Gipuzkoak (% 40) baino eta Erkidegoaren osotasunak (% 40) baino, bai ordezkaritza lortzen duten alderdiei begiratuta (% 38), bai ordezkaritza lortzen ez dutenei begiratuta ere (% 24).

## Bizkaia

- Alderdi guztiako emakumeen portzentajea % 41 da, gobernuari eskatzen zaion % 40tik gorakoa, baina % 50era iritsi gabe.
- Araban ez bezala, Bizkaian ordezkaritza duten alderdi guztiak portzentaje txikiagoa lortzen dute, % 41, ordezkaritzarik ez duten alderdiek baino (% 46ra iristen dira). Ordezkaritza lortzen duten alderdien artean, portzentaje onena lortzen dutenak EH BILDU eta PP dira, % 45ekin eta % 43rekin, hurrenez hurren; ondotik datozi PSE-EE (PSOE), EAJ-PNV eta PODEMOS-AHAL DUGU, % 39, % 38 eta % 37rekin. Ordezkaritzarik gabeko alderdien artean, Araban bezala, PACMA/ATTKA alderdiak du portzentaje handiena, % 79rekin eta C'S, berriz, txikienna, % 29rekin.
- Barrutiz barruti, Bizkaiak (% 41) portzentaje handiagoak lortzen ditu Arabak (% 37) eta Gipuzkoak (% 40) baino eta Erkidegoaren osotasunak (% 40) baino, bai ordezkaritza lortzen duten alderdiei begiratuta (% 41), bai ordezkaritza lortzen ez dutenei begiratuta ere (% 46).

## Gipuzkoa

- Alderdi guztiako emakumeen portzentajea % 40 da, gobernuari eskatzen zaion % 40koa lortuz, baina zerrenden osaketan eskatzen den % 50era iritsi gabe.
- Ordezkaritza lortzen duten alderdiek portzentaje txikiagoa dute, % 40, ordezkaritza lortzen duten alderdiek, % 42, baino. Bizkaian bezala, ordezkaritza lortzen duten alderdien artean, portzentaje onena ematen dutenak PP eta EH BILDU dira, % 46rekin eta % 43rekin, hurrenez hurren. Ondotik, EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) datozi, % 36rekin eta % 33rekin, hurrenez hurren. PODEMOS-AHAL DUGU, % 33rekin, Bizkaian bezala, portzentaje txikienna lortzen du. Ordezkaritzarik ez duten alderdien artean, portzentaje onena lortzen duena RECORTES CERO-GV da (% 83); ondotik PACMA/ATTKA (% 60) dator, eta Araban eta Bizkaian bezalaxe, C'S, portzentaje txikienarekin, % 25ekin.
- Lurraldez lurralde, Gipuzkoak (% 40) portzentaje txikiagoa du Bizkaiak (% 41) baino; halere, handiagoa da Arabakoa (% 37) baino eta erkidegoaren osotasunarenaren (% 40) berdina da. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portzentajea (% 40) erkidego osoarena bezalakoa da (% 40), eta Araban (% 38) eta Bizkaian (% 41) lortzen dena baino txikiagoa. Ordezkaritzarik gabeko alderdietan, beste bi barrutietako portzentajeak gainditzen dira.

## **Euskal Autonomia Erkidegoa**

- Hauteskundeetara aurkezta diren alderdi guzietako ahaldunen portzentajea % 40koa da. Gobernuari eskatzen zaion % 40koa lortzen da, baina zerrenden osaketa den % 50era iritsi gabe.
- Ordezkaritza lortzen duten alderdiek portzentaje handiagoa lortzen dute, % 40, ordezkaritza lortzen ez duten alderdiek, % 38, baino. Ordezkaritza lortzen duten alderdien artean, portzentaje onena lortzen dutenak EH BILDU eta PP dira, % 43rekin eta % 42rekin, hurrenez hurren; ondotik datozi PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNV, % 37rekin, eta PODEMOS-AHAL DUGU, % 36rekin. Ordezkaritza lortzen ez duten alderdien artean, PACMA/ATTKAK du portzentaje handiena, % 74rekin, eta C'Sk, berriz, txikiena, % 23rekin.

## **4. 2. Artekariak**

Aipatu beharra dago portzentajeek alderdi beraren barruko emakumeen eta gizonen erlazioa islatzen dutela. Beti aipatuko dugu artekarien guztizkoan emakumeek zein portzentaje egiten duten, parte hartzen dutenen zenbateko absolutua zein den alde batera utzita. Gerta daiteke alderdi batek emakumeen % 100 aurkeztea zenbaki erlatiboetan, baina zenbaki absolutuetan artekari bakarra izatea; izan ere, horrelaxe gertatzen da.

### **Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako emakume artekariak**

#### **Araba /Álava**

- Emakume artekarien portzentajea, hauteskunde guzietan, 2005ekoetan izan ezik (% 39), EGBLak gobernurako eskatutakoa (% 40) gainditzen du, baina ez da % 50era iristen. Portzentajeak zorrotz errepikatzen dira ordezkaritza lortu duten alderdien guztizkoan. Aitzitik, ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdien portzentajeak % 28ra iristen dira 2009an, baina ez dute beste inolakorik lortzen gainerako lauetan.
- EB-B, ARALAR, PODEMOS-AHAL DUGU eta UPyDren portzentajea % 0 da aurkezten diren hauteskundeetan. EAJ-PNV, PSE-EE (PSOE) eta PPk artekariak lortzen dituzte bost hauteskundeetan, PP portzentaje handienekin (% 56, 54, 50, 53 eta 47); ondotik datozi PSE-EE (PSOE) (% 36, 37, 41, 41 eta 53) eta EAJ-PNV (% 38, 33, 36, 34 eta 35). EH BILDUk emakume artekariak dauzka bi hauteskundetan, 2001koan eta 2016koan (% 36 eta 67) eta bakarra ere ez beste bietan (2005 eta 2012). Ordezkaritzarik gabeko alderdiek, EA kenduta, % 28rekin, ez dute emakume artekaririk.
- Ordezkaritza duten alderdien guztizkoaren batez besteko portzentajea % 40 ingurukoa da; ordezkaritzarik ez duten alderdien, berriz, % 0 ingurukoa.

#### **Bizkaia**

- Emakume artekarien portzentajea, hauteskunde guzietan, 2005ekoetan izan ezik (% 39), EGBLak gobernurako eskatutakoa (% 40) gainditzen du, baina ez da hauteskunde-zerrenden osaketa

eskatzen den % 50era iristen. Portzentajeak zorrotz errepikatzen dira ordezkaritza lortu duten alderdien guztizkoan. Aitzitik, ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdien portzentajea % 35ekoa da 2009an, eta ez dago emakume artekaririk batera gainerako lau hauteskundeetan. Arabako eta Bizkaiko emaitzak ia berak dira, baina Bizkaia puntu bat gutxiago du 2001ean eta 2012an, eta puntu bat gehiago, berriz, 2016an.

- ARALAR da artekaririk ez duen alderdi bakarra. PP da portzentaje handiena lortzen duena: % 60 eta 70 inguru. Ondotik, PODEMOS-AHAL DUGU, EAJ-PNV eta EH BILDU dato, % 40 eta 50 bitarterekin. Gero PSE-EE (PSOE) dator, % 30 eta 40 bitarteko portzentajearekin, eta azkenik, EB-B, % 20 ingururekin. Araban bezala, ordezkaritzarik ez duten alderdiek ez dute emakume artekaririk, salbu eta UPyDk (% 50 2009an) eta EA (% 35 hauteskunde berean).
- Araban bezala, ordezkaritza duten alderdiek % 40 inguru dute, eta erregistrorik onena 2016koa da, % 43rekin. % 0 inguruko portzentajea errepikatzen da ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdietan (2009ko % 35ekoa kenduta).

## Gipuzkoa

- 2016koetan izan ezik (% 42), emakume artekarien portzentajea hauteskunde guzietan ez da iristen EGBLak gobernuaren osaketarako eskatzen duen % 40ra, ez eta zerrenden osaketarako eskatzen duen % 50era ere; izan ere, % 35 ingurukoa da. Portzentajeak zorrotz errepikatzen dira ordezkaritza lortu duten alderdien guztizkoan. Aitzitik, ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdiek ez dute emakume artekaririk. Gipuzkoako portaera oso antzekoa da ordezkaritzarik ez duten alderdietan, baina ez ordezkaritza lortzen dutenetan.
- PODEMOS-AHAL DUGU, artekari bakarrarekin, %100era iristen da. PP eta EB-Bk % 0 eta 70 bitarte du. EH BILDUk % 40 eta 60 bitarte, EAJ-PNV eta EAk % 30 eta 40 bitarte eta PSE-EEk (PSOE) % 20 eta 40 bitarte. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portaera oso desberdina da. Aitzitik, ordezkaritza lortzen ez dutenek portzentaje uniformea lortzen dute; emakume artekarien % 0.

## Euskal Autonomia Erkidegoa

- Aurkeztu diren alderdien guztizkoan, emakume artekarien portzentajea % 40tik gorakoa da 2009, 2012 eta 2016ko hauteskundeetan; ez, ordea, 2005ekoetan. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portaera bat dator alderdien guztizkorako aztertutakoarekin, baina ez ordezkaritza lortzen ez duten alderdien kasuan; izan ere, 2009an izan ezik, % 34rekin, % 0ko portzentajea dute beti.
- ARALARrek du urkila zabalena, % 0 eta 70 bitarteko; PODEMOS-AHAL DUGUren emakume artekariak % 60 dira 2016an; PPk % 50 eta 60 bitarteko batez bestekoa du; EH BILDUk % 40 eta 50 bitarte; EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE) % 30 eta 40 bitarte; EAk% 31, eta UPyDk % 0.

#### **4. 3. Administratzaileak**

##### **Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako emakume administratzaileak**

###### **Euskal Autonomia Erkidegoa:**

- 2001ean, hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi guztiak portzentajea % 30ekoa da. EGBLa aplikatu ondoren, 2005ean portzentajeak behera egiten du, % 18ra arte. 2009an, portzentajeak behera egiten jarraitzen du, % 15eraino. 2009an, aldaketa bat gertatzen da, % 38rekin, baina 2016an ez zaio eusten (% 31). Oro har, portzentajeak oso urrun daude EGBLak aipatzen dituenetatik; horrenbestez, ezin da esan eragina positiboa izan denik.
- Ordezkaritza lortzen duten alderdiek portzentaje handiagoa lortzen dute bost hauteskundetatik lautan: 2001ean, % 40; 2009an, % 17, eta 2012an eta 2016an, % 40. Portzentaje txikiagoa lortzen dute, ordea, 2005ean, % Orekin: urte horrexetan aplikatu zen EGBLa lehenengo aldiz.
- EA, PP, EAJ-PNV eta UPyD dira ordezkaritza lortuta bost hauteskundeetako bakarrean ere emakume administratzaile bat izan ez dutenak; gauza bera gertatzen da PODEMOS-AHAL DUGUREkin aurkeztu den hauteskunde bakarrean. EB-Bk % 33 lortzen du, PSE-EEk (PSOE) % 40 eta ARALAR eta EH BILDUK % 50. Hauteskundeen guztizkoan, alderdi horietan emakume administratzaileak % 31 izan dira.
- Ordezkaritzarik lortzen ez duten 25 alderditan, 7k baizik ez dute emakume administratzaile bat izan behin edo behin; C'Sk 2016an; IU-VERDES-EZKER ANITZAk 2012an; ONGI ETORRIk 2012an eta 2016an; PACMA/ATTKAK 2016an; ALDERDI KARLISTAK 2005ean; PARTIDO HUMANISTAk 2001ean eta 2005ean; POSIk 2009an eta PYCk 2012an.

#### **4. 4. Ondorioak**

- Ahaldunen kasuan soilik 2016ko hauteskundeetako datuak kontatu ditugun arren, eta artekarien kasuan, berriz, azken 5 prozesuetakoak, egiaztatu dugu bi figura horiek portaera nahiko antzekoa dutela. Emakume ahaldunak eta artekariak ez dira deialdi bakarrean ere iristen, ez eta lurralte bakarrean ere, EGBLaren % 50era. Batzueta, EGBELaren gutxienekora, % 40ra iristen dira, edo horren inguruan gelditzen dira.
- Soilik Arabako kasuan gertatzen da emakume ahaldunen eta artekarien portzentajea handiagoa dela ordezkaritza duten alderditan ordezkaritzarik ez dutenetan baino. Gipuzkoan eta Bizkaian portaera kontrakoa da.
- Ordezkaritza lortzen duten alderdi guztiak portaera nahiko antzekoa da: emakume ahaldunen eta artekarien % 33 eta 39 bitarteko urkilan daude. Deigarri gertatzen da ordezkaritzarik ez duten alderditan emakume ahaldun eta artekarien portzentaje handiena duena, % 80koa, animalien eskubideen defentsarekin lotutako bat izatea, PACMA/ATTKA, eta portzentaje txikiena, berriz, alderdi berrietako bat, C's, % 20 ingururekin.

- Emakume administratzaileen datuek erakusten dituzte portzentaje txarrenak. Hauteskunde bakarrean ere ez dira iristen EGBLaren % 50era, ez eta EGBELaren % 40ra ere. Portzentaje txarrenetako bat, % 18koa, 2005ean lortu zen, EGBLa lehen aldiz aplikatu zen urtean: % Ora iritsi zen ordezkaritza lortu zuten alderdien artean.
- Alderdi batzuek sekula ez dute izan emakume administratzaile bat, bai ordezkaritza lortzen dutenen artean, bai lortzen ez dutenen artean ere. Datu hori oso aipagarria da eta garrantzi sinboliko eta material handikoa, zeren eta sakondu egiten baitu alderdi politikoen barruko sexuan oinarritutako rolen araberako banaketan, emakumeak urrun utzita gure egungo ordezkaritza-demokrazien funtzionamenduan eginkizun ekonomiko hain erabakigarria jokatzen duten figureetatik.

## V. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIAK

EAEk egitura instituzional berekia dauka, zeinean atzar Nagusia aurkitzen ditugun<sup>29</sup>.

Batzar Nagusien eginkizunak *Lurralde-parlamentuen* eginkizunetatik hurbil daude, zeren eta lurralteko bakoitzeko herritarren ordezkaritzarako eta parte-hartzerako organo goren gisa eratzen baitira, eta ahalmena baitute *foru arauak eta erregelamenduak* onesteko. Aldundiek eginkizun exekutiboa betetzen dute, hau da, lurralteko gobernuaren.

### 1. Hauteskundeei buruzko araudia:

Batzar Nagusietarako hauteskundeak arautzen dituen araua [Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea](#) da, gaur egun indarrean dagoena. Batzar nagusi bakoitzean 51 ordezkari egongo dira. Bozketa orokor, aske, zuzeneko eta isilpeko bidez hautatuko dira, lau urterako, eta hauteskunde-barruti bakoitzaren ordezkaritza proporcionalaren printzipioari jarraituz; kasu honetan, eskualde-eremua du ordezkaritza horrek.

Batzar Nagusietarako hauteskundeen deialdia ahaldun nagusiek egiten dute, udal hauteskundeen data eta epe berdinak ezarri. Batzar Nagusietarako hauteskundeen deialdiaren dekretuak berekin dakar batzarkideen agintaldia amaitzea, ezertan kendu gabe batzorde iraunkorrak bere eginkizunak lutzatzea, batzar nagusi berriak eratu bitarte.

Hauteskunde horietara aurkezten diren hautagai-zerrendek beste hauteskunde batzuetarako eskatzen diren baldintza berak bete beharko dituzte, hain zuzen ere [Hauteskunde Araubide orokorrari buruzko Lege Organikoak ezarritakoak](#).

### 2. Lurralde historikoetako hauteskunde-barrutiak

- **GIPUZKOA:** Gipuzkoako Lurralde Historikoak 4 barruti dauzka hauteskunde-eraginetarako: «*Donostialdea*»<sup>30</sup>, «*Bidasoa-Oiartzun*»<sup>31</sup>, «*Oria*»<sup>32</sup>, eta «*Deba-Urola*»<sup>33</sup>.

<sup>29</sup>Euskal Autonomia Erkidegoaren eredu konfederala definitzen duten arauak, zeinetan harmonizatzen baitira hura osatzen duten hiru herrialde historikoen —Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa— arteko berdintasun-printzipioa eta haren nortasunaren errespetua, honakoak dira: [Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Legea](#), 1979ko Gernikako Autonomia Estatutua bezala ezagutzen dena, zeinean berresten baita hiru euskal lurralteek beren burua antolatzeko daukaten ahalmena eta aitortzen baita, 37. artikuluan, zein diren lurralte historikoen eskumen osoko esparruak; eta Lurralde Historikoen Legea. Azken horretan, Euskadiko erakunde komunen eta foru organoen arteko harremanak arautzen dira.

<sup>30</sup>Honako udal hauak osatzen dute: Astigarraga, Donostia-San Sebastián, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil.

<sup>31</sup>Honako udal hauak osatzen dute: Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun, Pasai, Errerteria.

<sup>32</sup>Honako udal hauak osatzen dute: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzaga, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Arama, Asteasu, Ataun, Baliarrain, Beasain, Belauntza Berastegi, Berrobi, Elduain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Iraztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu, Legazpi, Legorreta, Lizartza, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Orendain, Orexa, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Urretxu, Villabona, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zizurkil, Zumarraga.

<sup>33</sup>Honako udal hauak osatzen dute: Aia, Aizarnazabal, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate/Mondragón, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bergara, Bidania-Goiatz, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Errezil, Eskoriatza, Getaria, Leintz-Gatzaga, Mendaro, Mutriku, Oñati, Orio, Soraluze-Placencia de las Armas, Zarautz, Zestoa, Zumaia.

- BIZKAIA: Bizkaiko Lurralde Historikoak 4 barruti dauzka hauteskunde-eraginetarako: «*Enkarterriak*»<sup>34</sup>, «*Bilbo*»<sup>35</sup>, «*Durango-Arratia*»<sup>36</sup>, eta «*Busturia-Uribe*»<sup>37</sup>.
- ARABA/ÁLAVA: Arabako Lurralde Historikoak 3 barruti dauzka hauteskunde-ondorioetarako, eta horietan banatzen dira 7 kuadrillak: «*Aiara/Ayala*»<sup>38</sup>, «*Zuya, Salvatierra, Añana, Campezo eta Laguardia*»<sup>39</sup> eta «*Vitoria-Gasteiz*»<sup>40</sup>.

Barruti bakoitzak batzarkideen kopuru bat dauka esleituta, bere biztanleriaren arabera, eta hauteskundeetarako deialdiaren dekretuan ezartzen da.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan gertatzen den bezala, hauteskunde-berdintasunaren arloan nagusitzen den araua ez da **EGBELa**, horixe argitu baitzuen **Hauteskunde Batzorde Nagusiaren apirilaren 12ko 5/2007 Instrukzioak**, baizik eta **EGBLa**. Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, EGBLa 2007ko maiatzaren 27an aplikatu zen lehenengo aldiz, bere jatorrizko araugintza-edukiarekin, zeren eta EGBELa jada indarrean sartua bazen ere, Konstituzio Auzitegiak 2009ra arte ez baitzuen epaia eman. 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeetan eta 2015eko maiatzaren 24koetan, arauaren araugintza-norainokoa murriztuta geratuko da emakumeen aldeko «ekintza positibo» bat aplikatzeko aukerari dagokionez<sup>41</sup>.

Azterketak lurrealde historikoetako hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi guztiak hartzen ditu, baina honako berezitasun haukin: Alderdiak legez kanpo uzteak eragindako sigla-dantzaren, hauteskunde-koalizio konplexuen eta presentzia nabarmena izan duten beste alderdi batzuk agertzearen eta desagertzearen ondorioz, emaitzen ondorioak bi kasuren arabera jaso ditu azterketa honek. Batetik, bakartzat hartuko dira, batetik, EAJ-PNV eta EAJ-PNV/EA eta, bestetik, EH, EAE-ANV eta EH BILDU. Lehenengo kasuan, EAJ-PNV aipatuko dugu; bigarrenean, berriz, EH BILDU.

Lehenago esan dugun bezala, azken hauteskundeko eta onetsi ondoko hauteskunde guztiak datuak kontuan hartzeak aukera mean du lan honen ekarpen berritzaleenetako bat egiteko: Egiaztatzea ea EGBLaren ezarpena lagungarri gertatzen den emakumeek erabaki-postuetan daukaten presentziak joera egonkorra, denboran irauten duena, bihur dadin, eta bilaka dadin egiturazko izaera duen errealtitatea. Dakigun bezala, araua hitzez hitz bete daiteke haren espiritua bete gabe. EGBLaren kasuan «berdintasun eragingarria» lortzea da

<sup>34</sup> Honako udal hauek osatzen dute: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Barakaldo, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lanestosa, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zalla, Zierbena.

<sup>35</sup>Bilbok osatua. ,

<sup>36</sup>Honako udal hauek osatzen dute: Abadiño, Amorebieta-Etxano, Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Artea, Atxondo, Basauri, Bedia, Berrioz, Dima, Durango, Elorrio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Garai, Igorre, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mallabia, Mañaria, Orozko, Otxandio, Ubide, Ugao-Miraballes, Urduña/Orduña, Zaldibar, Zarautz, Zeberio.

<sup>37</sup>Honako udal hauek osatzen dute: Ajangiz, Amoroto, Arratzu, Arrieta, Aulesti, Bakio, Barrika, Berango, Bermeo, Berriatua, Busturia, Derio, Ea, Elantxobe, Erandio, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Getxo, Gizaburuaga, Gorliz, Ibarrangelu, Ispaster, Kortezubi, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Lezama, Lekeitio, Lemoiz, Loiu, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mendaro, Mendexa, Meñaka, Morga, Mundaka, Mungia, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Ondarroa, Plentzia, Sondika, Sopela, Sukarrieta, Urduliz, Zamudio, Ziortza-Bolibar.

<sup>38</sup>Aiarako kuadrillak osatzen duenak honako udal hauek hartzen ditu: Ayala / Aiara, Artziniega, Okondo, Amurrio eta Laudio/ Llodio.

<sup>39</sup>Zuyako Kuadrilla honako udal hauek osatzen dute: Zuia, Urkabustaiz, Zigoitia, Legutio eta Aramaio. Salvatierrako kuadrilla, honako udal hauek osatzen dute: Salvatierra / Agurain, Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna , Asparrena, Arrazua-Ubarrundia, Elburgo / Burgelu, San Millán / Donemiliaga, Zaldunondo eta Barrundia. Laguardiako kuadrilla, honako udal hauek osatzen dute: Laguardia, Samaniego, Leza, Baños de Ebro /Mañueta, Villabuena de Álava / Eskuernaga, Navaridas, Elciego, Labastida / Bastida, Lanciego / Lantziego, Lapuebla de Labarca, Elvillar / Bilar, Kripa, Yécora / Iekora, Oyón - Oion eta Moreda de Álava / Moreda Araba. Campezoko kuadrilla, honako udal hauek osatzen dute: Campezo / Kanpezu, Arraia-MaeztuHarana / Valle de Arana, Bernedo, Lagrón, eta Peñacerrada-Urizaharra. Añanako kuadrilla, honako udal hauek osatzen dute: Añana, Valdegovia / Gaubea, Lantarón, Erribera Goitía /Ribera Alta, Ribera Baja / Erribera Beitia, Iruña Oka / Iruña de Oca, C Kuartango, Zambrana, Berantevilla eta Armiñón.

<sup>40</sup>Honako udal honek osatua: Vitoria-Gasteiz.

<sup>41</sup>Aurrez azaldu dugun bezala.

## VI. ARABAKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK

### 1. Sarrera

Arabako Lurrarde Historikoaren Batzar Nagusietarako Hauteskundeak direla eta, haren hiru barrutien azterketa egingo dugu: Vitoria-Gasteizko barrutia, 38 ordezkariarekin, Aiara/Ayalakoa, 6 ordezkariarekin, eta Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardiakoa, 7 ordezkariarekin. Zehaztu beharra dago hauteskunde-deialdi desberdinetan ([2003ko maiatzaren 25eko](#), [2007ko maiatzaren 27koa](#), [2011ko maiatzaren 22koa](#) eta [2015eko maiatzaren 24koa](#)) aldaketa txikiak gertatu direla barruti bakoitzaren ordezkarien kopuruari dagokionez

### 2. Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeak

#### 2. 1. Hauteskunde-zerrendak

##### Emakume hautagaiak

###### Vitoria-Gasteiz

2007, 2011 eta 2015eko hiru deialdietan bete beharreko postuak 38 dira; 2003koan, berriz, 39 dira. Hautagaien kopurua 2003an % 39 izatetik 2007an % 52 izatera pasa da; 2011n % 50 jaitsi da, eta 2015ean puntu bat errekuperatu da. Oro har, ordezkaritza lortzen duten alderdiek ordezkartzarik lortzen ez dutenen modu berean jokatzen dute, salbu eta 2007an, urte horretan portaerarik txarrena izan baitute. Nolanahi ere, eta 2007ko hauteskundeen % 0a kenduta ordezkaritza lortzen ez duten alderdian, gainerako kasuetan EGBLak bilatzen duen % 50ekoa lortzen da. 2007ko zerrendetan betetzen duten tokiari dagokionez, horietan inongo alderdik ez baitzuen emakume zerrendabururik aurkeztu, posizioak hobera egin du hauteskunde guztiengandik: % 25 2011n eta % 33 2015ean. 2007an, zerrenda baten buru inongo emakume ez badago ere, bi aurkitzen ditugu bigarren tokian, 4 hirugarrenean eta 5 laugarrenean. Ordezkaritza lortzen duten alderdien eta ordezkaritza lortzen ez duten alderdien portaera antzekoa da, baina gorabeheratsua. Oro har, esan dezakegu EGBLak eragin positibo eta jarraitua izan duela.

###### Aiara/Ayala

6 dira 4 deialdietan bete beharreko postuak. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 36 izatetik 2007an % 60 izatera pasa zen; portzentaje hori, ordea, nabarmen jaisten da 2011n, % 52ra, eta 2015ean, berriz, eutsi egiten zaio. EGBLaren eragin argia ikus dezakegu alderdi guztiengandik. Eragin positiboena ordezkaritza lortzen duten alderdien ikusten dugu. Betetzen duten tokiari dagokionez, aipatu beharra dago EGBLaren eragina deuseza dela. Emakume bat bera ere ez da zerrendaburu ageri 2007an; 2003an, ordea, % 50 izan dira alderdien guztizkoan; ordezkartzarik lortu ez duten alderdien, gainera, % 67 dira. 2011n, egoerak hobera egiten dut, eta ordezkaritza lortzen duten alderdien emakume zerrendaburuak % 33 dira; 2015ean, berriz, portzentaje horri eusten zaio. Zalantzarik gabe, EGBLaren eragina argia da, baina ezin da ondorioztatu positiboa ala negatiboa den.

## **Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardia**

2007, 2011 eta 2015eko hiru deialdietan bete beharreko postuak 7 dira; 2003koan, berriz, 6 dira. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 14 izatetik 2007an % 47 izatera pasa da; 2011n, ehuneko horri eusten zaio eta % 52raino igotzen da 2015an. Ikusten dugu EGBLak eragin argia izan duela barruti horretan, zeren eta emakumeen portzentajea igo ez ezik EGBLaren % 50era doitzen baita. Oraingoan ere, ordezkaritza lortzen duten alderdiek ordezkaritza lortzen ez dutenek baino portaera positiboagoa dute. 2003an % 11 izatetik 2007an % 50 izatera pasatzen dira; 2011n, 4 puntu jaisten dira, eta 2015ean, berriz, gora egiten dute % 54raino. Betetzen duten tokiarri dagokionez, posizioa ondoz ondo hobetzen doa. 2003an zerrendaburu den emakume bakarra ere ez dago, baina 2007an % 14 lortzen da, eta 2011n % 43raino igotzen da; 2015ean, azkenik, % 25eraino jaisten da. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago ordezkaritza lortzen duten alderietan eragina nabarmen positiboagoa dela, zeren eta 2003ko % 0tik 2007ko % 25era eta 2011ko % 50era pasatzen baita, eta 2015ean azken horri eusten baitzaio. EGBLak alderdien guztizkoan izan duen eragin txikiaren arrazoia ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdien datuetan dago. 2003an, emakume hautagaien kopuruak ez zuen betetzen EGBLaren % 50koarekin; 2007an eta 2011n, % 47rekin, ez da iristen EGBLaren % 50era (hautagai-zerrenden zenbateko bakoitia dela-eta alderantziz ere izan zitekeen), eta 2015ean % 50era iristen da, % 52 lortzen baita. Alderdi guztietan, ordezkaritza lortzen duten alderdiek ordezkaritza lortzen ez dutenek baino portaera positiboagoa dute. EGBLaren eragina positiboa da.

## **Araba/Álavako Lurralde Historikoa**

Arabako osotasunean EGBLaren eragina positiboa da, zeren eta 2003ko % 36tik, 2007ko eta 2011ko % 50era eta 2015eko % 51ra iristen baita.

## **Zerrendaburu diren emakume hautagaiak**

### **Vitoria-Gasteiz**

2003an, zerrendaburua den emakume bakarra dago, eta ez zuen ordezkaritzarik lortu. 2007an, bakarra ere ez zen egon; horrek aukera emango luke esateko EGBLak ez duela eragin positiborik izan; baina 2011n, bi emakume daude ordezkaritza lortzen duten bi alderdiren zerrendetako buru, eta 2015ean, berriz, hiru dira, nahiz eta horietako bat ordezkaritzarik lortzen ez duen zerrenda batean egon. Horrenbestez, EGBLaren eragina positiboa izan da.

### **Aiara/Ayala**

2003an, hiru alderdiren zerrenden buruetan ageri ziren 3 emakumeetatik bakarrak lortu zuen hautatua izatea. 2007an, EGBLak ez zuen eragin positiborik izan, eta, gainera, inongo zerrendetan ez da emakumerik ageri buruan. 2011n, zerrendaburu gisa hiru emakume daude berriz ere, eta 2015ean eutsi egiten zaio horri. Zorrotz errepikatzen da 2003an gertatu zena: emakumeak zerrendaburu ziren hiru zerrendetatik bakarrak lortzen du ordezkaritza izatea. EGBLaren eragina irregularra izan dela ikusten da.

## **Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardia**

2003an, emakume bat ere ez zen ageri zerrendaburu. 2007an, bat dago: ordezkaritza lortzen duten zerrenden % 25 da hori. 2011n aurkezten diren hiruetatik bi ordezkaritza lortzen duten alderdietakoak dira.

EGBLak bilatzen duen % 50eko presentzia lortzen da. 2015ean, errepikatu egiten dira emaitza horiek. Legeak jokabide positiboa izan duela ikusten dugu.

### **Arabako Lurralde Historikoa**

Araba osoa hartuta, EGBLaren eragina positiboa izan da, baina ez da erregularra izan; izan ere, 2003ko % 22tik, 2007ko % 6ra pasatzen da; 2011n, berriz, errekuperazioa dator, % 36rekin, eta 2015ean, azkenik, jaitsiera, % 31raino. Ordezkaritza lortzen duten alderditan, joera errepikatu egiten da, eta 2003an % 9 izatetik 2007an % 7 izatera pasa dira eta 2011n eta 2015ean % 42 eta % 36 izatera. Ez dago eragin positibo argirik.

### **Ordezko hautagaiak diren emakumeak**

#### **Vitoria-Gasteiz**

Bilakaera aldekoa da: 2003an, portzentajea % 31koa zen; 2007an, % 62koa; 2011n, % 57koa eta 2015ean, % 56koa. Jokabidea oso antzekoa da ordezkaritza lortzen duten alderditan.

#### **Aiara/Ayala**

Emakume hautagai ordezkoen portzentajearen bilakaera aldekoa da. 2003an ordezkoa den emakume bakarra ere ez izatetik, 2015ean % 63 izatera iristen da. 2011n, ez zen lortu EGBLak bilatzen duen % 50ekoa. Alderdiekin, oro har, gertatzen denaz bestera, ordezkaritza lortzen duten alderditan EGBLaren eragina oso positiboa da, zeren eta % 0 izatetik 2007an % 58 izatera pasa baitzen, 2011n % 56 izatera eta 2015ean % 67 izatera.

#### **Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardia**

Bilakaera aldekoa da: 2003an, portzentajea % 50 da; gero, pixkanaka igotzen da 2007an, 2011n eta 2015ean, % 63, 62 eta 75ekin, hurrenez hurren. EGBLaren eragina oso antzekoa da alderdi guztieta, eta ez da alde handirik aurkitzen ordezkaritza lortzen dutenen eta lortzen ez dutenen artean.

### **Arabako Lurralde Historikoa**

Lurralde historikoaren guztizkoan, EGBLaren eragina positiboa da. 2003an, % 26 izatetik 2015ean % 64 izatera pasa zen, 2007an eta 2011n % 50ekoa gainditzen duten emaitzekin. EGBLaren eragina desberdina da ordezkaritza lortzen duten alderditan eta lortzen ez duten alderditan. Portaera egonkorragoa da ordezkaritza lortzen utenen artean % 28 59, 67 eta 60rekin, 2003an, 2007an, 2011n eta 2015ean hurrenez hurren.

## **2. 2. Hauteskundeetako emaitzak**

### **Emakume hautetsiak**

#### **Vitoria-Gasteiz**

EGBLaren eragina positiboa eta iraunkorra izan da. 2003an, emakume hautetsien portzentajea % 26koa da, EGBLak bilatzen duen % 50etik urrun. 2007an,igoera nabarmena da, zeren eta % 45ekin gainditu egiten baita soziologian edozein erakundetan eragina izan ahal izateko gutxieneko portzentajetzet (masa kritikoa) jotzen dena. 2011n, ehunekoak hobera egiten jarraitzen du, % 55eraino. Zerrendetan emakume hautagaien portzentaje bera edukita, emakume hautetsien presentzia handiagoa lortzen da, % 55; horrek bidea ematen digu baiezatzeko emakumeek 2011ko zerrendetan bete izan duten toki hobeagoak berekin ekarri duela emakume hautetsien emaitza hain nabarmenki hobetu izana. 2015ean, portzentajea % 45eraino jaisten da; kasu horretan, zerrendetan emakumeek duten presentziaren portzentajeak handiagoak dira, baina emakumeek hautatuak izateko aukera txikiagoko tokiak betetzen dituzte.

#### **Aiara/Ayala**

Eragina aurrekoaz bestekoa da. 2003an emakume hautetsien % 33 izatetik 2007an % 17ra pasatzen da. 2011n, berriz, % 33koari eusten zaio eta 2015ean gainditu egiten da, % 50ekin. EGBLaren eragina positiboa da, baina ezegonkorra. Hurrengo deialdien emaitzak eduki arte itxaron beharko da egiazatzeko egoera positiboa izan den ala ez.

#### **Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardia**

Eragina positiboa da eta modu erregularrean handitzen da. 2003an % 17 izatetik 2007an % 29 izatera pasatzen da, eta 2011n % 43 izatera. 2015ean, eutsi egiten zaio.

#### **Arabako Lurralte Historikoa**

Lurraltearen osotasunean EGBLak izan duen eragina oso positiboa da: 2003ko % 25etik, 2007ko % 39ra pasa da, eta 2011n % 51 lortu da. Ondoriozta genezake EGBLaren eragina joera bat sortzen ari zela, baina 2015eko emaitza, % 45ekin, zalantzaz jartzen du hori. Eragina positiboa da, baina goiz da oraindik joera bat sortu dela baiezatzeko.

### **Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera**

#### **Vitoria-Gasteiz**

Alderdi guztiekin emakume hautetsien portzentajea igo dute ondoz ondoko hauteskundeetan. PP, PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNVn, emakumeek ordezkaritza lortu izan dute lau hauteskunde-deialdietan. PP 2003an % 19 izatetik 2007an % 47 izatera pasa da, eta 2011n eta 2015ean emakume hautetsien % 50era iritsi

da. PSE-EEEn (PSOE) gertatzen da eragin positiboena, zeren eta portzentajearen igoera deialdi guztieta mantentzen baita. 2007an eta 2011n % 50era iristen da, eta 2015ean, berriz, % 60ra. EAJ-PNV 2003an % 25 izatetik 2007an % 50 izatera pasa da, eta 2011n portzentajea errepikatu du. 2015ean, ordea, % 43raino jaitsi da. EB-ARALARrek 2003an % 33 izatetik 2007an % 0 izatera pasa da; hori dela eta, eragin positiborik ez dago. 2011n, bereizirik aurkeztu ziren eta soilik EBk lortu zuen ordezkaritza, 2 emakumerekin (% 100). EH BILDU (EAE-ANV...) 2007an emakume hautetsien % 0 lortu zuen; 2011n, 4rekin, % 57ra iritsi zen, eta 2015ean % 43raino jaitsi zen. EGBLak formazio horretan izan duen eragina gorabeheratsua da.

### **Aiara / Ayala**

EAJ-PNV eta EH BILDUk baizik ez dute emakume hautetsirik lortzen. EAJ-PNVk lau deialdietan, guztieta % 50etik gora, salbu eta 2007koan, zeinean lehenengo aldiz aplikatu baitzen EGBLa. 2011n eta 2015ean emakumeek ordezkaritzaren % 67 lortu zuten. EH BILDUk 2015ean baizik ez zuen emakume hautetsirik lortu, ordezkaritzaren % 50ekin, eta, esan dugun bezala, PSE-EE (PSOE), PP eta PODEMOS-AHAL DUGUk ez zuten batere lortu. Bilakaera ez da erregularra: 2007an ere, zeinean lehenengo aldiz aplikatu baitzen EGBLa, eta murritzapen gutxienekin, emakumeek emaitzarik txarrena lortu zuten. Horrek norabide bat erakusten du, beste batzuetan jada aipatu duguna: emakume hautagaien kopurua handiagoa izan daitekeenean, printzipio zuzentzaile bat aplikatzen da zerrendetan duten tokiari dagokionean.

### **Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardia**

EAJ-PNVk baizik ez du emakume hautetsirik lortzen lau deialdietan. Bana 2003an, 2011n eta 2015ean, % 33, 50 eta 33 eginez, hurrenez hurren, eta 2 hautetsi 2007an, % 67 eginez. PP eta EH BILDUk ere emakume hautetsiak lortzen dituzte, baina soilik 2011n eta 2015en. EH BILDUk % 50 lortu zuen bietan, eta PPk, berriz, % 50 2011n eta % 100 2015ean.

### **Arabako Lurralte Historikoa**

EGBLak eragin positiboa izan du lurralte osoan ordezkaritza lortu duten alderdi guzti-guztieta. PP 2003an % 19 lortzetik 2007an % 47 lortzera pasa zen, eta 2011n eta 2015ean % 50 lortu zuen. PSE-EE (PSOE) 2003an % 25 izatetik 2007an % 43 izatera, 2011n % 44 izatera eta 2015ean % 60 izaera pasa zen. EAJ-PNV 2003an % 32 izatetik, 2007an % 50 izatera, 2011n % 54 izatera eta 2015ean % 46 izatera pasa zen. EB-ARALARrek % 33 lortu zuen 2003an. EBk % 100 lortu zuen 2011n, eta EH BILDU 2007an % 0 lortzetik 2015ean % 45 lortzera pasa zen. Komenigarri da aipatzea alderdi guztiekin ordezkaritzaren % 40 gainditzen dutela, eta egonkortasunerako joera bat ageri dela % 45en inguruau, % 50etik 5 puntu beherago.

### **Zerrendaburu diren emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera**

#### **Vitoria-Gasteiz**

Formazio bakarrak ere ez du emakume zerrendabururik aurkeztu 2003an, ez eta 2007an ere. 2011n, EB eta EH BILDUk egin zuten hori, eta 2015ean PODEMOS-AHAL DUGU eta PSE-EEk (PSOE). Alderdi bakoitzaren batez besteko portzentajea % 100 da PODEMOS-AHAL DUGUren, % 50 EB-Bn, % 33 EH BILDUn, % 25 PSE-EEn (PSOE) eta % 0 EAJ-PNV eta PPn.

## **Aiara/Ayala**

2003an, EAJ-PNVk baizik ez zuen emakume zerrendaburu hautetsi bat lortu. 2007an, EGBELa eta EGBLa indarrean zeudela, alderdi bakarrak ere ez zuen emakume zerrendabururik aurkeztu; hori dela eta, emakume zerrendaburuen % 0 dago, eta EGBLak ez du inolako eraginik. 2011n EAJ-PNVk berriz ere lortu zuen emakume zerrendaburu bat hautetsia izatea, eta 2015ean, berriz, EH BILDUk. Azken horrek emakume zerrendaburuen % 50 lortu zuen lau deialdian. % 25 EAJ-PNVk eta % 0 PSE-EE (PSOE), PP eta PODEMOS-AHAL DUGUk.

## **Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardia**

2003an, alderdi bakarrak ere ez zuen emakume zerrendaburu hautetsi ba izatea lortu. 2007an EAJ-PNV da hori lortzen duen bakarra; 2011n, EAJ-PNV eta EH BILDUk lortzen dute eta 2015ean EH BILDU eta PPk. Alderdien araberako batez besteko portzentajeak honako hauek dira: % 62 EH BILDUn, % 50 EAJ-PNVn eta % 25 PPn.

## **Arabako Lurralte Historikoa**

Lurraltearen osoa hartuta, EB/ARALAR, IRABAZI, C'S eta UNIDAD ALAVESAk ez zuten emakume zerrendaburu hautetsirik lortu. Eragin handiena EB-Bn aurkitzen dugu, % 50ekin, EH BILDUn % 45ekin, EAJ-PNV eta PODEMOS-AHAL DUGUn % 33rekin eta PSE-EE (PSOE) % 25ekin; zerrendako azkena PP da, % 13rekin.

## **2. 3. Ondorioak**

2003an, zerrenden osaeraan % 50 emakumeak ziren, baina ez ziren hautetsien % 39ra iristen, EGBELak ezarritako gutxienekotik puntu batera. Behin EGBLa 2005ean onetsita, % 39 izatetik % 51 izatera pasa zen, EGBLak ezarritako gutxienekoa. % 50 izango litzateke esperatzeko, zeren eta arauak ezartzen baitu, baina % 1 gehiagoko horren arrazoia izan liteke zerrendak bakoitiak izatea eta askotan % 50 matematikoa ezin lortzea. Aintzakotzat har daitkeen beste azalpen bat da 2007an EGBLak emakumeen % 50 baino gehiagoko hautagai-zerrendak baimentzen zituela, baita % 100ekoak ere. 2011n, emakume hautagaien ordezkaritza % 50ekoa da (ordurako, Konstituzio Auzitegiak konstituzio-kontrakotzat jo zuen EGBLaren araua, emakumeen % 50 baino gehiagoko hautagai-zerrendak bideratzen zituen); hori dela eta, 2015eko % 51 egotzi behar zaio zerrendetako tokien kopurua bakoitia izateari. EGBLaren eragina antzekoa da ordezkaritza lortzen duten alderdian eta ordezkaritza lortzen ez dutenetan. Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardiako barrutian duen eragina txikixeagoa da aurreko bietan ageri dena baino. Oro har, EGBLaren aplikazioak emakumeen parte-hartze soziopolitikoa bideratzen du hautagai-zerrendetako presentziari dagokionez.

Zerrendaburu diren emakumeen kopuruak okerrera egin zuen 2007an baina gutxixeago ordezkaritza lortzen duen alderdian. Azken horietan, azken bi aldieta, 2003an eta 2007an, zerrenda bakarra dago buruan emakume bat aurkezten duena; 2003an Aiarako Kuadrillan eta 2007an Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardiako barrutian. Zenbateko absolutuak eta portzentajeak nabarmen egiten dute hobera 2011n (5 emakume zerrendaburu, % 42), eta 2015ean 5eko zenbateko absolutuari eusten zaio, baina ez portzentajeari, zeren eta % 36ra jaitsi baitzen. Bi kasuetan, emakume zerrendaburuak aurkeztu ziren hiru barrutietan. Zenbateko absolutuetan, Aiarako Kuadrillak erakusten du eragin txikiena, baina

ez termino erlatiboetan: zerrendaburu bat % 33rekin. Beste bietan, ordea bi emakume zerrendaburu aurkezten dira, baina Gasteizko Kuadrillan portzentaje txikienarekin, % 29; eta Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardiakoan, 2015ean, % 50 lortzen da Lurralte osoa hartuta, EGBLak eragin positiboagoa du ordezkaritza lortzen duten alderditan. 2003an, emakume zerrendaburuak % 9 izan dira, eta 2007an, berriz, EGBLaren aplikazioarekin, emakumeentzat positiboena den bertsioaren arabera, % 7ra pasa zen. 2011n, ordea, Konstituzio Auzitegiaren murriztapenak ezarrita, portzentajea % 42raino igo zen, EGBELaren gutxienekoa gaindituz baina EGBLaren % 50era iritsi gabe. 2015ean, portzentajea berri zenean % 36raino. 2015eko emaitzak eta EGBLak 2007an izan zuen eragin deusezak azalpenen bat eskatzen dute. Aintzakotzat har daitekeen bat da EGBLak ez duela horri buruz ezer esaten, eta egia da hori; hori dela eta, portzentajea aldatu izanak zerikusirik batere ez du hura onestearakin edo ezartzearekin. Kasu honetan, ez da hain erraza esatea zerrendetan emakumeak sartu behar izatearekin gizonek irteerako toki seguruak hartzera pasa zirela, horrekin emakumeak zigortuz hautetsi ateratzeko hain seguruak ez ziren posizioetan egotera. Baieztapen hori betetzen da 2003ko ea 2007ko hauteskundeei begiratuta, baina ez da betetzen 2003koa eta 2011koa alderatzen baditugu edo 2007koa eta 2011koa, edo 2011koa eta 2015ekoa. Ondoz ondoko hauteskundeetara itxaron beharko da ondorioztatzeko joera hori berresten den edo, bestela, EGBLaren aplikazioaren eraginez beste azalpenen bat aurkitu beharko dugu. Adibidez, emakumeek alderdi politikoetan duten parte-hartze soziopolitikoa eta haietan betetzen duten tokia.

Zenbaki absolutuetan, emakume hautetsien portzentajeak nabarmen egin zuen gora. 2003tik 2007ra ordezkaritzaren % 25 izatetik, EGBELak ezarritako gutxienekotik, % 40tik urrun, eta EGBLak ezarritako % 50etik % 39ra, 14 puntu gora eginez. Aiarrako Kuadrillak aurkako jokabidea du. Oro har, Araban EGBLak ezarritako ordezkaritzatik % 50era iristen ez bada ere, eragin positibo nabarmena gertatzen da. 2011n, emakume hautetsien % 51rekin, EGBLak eragin positibo argia izan zuen. Alderaketa eginez, EGBLaren aplikazioarekin ordezkaritzaren % 50 lortzeko aukera, nahiz eta 2015ean ez zaion eutsi, eraginkorragoa da EGBELaren aplikazioa baino, zeren eta 60-40 proportzionaltasun printzipioak, ikuspuntu teoriko batetik, arazo gutxiago dakarrela dirudien arren, beheranzko kuota finko baten gisara funtzionatzen du emakumeentzat: «% 40; sekula ez % 60». Bi portaera desberdin horiek ikusita, susma dezakegu EGBLa eraginkorragoa dela EGBELa baino erabakiak hartzeko organoetan dagoen emakumeen ordezkaritza eza zuzentzeko.

Arabako Batzar Nagusietan emakume hautetsien portzentajeak behin baino gehiagotan ordezkaritza lortzen duten alderdi guztietan aldatu dira, emakumeen presentziaren alde. Lurralte osoa hartuta, portzentaje txikiena duen alderdia EB-B da, % 62rekin, nahiz eta ordezkaritza 2003ko hauteskundeetan, emakumeen % 33rekin, eta 2011koetan baizik ez lortu, % 100ekin. Ondotik EAJ-PNV, batez beste % 46rekin, nahiz eta bai 2007an, bai 2011n lortzen duen % 50era iristea eta behin baita gainditzea ere. 2015ean ez da gauza bera gertatzen. Gorabehera horrek eragozten digu esatea EGBLak eragin guztiz positiboa izan duela. Hirugarren tokian PSE-EE (PSOE) dago, % 43ko batez bestekoarekin, nahiz eta 2003an % 25 izatetik 2015ean % 60 izatera pasatzen den. Joera positibo iraunkorra duen alderdi bakarra da. PP, batez beste % 42rekin, 2003an % 19 izatetik 2007an % 47 izatera eta 2011n % 50 izatera pasa da. 2015ean, eutsi egiten dio. Ondotik, PODEMOS-AHAL DUGU dago, % 38 duela aurkeztu den deialdi bakarrean, zeinean ez baitzuen lortu EGBLak bilatzen duen % 50ekoa. EH Bildu % 30ekin, 2007an % 0 izatetik 2011n % 45 izatera pasa da, eta 2015ean eutsi egiten dio. C's, IRABAZI, UNIDAD ALAVESA eta EB/ARALARrek ez dute emakume hautetsirik lortzen, emakumeen ordezkaritza % 0 baita. Portaerarik onena duen barrutia Gasteizko Kuadrilla da; ondotik Zuia, Agurain, Añana, Kanpezu eta Laguardiako dator, eta azkenik Aiarrakoa. Ondorioz da EGBLak eragin positiboa izan duela; halere, izan duen eragin erlatiboa ikusita, gogoeta sakon bat egin beharko litzateke boterea gizarte demokratikoetan banatzeko moduari buruz eta haren eragile nagusiei, alderdi politikoei, buruz.

### 3. Arabako gobernu organoak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak «presentzia orekatuaren» printzipioaren aldeko apustua egiten du (ez % 60 baino gehiago, ez % 40 baino gutxiago sexu bakoitzetik),

eta ez, zerrenden kasuan bezala, gobernu organoetan % 50eko osaerari buruz. Ez da argi gelditzen arau horren aplikazio-eremua, zeren eta interpreta baitaiteke Gobernua hertsiki foru diputatuak direla, edo, bestela, foru gobernuko kargu guztiak ere hartzen dituela. Legeak, zehazki, honako hau dio: Azken xedapenetatik hirugarrena (Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzea). 1. Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean, paragrafo bat gehitzen da 17. artikuluan. Paragrafo hori 2.a izango da eta hala esango du: «2. Jaurlaritzan bi sexuek % 40ko ordezkaritza izango dute, gutxienez». Ikusten den bezala, kasu honetan EGBLak ez du % 50eko presentzia eskatzen

### 3. 1. Gobernu organoen osaera

#### Ahaldun Nagusia

Emakume ahaldun nagusien portzentajea % 0 da. Legegintzaldi guzietan ahaldun nagusia gizonezko bat izan da. 2003an eta 2011n PPrena eta 2007an eta 2015ean EAJ-PNVrena.

#### Ahaldunorde Nagusia

Aztertutako lau alditan, ahaldunorde nagusi izan diren emakumeen portzentajea % 50ekoa da. 2003an eta 2007an, gizonen % 100ekin, eta 2011n eta 2015ean emakumeen % 100ekin. PPk ahaldunorde nagusiaren postua betetzeko 2003an eta 2011n PPk izendatutako bi pertsonetatik lehenengoa gizon bat da eta bigarrena, emakume bat, % 50. EAJ-PNVk ahaldunorde nagusiaren postua betetzeko 2007an eta 2015ean izendatutako bi pertsonetatik lehenengoa gizon bat da eta bigarrena, emakume bat, % 50. 4tik, 2 gizon eta 2 emakume, % 50. Bi gizonetatik bata PPko da eta bestea EAJ-PNVko, eta gauza bera gertatzen da bi emakumeekin: bata PPko da eta bestea EAJ-PNVko.

#### Foru diputatuak

Diputatu gizonezkoen eta emakumezkoen zenbateko absolutua legegintzalditik legegintzaldira aldatzen da: aztertzen ari garen legegintzaldietan, honako hauek aurkitu ditugu: 9, 2003an; 10, 2007an; 9, 2011n, eta 7 2015ean. Zenbaki erlatiboetan 2003an emakume ahaldun nagusien % 33tik izatetik 2007an % 40 izatera eta 2011n % 50 izatera pasa da, eta 2015ean eutsi egin zaio portzentaje horri. Horrenbestez, EGBLaren eragina nabarmen positiboa da. 45 foru diputatutik, 15 emakumeak dira, eta 15 horietatik PPk 7 izendatu ditu, EAJ-PNVk beste 7 eta PSE-EEk (PSOE) 1.

### 3. 2. Ondorioak

Diputatu gizonezkoen eta emakumezkoen zenbateko absolutua legegintzalditik legegintzaldira aldatzen da: aztertzen ari garen legegintzaldietan, honako hauek aurkitu ditugu: 9, 2003an; 10, 2007an; 9, 2011n, eta 7 2015ean. Zenbaki erlatiboetan 2003an emakume ahaldun nagusien % 33tik izatetik 2007an % 40 izatera eta 2011n % 50 izatera pasa da, eta 2015ean eutsi egin zaio portzentaje horri. Horrenbestez, EGBLaren eragina nabarmen positiboa da. 45 foru diputatutik, 15 emakumeak dira, eta 15 horietatik PPk 7 izendatu ditu, EAJ-PNVk beste 7 eta PSE-EEk (PSOE) 1.

## VII. BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK

### 1. Sarrera

Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez, azterlana hura osatzen duten lau barrutietan zentratu da: Bilboko barrutia, 15 ordezkarirekin; Enkarterriko, 13 ordezkarirekin; Durango-Arratiakoa, 10 ordezkarirekin, eta Busturia-Uribekoa, 13 ordezkarirekin. Zehaztu beharra dago hauteskunde-deialdi desberdinietan ([2003ko maiatzaren 25eko](#), [2007ko maiatzaren 27koa](#), [2011ko maiatzaren 22koa](#), eta [2015eko maiatzaren 24koa](#)) aldaketa txiki batzuk gertatu direla barruti bakoitzaren ordezkarien kopuruan.

### 2. Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeak

#### 2. 1. Hauteskunde-zerrendak

##### Emakume hautagaiak

###### Bilbo

2003, 2007 eta 2011ko 3 deialdietan bete beharreko postuak 16 dira; 2015ekoan, berriz, 15 dira. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 43 izatetik 2007an % 50 izatera pasa da; ehuneko hori gero jaitsi egin da % 49ra, eta 2015ean, berriz, % 50era itzuli da. Ordezkaritza lortzen duten alderdiek portaera okerragoa dute ordezkaritzarik lortzen ez dutenak baino: % 39, 50, 50 eta 49 2003an, 2007an, 2011n eta 2015ean, hurrenez hurren. Betetzen duten tokiari dagokionez, nabarmendu beharra dago ezen behin EGBLa aplikatuta 2007an posizioari eusten diotela; horrenbestez, eragina deuseza izan dela esan dezakegu. 2011n, nabarmen egiten du hobera, zeren eta ordezkaritza lortzen duten alderdien zerrendetan hautagaien % 50 emakumeak baitira. 2015ean, emakume hautagaien portzentajea txikiena da, % 49; emakume zerrendaburuen kopurua, berriz, handiena da (% 80) ordezkaritza lortzen duten alderdietan. Ez du ematen kausazko erlazio bat dagoenik zerrendetako emakumeen portzentajearen eta betetzen duten tokiaren artea, gutxienez ere barruti horretan. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portaera nabarmen hobea da ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdietan ageri dena baino. 2003an, emakume hautagaien portzentajeak ez zuen EGBELaren % 40koa betetzen, ez eta EGBLaren % 50ekoa ere. 2007, 2011 eta 2015ean portzentajea % 50ekoa da. Esan dezakegu EGBLak eragin positiboa izan duela.

###### Enkarterri

2007, 2011 eta 2015eko hiru deialdietan bete beharreko postuak 13 dira; 2003koan, berriz, 14 dira. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 39 izatetik 2007an % 50 izatera pasa zen; portzentaje hori, ordea, nabarmen jaisten da 2011n, % 48ra, eta 2015ean, berriz, errekuperatzen da. Ikusten dugu EGBLak eragin argia izan duela, eta horrek ordezkaritza lortzen duten alderdiak eta lortzen ez dutenak desberdin ukitzen dituela. Betetzen duten tokiari dagokionez, txandaka aldatzen doa: posizioak nabarmen egin zuen okerrera 2007an, eta 2011n errekuperatu zen. 2003an berriz ere erdietsi zen lehengo portzentajea, eta 2015ean behera egin zuen berriz. Datu horiek erakusten dute EGBLak inolako eraginik ez duela izan.

Portaera antzekoa da ordezkaritza lortzen duten alderdietan eta ordezkaritza lortzen ez dutenetan. 2003an, emakume hautagaien portzentajeak EGBELaren % 40koa ia betetzen zuen, baina ez zen iristen EGBLaren % 50ekora ere. 2007an, % 50era iritsi zen, eta 2011n berriz itzuli zen % 40ra. EGBLak eragin argia izan du, baina ez dago argi portzentajearren hobekuntza horrek zerikusirik ez duenik emakumeek betetzen duten tokian gertatu den okertze erlatiboarekin.

### **Durango-Arratia**

2003, 2007 eta 2011ko 3 deialdietan bete beharreko postuak 9 dira; 2015ekoan, berriz, 10 dira. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 41 izatetik 2007an % 52 izatera pasa da; 2011n, ehuneko horri eusten zaio eta 2015an bi puntu behera egiten du, baina % 50ekoari eutsita. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portaera hobea da ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdien baino. Ikusten dugu EGBLaren eragina argia izan dela alderdi guztietan, zeren eta emakumeen portzentajea EGBLak ezarritako % 50ekoa baita. Betetzen duten tokiari dagokionez, posizioa aldakorra da. 2003an, 3 emakume izan ziren zerrendaburuak ordezkaritza lortu zuten lau zerrendetatik; 2007an, 4tik 2 izan ziren, eta 2011n eta 2015ean, berriz ere, 4tik 3 izan ziren. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portaera hobea izan da. 2003an, emakume hautagaien portzentajeak EGBELaren % 40koa betetzen zuen, baina ez zen iristen EGBLaren % 50ekora. 2007, 2011 eta 2015ean, % 51, 49 eta 51rekin, baiezta dezakegu EGBLaren % 50era iristen dela; portzentajea % 49koa izan den kasuan hautagai-zerrendak bakoitiak izan dira —alderantziz ere gerta zitekeen—. EGBLaren eragina positiboa izan dela ondorioztatzen dugu.

### **Busturia-Uribe**

2007, 2011 eta 2015eko hiru 3 deialdietan bete beharreko postuak 13 dira; 2003koan, berriz, 12 dira. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 43 izatetik 2007an % 53 izatera pasa da eta 2011n % 49ra, eta 2015ean % 52ra arte errekuperatzen da. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portaera okerragoa da ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdien baino. Ikusten dugu EGBLaren eragina argia izan dela, zeren eta emakumeen portzentajea % 50ekoa baita. Betetzen duten tokiari dagokionez, posizioa aldakorra da. 2003an, emakume zerrendaburu bakarra ere ez zen izan ordezkaritza lortzen duten hiru zerrendetan; 2007an, ordezkaritza lortzen duten 4 zerrendatik 2tan izan ziren, eta 2011n emakume bakarra ere ez zen zerrendaburua izan ordezkaritza lortu zuten lau zerrendetan; 2015ean halako errekuperazio bat izan zen, zeren eta % 20rekin oso urrun gelditzen baitira EGBLak bilatzen duen % 50eko mugatik. Portzentajeak gora egiten du, baina posizioak okerrera. Hori dela eta, ondorioztatzen dugu EGBLak eragin positiboa baino askotarikoa izan duela.

### **Bizkaiko Lurralte Historikoa**

Bizkaian EGBLaren eragina positiboa da, zeren eta 2003ko % 42tik, 2007, 2011 eta 2015eko % 51ra, 49ra eta 51ra pasa baita, hurrenez hurren. Ordezkaritza lortzen duten alderdietan sumatutako eragina txikia da, % 39, 52, 49 eta 50ekin. Eragin handiena Busturia-Uriben gertatzen da, eta ondotik Durango-Arratia, Bilbo eta, azkenik, Enkarterri dator.

### **Zerrendaburu diren emakume hautagaiak**

#### **Bilbo**

Ordezkaritza lortzen duten alderdien zerrendetan ez dugu emakume zerrendabururik aurkitzen ez 2003an ez eta 2007an ere. 2011n eta 2015ean, hobekuntza nabarmen bat dago, zeren eta emakume zerrendaburuen % 50 eta % 80 aurkitzen baititugu hurrenez hurren. Esan behar dugu EGBLak ez duela eraginik izan

2007an, eta eragin positiboa izan duela 2011n eta 2015ean. Halere, hurrengo hauteskundeetara itxaron beharko dugu jakiteko joera bat den edo abaguneko egitate bat. Ordezkaririk lortzen ez duten alderdiek eta ordezkariak lortzen dituztenak antzera portatzen dira.

### **Enkarterri**

2003an, 2 emakume zeuden ordezkartzat lortu duten 4 alderdietako zerrendaburu, eta 2007an, berriz, bat bakarra; beraz, % 50etik % 20ra jaitsi da. Hori dela eta ezin dugu esan EGBLak eragin positiboa izan duenik. 2011n, 2 emakume egon ziren, berriz ere, zerrendaburuetan, 2003ko posizioetara itzuliz. 2015ean, ordea, 2007ko emaitzak errepikatzen dira. Ordezkaritza lortzen ez duten alderdietan emaitzak okerragoak dira, eta sekula ere ez da iristen % 50ekora. Alderdi guztien portaera txandakakoa dela eta, eragin negatiboko eragin irregular batez hitz egin behar dugu, zeren eta lorpenik handiena baita 2003ko emaitzei eustea.

### **Durango-Arratia**

2003an, 3 emakume egon ziren ordezkartzat lortu zuten zerrendetako buru. 2007an bi izan ziren, eta 2011n eta 2015ean, berriz, hiru. Ikusten dugu portaera askotarikoa dela, baina eragina positiboa. 2011ko eta 2015eko emaitza positiboek ez dituzte 2003koak hobetzen. EGBLak ordezkartzat lortzen duten alderdietan izan duen eragina askoz ere positiboagoa izan da, nabarmena denez.

### **Busturia-Uribe**

2003an, emakume bakarra ere ez zegoen zerrendaburu; 2007an, bi emakume egon dira, eta ordezkartzaren % 40 egiten dute. 2011n, berriz itzuli da % 0ra eta 2015ean % 20ra. Ez dago EGBLaren eragin positiborik, zeren eta gorabeheratsuak izanda ere, 2015eko emaitzak okerragoak baitira 2007koak baino; azken horiexek izan dira zerrenetan emakumeak buru aurkitu ditugun bakarrak. EGBLak ordezkartzat lortzen ez duten alderdietan izan duen eragina askoz ere positiboagoa izan da, nabarmen-nabarmena denez.

### **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Bizkaia osoa hartuta, EGBLaren eragina positiboa da. Ordezkaritza duten alderdietan, 2007an izan ezik, zeren eta urte horretan emakumeen presentziak okerrera egin baitzuen, % 28rekin, 2011n, % 44rekin eta 2015ean, % 47rekin, 2003ko % 33koa gainditu da. 2007ko % 28rainoko jaitserak zerikusia idan dezake EGBLak 2005ean Eusko Legebiltzarrerako aplikatzeak historiako lehenengo legebiltzar paritarioa lortu izanarekin, halako moduz non litekeena baita «berdintasun eragingarriaren» aurkako eragin okerra sortu izana. EGBLak ordezkartzat lortzen duten alderdien artean eraginik handiena izan duen barrutia Durango-Arratiakoa da; ondotik Enkarterriko eta Bilboko barrutiak datozen eta, azkenik, Busturia-Uribekoa. Eragina kontrakoa da ordezkartzat lortzen ez duten alderdietan, eta Busturia-Uribekoa da EGBLak eragin handiena duen barrutia, eta Durango-Arratiakoa, berriz, eragin txikiena duena.

### **Ordezkohautagaiak diren emakumeak**

#### **Bilbo**

Bilakaera oso aldekoa da: 2003an, portzentajea % 33 zen, 2007an, % 58koa; 2011n, % 54koa, eta 2015ean, azkenik, % 56koa. EGBLaren eragina nabarmen positiboagoa da ordezkartzat lortzen duten alderdietan ordezkartzat lortzen ez dutenetan baino. EGBELaren gutxieneko % 40koa gainditzen da eta EGBLaren

% 50ekoa, are EGBELak ezarritako gehienekoa, % 60koa, ere. 2007an, emakume ordezkoen % 67ra iristen da.

### **Enkarterri**

Bilakaera aldekoa da: 2003an emakume ordezkoen % 8 izatetik 2007an % 46ra, 2011ko % 69ra eta 2015eko % 67ra iristen da. EGBLaren eragina positiboa da.

### **Durango-Arratia**

Bilakaera aldekoa da: 2003an emakume ordezkoen % 25 izatetik 2007an % 67ra eta 2011ko % 61era iristen da. EGBLak eragin positiboa du, eta eragin hori handiagoa da ordezkaritza lortzen duten alderditan, lortzen ez dutenetan baino.

### **Busturia-Uribe**

Bilakaera aldekoa da: 2003an emakume ordezkoen % 27 izatetik 2007an % 58ra eta 2011ko % 56ra iristen da, eta 2015ean eutsi egiten zaio. EGBLak eragin positiboa du, oro har, baina eragin hori gorabeheratsua da ordezkaritza lortzen duten alderdiei eta lortzen ez dutenei erreparatuz gero.

### **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Bizkaia osoa hartuta, EGBLaren eragina positiboa da. 2003an % 24 izatetik, 2007an % 58 izatera eta 2011n % 60 izatera pasatzen da, eta 2015ean azken hori errepikatzen da. Ordezkaritza lortzen duten alderdiek nabarmen egiten dute gora beren portzentajeetan, zeren eta EGBLaren % 50koa ez ezik, EGBELaren, gehienekoa, % 60koa, gainditzen baita. Emakumeen ordezkaritza-portzentaje hain handi horiek interpretatu egin behar dira, zeren eta emakume hautagaien zenbatekoak eta zerrendaburuak gutxitan gainditzen baitu EGBLaren % 50koa, eta are gutxiago EGBELaren % 60koa. Horretarako arrazoiak ba izan daiteke ordezkoen kopurua oso txikia da, baina horretan gogoetak alde kualitatiboari begiratu beharko lioke gehiago kuantitatiboari baino: Zergatik gertatzen da ordezkoen adierazlea dela emakumeentzat emaitza aldekoenak erakusten dituen bakarra? EGBLak barrutietan duen eragina oso aldekoa eta homogeneoa da guztietan.

## **2. 2. Hauteskunde-emaitzak**

### **Emakume hautetsiak**

#### **Bilbo**

EGBLak eragin positiboa eta jarraitua izan du 2015era arte, egiturazkoa izatera pasa gabe. 2003an, emakume hautetsien portzentajea % 38koa da eta 2007an % 44koa, EGBLak bilatzen duen % 50era iritsi

gabe. 2011n, lehenengo aldiz lortu zen % 50 hori, baina horrek ez zuen gero joera bat ezarri, zeren eta 2015ean berriz ere aurkitzen dugu emakumeak hautetsien % 40 direla.

### **Enkarterri**

Igoerak garantzi txikia du; are gehiago, esan genezake EGBLak batere eraginik ez duela izan lehenengo aplikazioetan. 2003an, emakume hautetsiak % 36 ziren, eta 2007an, berriz, portzentaje horrek 5 puntu behera egin zuen, % 31raino. 2011n, hobera egin zuen, % 38raino. Aldaketa adierazgarriena 2015ean gertatu zen, % 54rekin, EGBLak bilatzen duen % 50ekoa gaindituz. Hurrengo hauteskunde batzuetara itxaron beharko dugu joera positiboko eragin bat aurkitzeko.

### **Durango-Arratia**

Zaila da EGBLak eragin aipagarria izan duela esatea. 2003, 2007 eta 2011n, 5 emakume hautetsirekin, EGBLak bilatzen zuen ordezkaritza, % 50koa lortzen zen, zeren eta 5 hautetsi horiek ordezkaritzaren % 56 egiten baitute. 2015ean, emaitzek hobera egiten dute, eta 6 emakume hautetsirekin emakumeen presentzia % 60koa da.

### **Busturia-Uribe**

Eragina askotarikoa da, zeren eta hasieran eraginik ez baitago, baina ondoz ondoko hauteskundeetan, berriz, argiro positiboa da. 2003an, emakume hautetsiak % 33 ziren; 2007an, % 31ra pasatu ziren 2011n, % 38ra eta 2015ean, azkenik, % 46ra. Bilakaera askotarikoa da eta ez da sekula iristen EGBLak bilatzen duen % 50ekora.

### **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Bizkaia osoa hartuta, EGBLaren eragina positiboa eta jarraitua da. 2003ko % 39koa 2007an mantentzen da, eta % 45era iristen da 2011n eta % 49ra 2015ean, EGBLaren % 50etik oso hurbil. Portaera onena izan duen barrutia Durango-Arratiakoa da; portaera okerrena, berriz, Busturia-Uriben aurkitzen dugu.

### **Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera**

#### **Bilbo**

EGBLak alderdien emakume hautetsien portzentajeetan duen eragina askotarikoa da. PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNV dira emakume hautetsiak 4 hauteskundeetan lortzen dituztenak, baina EGBLak eragin askotarikoa du. EAJ-PNVn % 43ko portzentajeari 4 hauteskundeetan eusten zaio; horrenbestez, EGBLak ez du eraginik izan. PSE-EEren (PSOE) kasuan, EGBLaren eragina alternoa da. 2003an % 33 izatetik 2007an % 50 izatera pasa da; portzentaje hori 2011n gainditzen da, % 67rekin, eta 2015ean, % 50era itzultzen da, 2007ko portzentajera. EGBLak EH BildUn izan duen eragina positiboa da, zeren eta % 50etik gorakoa baita ordezkaritza lortzen duen bi hauteskundeetan, % 67 2011n; 2015ean, berriz, portzentajeak behera egiten du, % 50era. PP 2003an % 40 izatetik 2007an % 50 izatera pasatzen da, eta % 33raino jaisten a 2011n, eta ez du emakume hautetsirik lortzen 2015ean. EGBLaren eragina ahuldu egiten da hautetsien zenbateko

absolutoak behera egiten duenean. PODEMOS-AHAL DUGUk hautetsien % 50 lortzen du aurkezten den lehenengo hauteskundeetan, eta EB-B eta ARALARrek ez dute emakume hautetsirik lortzen aurkezten diren deialdietan.

### **Enkarterri**

EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE) baizik ez dute lortzen emakume hautetsiak izatea lau deialdietan. Portaera desberdina da: 2003an, PSE-EEk (PSOE) emakume hautetsien % 40 lortzen du, eta portzentaje horri eusten dio 2007an, 2011n % 25era jaisten da eta 2015ean berriz gora egiten du, % 67raino. EAJ-PNVk 2003an % 33 izan zuen, 2007an % 40 eta 2011n eta 2015ean % 60ra iristen da. EB-B eta EB-ARALARrek ez dute emakume hautetsirik lortzen aurkezten diren hauteskundeatik bakarrean ere. EH BILDU eta PPk ez dute emakume hautetsi bakarra ere lortzen 2 deialdietan, eta lortzen dituztenetan, % 50eko portzentajearekin lortzen dute. PODEMOS-AHAL DUGUk % 50 lortzen du 2015ean. Horrenbestez, EGBLak eragin irregularra dauka.

### **Durango-Arratia**

EAJ-PNVk baizik ez du emakume hautetsirik lortu aurkezu den lau deialdietan: % 40 2003an, % 50 2007an eta 2011n eta % 80 2015ean. El PSE-EEk (PSOE) % 50 lortu zuen 2003an, eta % 33 2007an. 2011n eta 2015ean, ordea, ez zuen bat bera ere lortu. PPk emakume hautetsiak dauzka ordezkaritza lortzen duen hiru deialdietan, 2003, 2007 eta 2011n: hautetsi bakarra da deialdi bakoitzean, ordezkaritzaren % 100. EH BILDUk emakume hautetsiak lortzen ditu ordezkaritza eskuratzentzu duen bi deialdietan, % 67ko portzentajearekin 2011n eta 2015ean. EB-B eta EB-ARALARrek deialdi bakarrean lortzen dute ordezkaritza: lehenengoak 2003an, % 100ekin, eta bigarrenak 2007an, portzentaje berarekin. PODEMOS-AHAL DUGUk emakume hautetsien % 100 lortzen du 2015eko hauteskundeetan.

### **Busturia-Uribe**

EAJ-PNVk emakume hautetsiak lortu zituen lau deialdietan: % 33 2003an, % 43 2007an eta % 50 2011 eta 2015ean. PSE-EE (PSOE) eta PPk emakume hautetsiak lortzen ditu ordezkariak izatea lortzen duen lau deialdietako bakarrean. Bi kasuetan, ordezkaritza % 50 da: 2007an lehenengoaren kasuan eta 2003an bigarrenaren kasuan. 2011 eta 2015ean, EH BILDUk ordezkariak lortzen dituen bi hauteskundeetan, emakumeen % 50 lortzen du.

### **Bizkaiko Lurralte Historikoa**

Bizkaia osoa hartuta EGBLak alderdi politikoetan izan duen eragina irregularra izan da. PP 2003an % 50 izatetik 2015ean % 0 izatera pasa zen, baina 2007an eta 2011n % 38 lortu zuen. EGBLaren eragina ez da positiboa izan. PSE-EEk (PSOE) portaera ez-segurua dauka. 2003an emakume hautetsien % 36 izatetik 2007an % 43 izatera pasatu zen, eta berriz jaitsi zen 2011n % 33raino, eta 2015ean berriz igo zen 2007ko % 43raino. Kasu horretan argiro demostratzen da orokorrean ordezkaritza galtzeak eragin berezia duela emakumeek ordezkaritza galtzean. Alderdiek emaitza okerragoak espero dituztenean, badirudi emakumeek toki okerragoak hartzen dituztela. EAJ-PNVk goranzko joerari eusten dio. 2003an emakume hautetsien % 37 dauka; 2007an, % 43; 2011n, % 50, eta 2015ean % .

### **Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera**

#### **Bilbo**

Lau hauteskundeetan ordezkariak lortzen dituzten hiru alderdietatik, eragin handiena PSE-EE (PSOE) aurkitzen dugu, zeren eta lau hauteskundeetatik bitan zerrendaburu diren emakume hautetsiak lortzen baititu: % 50eko portzentajea da hori. Ondotik EAJ-PNV dator, emakume zerrendaburu hautetsi batekin, zeina ordezkaritzaren % 25 baita; azkenean, PP dago, zeinak ez baitu bat bera ere aurkeztu. EH BILDUK, ordezkaritza lortu duen bi hauteskundeetan, bi lortu ditu, 2011n eta 2015ean, % 100eko ordezkaritzarekin. Horixe bera lortu du PODEMOS-AHAL DUGUk aurkeztu den hauteskunde bakarrean. Azkenean, EB-B eta EB-ARALAR dauzkagu, emakume zerrendaburuen % 0rekin, aurkeztu diren aldi bakarrean. EGBLaren eragina erlatiboa da.

### **Enkarterri**

Hauteskunde guztietai ordezkaritza lortu duten alderdietatik, EAJ-PNV, PP, PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNVn aurkitzen dugu EGBLaren eraginik handiena, zerrendaburu diren 3 emakume hautetsirekin: % 75. Ondotik PP dator, 2rekin, % 50. Azkenean, PSE-EE (PSOE) aurkitzen dugu, emakume batekin eta ordezkaritzaren % 25ekin. EB-ARALAR, EB-B, EH BILDU eta PODEMOS-AHAL DUGU ez dute emakume zerrendaburu bakarra ere aurkezten. EGBLaren askotariko eragina.

### **Durango-Arratia**

EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE) ordezkaritza lortu dute lau hauteskundeetan: lehenengoan, emakume zerrendaburu hautetsiak 3 dira, % 75, eta bigarrenean, berriz, portzentajea % 0 da. PPn, emakume zerrendaburu hautetsiak 3 dira, ordezkaritzaren % 100, zeren eta hiru hauteskundeetan baizik ez baitute lortzen. Aurkezten diren gainerako alderdian, EH BILDUn bitan gertatzen da emakume zerrendaburu hautetsiak % 100 direla eta EB-ARALAR, EB-B eta PODEMOS-AHAL DUGU aurkezten diren kasuan, portzentajea, halaber, % 100 da. EGBLaren eragina eztabaidagarria da, zeren eta 2003an jada % 100ekoaren inguruko portzentajeen baitzeuden.

### **Busturia-Uribe**

EGBLak ez du eragin positiborik; izan ere soilik EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE) lortzen dute 2007an emakume zerrendaburu bat, eta bi kasuetan halako bat lortzen duten okasio bakarra da: % 25, beraz. Gainerako alderdian sekula ere ez du bat lortzen.

### **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Lurralde osoa hartuta, EGBLaren eragina nahiko positiboa izan da. Zenbaki erlatiboetan eraginik handiena dagoen alderdia PODEMOS-AHAL DUGU da, % 75ekin. EAJ-PNV da egonkorrena, eta alderdi hori da EGBLaren eragin txikian izan duena, gure ustez, zeren eta hauteskunde guztietai eragina bera izan baita, % 50. Portzentaje horretatik behera EH BILDU eta EB-B daude, % 33rekin; ondotik PP dator, % 31rekin eta PSE-EE (PSOE) % 25ekin. EGBLaren eragin txikiena izan duen alderdia EA izan da % 0rekin.

## 2. 3. Ondorioak

Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, EGBLak eragin positibo bat izan duela esan dezakegu. Aplikatu denetik, zerrendetan ageri den emakumeen portzentajeak gora egin du: 2003an % 42 izatetik 2015ean % 51 izatera; portzentaje hori bera 2007an ere lortu zen. 2007an emakumeen portzentajeak % 50ekoa gainditzeko aukera izan bazen ere, 2007ko eta 2015eko emaitzak berdinak dira.

Oro har, EGBLak eragin positiboa izan du 2007an eta eragin nabarmena, berriz, 2011n. Zerrendaburu diren emakumeen kopuruak hobera egin zuen 2007an eta 2011n, eta hobekuntza hori 2003ko eta 2007ko datuekin alderatuta ere ikusten da, baina 2015ean portzentajeak ez du hobera egiten 2011koaren aldean, baina bai 2003koaren eta 2007koaren aldean, alderdien guztizkoan. Ordezkaritza lortzen duten alderditan, eragin positiboen ordezkaritza zalantzagabea a. Zenbaki absolutuetan 2003an % 33 izatetik 2011n % 44 izatera pasa da, eta 2015ean % 47 izatera. Halere, azalpenen bat eman beharko da igoera nabarmen handiagoa izateari buruz 2011n 2007an baino; izan ere, azken urte horretan EGBLak zerrendetan emakumeen % 100 izatea ere bideratzen du. Ondoriozta dezakegu, ezen EGBELak eta EGBLk horri buruz ezer ere esaten ez dutenez, aldaketa horrek ez duela zerikusirik batera haren onespenarekin. Kasu honetan, ez da hain erraza esatea zerrendetan emakumeak sartu behar izatearekin gizonek irteerako toki seguruak hartzera pasa zirela, horrekin emakumeak zigortuz hautetsi ateratzeko hain seguruak ez ziren posizioetan egotera. 2003ko eta 2007ko hauteskundeetan gertatzen den aurrerapen apala disparatu egiten da kontuan hartzen badugu 2003koa, 2011koa eta 2015ekoa kontuan hartzen baditugu, edo 2007koa, 2011koa eta 2015ekoa kontuan hartzen baditugu. Ondoz ondoko hauteskundeak aztertu beharko dira ondorioztatzeko joera hori berresten den eta egiturazko aldaketa bat gertatzen den, non berdintasun eragingarria» normaltasuna den.

Zenbaki absolutuetan, emakume hautetsien portzentajeak pixkanaka egin du gora. 2003an eta 2007an, ordezkaritzaren % 39 da, EGBELak ezartzen duen gutxienekekotik, % 40tik, puntu batera, eta EGBLak ezartzen duen % 50etik 11 puntura. Ez da lortzen EGBLak eskatzen duen ordezkaritzaren % 50ekoa. 2011n, emakume hautetsien % 45ekin, EGBLak eragin positibo argia izan zuen. Alderaketa eginez, EGBLaren aplikazioarekin ordezkaritzaren % 50 lortzen ez bada ere, emaitza hobeak lortzen dira EGBELaren aplikazioarekin baino, zeren eta 60-40 proportzionaltasun printzipioak, ikuspuntu teoriko batetik, arazo gutxiago dakarrela dirudien arren, beheranzko kuota finko baten gisara funtzionatzen du emakumeentzat: 40 sekula ez % 60. 2015ean, hobera egiten jarraitzen da, % 49 lortzeraino, eta hori, gainera, % 50 gisa interpretatu beharra dago, Batzar Nagusiak osatzen dituztenen zenbatekoa bakoitia delako (51). Bi portaera desberdin horiek ikusita, gure susmoa da EGBLa eraginkorragoa dela EGBELa baino erabakiak hartzeko organoetan dagoen emakumeen ordezkaritza eza zuzentzeko.

Bizkaiko Batzar Nagusietan, emakume hautetsien portzentajeak alderdi guztietan modu desberdinean aldatu dira. PP 2003an % 50 izatetik 2007an eta 2011n % 38 izatera pasa da, eta 2015ean % 0 izatera. Joera negatibo argia da, eta EGBLak ez du inolako eraginik izan. Lehenengo une batean, PPko emakumeek ordezkaritzaren 12 puntu galdu zituzten, % 0ra iristeraino. Espekulazio moduan bada ere, esan genezake 2007ko jaitsiera horren arrazoia izan daitekeela PP ez dagoela ados EGBLarekin, zeren eta hura dela-eta konstituzio-kontrakotasuneko errekursoa aurkeztu baitzuten. Baino % Orainoko jaitsieraren azalpen bakarra da banatu beharreko tokien kopurua eskasa dela aurreikusten denean, emakumeek zerrendetan duten tokiak okerrera egiten duela. EAJ-PNV 2003an % 37 izatetik, 2007an % 43 izatera, 2011n % 50 izatera eta 2015ean % 57 izatera pasa zen. Alderdi bakarra da non emakume hautetsien portzentajeak hobera egiten baitu hauteskunde bakoitzean, % 50era iritsiz eta baita hura gaindituz ere. EGBLaren eragin positiboa ezin da zalantzan jarri, eta oso eraginkorra da emakumeek irteera-postu onak izan ditzaten zerrendetan emaitza onak aurreikusten direnean. PSE-EE (PSOE)n, 2003an % 36 izatetik, 2007an % 43 izatera pasa zen, eta 2011n % 33rain jaitsi zen; 2015ean % 43 lortu zuen. Kasu horretan, eragina desberdina da, eta berriz ere zerikusia du ordezkariak lortzeko itxaropen orokorrekin eta emakumeek eta gizonek zerrendetan

dutentokiarekin. EH BILDU 2007an % 0 izatetik 2011n % 50 izatera pasa zen, eta 2015ean, berriz, % 45.

EGBLaren eragina argia da. Alderdi bakarrak ere ez du kremailera-erako zerrendarik aurkezten. Egia esan, oro har ordezkaritza galtzea azalpen bat izan daiteke emakumeen presentziaren galerarako, baina modu proporcionalean bana zitekeen emakumeen eta gizonen artean. Datu horiek arrasto batzuk ematen dizkigute alderdiek emakumeekin jokatzeko moduari buruz, ordezkaritza galdu behar dutenean. Normalean tokiokerragoetan jartzen dituzte, zeinetan ez baitago bermatuta hautatuak izatea. Datuek adierazten dute EGBLak bere eraginkortasun handiena lortzeko arautu beharra dagoela zerrendak lehentasun-ordenaren araberakoak izatea. Ondorioa da EGBLak eragin positiboa izan duela, baina ez duela amaierako helburua lortu: ordezkaritzaren % 50.

### **3. Bizkaiko gobernu organoak**

#### **3. 1. Gobernu organoena osaera**

##### **Ahaldun Nagusia**

Emakume ahaldun nagusien portzentajea % 0 da. Legegintzaldi guzietan ahaldun nagusia EAJ-PNVko gizonezko bat izan da.

##### **Ahaldunorde Nagusia**

Emakume ahaldunorde nagusien portzentajea % 0 da. Legegintzaldi guzietan ahaldunorde nagusia EAJ-PNVko gizonezko bat izan da.

##### **Foru diputatuak**

Diputatu gizonezkoen eta emakumezkoen zenbateko absolutua legegintzaldi guzietan aldatzen da. Zehazki, aztertutako legegintzaldietan 11 dira 2003an, 10 2007an eta 8 2011n eta 2015ean. Eragin oso positiboa gertatzen da, EGBLak aurreikusitako 40-60 proportzioa gainditzen duena. 2003ko % 9tik 2007ko % 40ra pasa da, eta EGBLak aurreikusitako helburua lortu da, baina % 40koa gutxienekoa denez, % 60ra iristen da 2011n, ezarritako gutxienekoa, % 50ekoa gaindituta, eta % 63ra iristen da 2015ean. EGBLak eragin positibo argia zian du. Foru diputatu izan diren 13 emakumeetatik, % 93 EAJ-PNVkoak izan dira eta % 7, berriz, PSE-EEkoak (PSOE).

#### **3. 2. Ondorioak**

Zalantzak gabe, EGBLaren eragina positiboa izan da, baina sekula ere emakume ahaldun nagusi bat edo ahaldunorde nagusi bat lortu ez izanak erakusten du arauaren eraginkortasuna ez dela nahikoa ordezkaritza goreneko postuetan ezarrita dagoen kristalezko sabaia hausteko.

## VIII. GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK

### 1. Sarrera

Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, azterlana hura osatzen duten lau barrutietan zentratu da: Donostialdea, 17 ordezkarirekin; Deba-Urola, 14 ordezkarirekin; Bidasoa-Oiartzun, 11 ordezkarirekin, eta Oria, 9 ordezkarirekin, honako hauteskunde-deialditarako: [2003ko maiatzaren 25ekoa](#), [2007ko maiatzaren 27koa](#), [2011ko maiatzaren 22koa](#) eta [2015eko maiatzaren 24koa](#).

### 2. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Hauteskundeak

#### 2. 1. Hauteskunde-zerrendak

##### Emakume hautagaiak

###### Donostialdea

17 dira 4 deialditan bete beharreko postuak. Emakume hautagaiak 2003an % 47 izatetik, 2007an % 60 izatera pasa dira, eta ehuneko hori nabarmen jaitsi da % 50eraino 2011n, eta % 1 igo da 2015ean. Betetzen duten tokiari dagokionez, haien posizioak hobera egin du 2007an, eta nabarmen okertu da 2011n eta askoz gehiago 2015ean. Hala izanda, ordezkaritza lortzen duten alderdiek 2003an ez dute emakume zerrendaburu bakarra izan, eta bigarren tokian lautik hiru daude, hirugarren tokian, bi eta laugarren tokian lau. Aitzitik, 2007an, bi emakume zerrendaburu izan ziren, eta beste bi emakume egon ziren bigarren tokian, 2 hirugarrenean eta 2 laugarrenean. 2011n, atzerapen nabarmena egon dela esan dezakegu. Emakume zerrendaburu bakarra dago, % 25, ordezkaritza lortzen duten lauetatik, 2 emakume daude bigarren tokian eta beste 2 hirugarren tokian. 2015ean, lehenengo posizioaren portzentajea % Oraino jaisten da. Hain zuen ere ordezkaritzarik lortzen ez duten zerrendetan gertatzen denaren kontrakoa da: lehenengo tokian % 50, 100, 50 eta 67. 2003an, emakume hautagaien kopuruak EGBELak ezarritako % 40koa betetzen zuen, baina ez EGBLaren % 50ekoarekin. Portzentaje onenak 2003an eta 2007an ordezkaritzarik gabeko alderiek dute, baina 2011n eta 2015ean baino okerragoak dira. Ondorioa izan daiteke EGBLak eragin positiboa izan duela denborak aurrera ahala, eta eragina egiturazkoa dela. 2007an, portzentaje onenak lortzen dira, % 60 orokorrean, % 52 ordezkaritza lortzen duten alderditan, eta % 100 ordezkaritzarik lortzen ez dutenetan.

###### Deba-Urola

4 deialditan bete beharreko postuak 14 dira. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 41 izatetik 2007an % 52 izatera pasa zen; portzentaje horrek, ordea, hiru puntu galdu zituen 2011n eta bat errekuperatu zuen 2015ean. Portzentajeak oso antzekoak dira ordezkaritza lortzen duten alderditan eta ordezkaritza lortzen ez dutenetan. Betetzen duten tokiari dagokionez, posizioa hobea da 2007an eta 2011n, eta 2015ean okerrera egiten badu ere azken bi hauteskunde horiekin alderatuta, hobera egiten du 2003ko datuekin

alderatuta. Ez da gauza bera gertatzen kontuan hartzen badugu ordezkaritza lortzen duten alderditan, zeren eta 2003an emakume zerrendaburu bat baitago eta bigarren tokian berriz 5etik bi dira emakumeak, eta beste bina hirugarren tokian eta laugarren tokian. Aitzitik, 2007an, bi emakume zerrendaburu izan ziren, eta beste bi emakume egon ziren bigarren tokian, bat hirugarrenean eta bostetik bost laugarrenean. 2011n, aurrerapen nabarmena egon dela esan dezakegu. Bi emakume zerrendaburu daude ordezkaritza lortzen duten lautik, eta beste bina daude bigarren eta hirugarren tokian, 2015ean bezalaxe. Horrenbestez, alderdi horietan emakumeen posizioak hobera egiten du pixkanaka. 2003an emakume hautagaien portzentajeak EGBELaren % 40koa betetzen zuen, baina ez EGBLaren % 50ekoa. 2007an, EGBLaren % 50era iristen da, eta 2011n horri eusten zaio. 2015ean, berriz puntu bat gora egiten du. Hori dela eta, esan dezakegu EGBLak eragin positiboa izan duela.

### **Bidasoa-Oiartzun**

4 deialditan bete beharreko postuak 11 dira. Emakume hautagaien kopurua 2003an % 47 izatetik, 2007an % 61 izatera pasa da, eta ehuneko hori jaitsi da % 50eraino 2011n, eta % 52 puntu igo da 2015ean. Ordezkaritza lortzen duten alderditan, partidaren portzentajea txikiagoa bada ere, % 41, igoera progresiboa da: % 53 2007an eta % 55 2011n eta 2015ean. Ordezkaritzarik lortzen ez duten alderditan, 2007ko % 100 lortu zela nabarmendu behar da. Betetzen duten tokiak hobera egiten du 2007an, baina okerrera 2011n. 2015ean, berriz, hobera egiten du. Ordezkaritza lortzen duten alderditan, 2003an emakume bakarra ere ez dago zerrendaburu, eta bigarren tokian emakume bakarra aurkitzen dugu, hirugarrenean ere bakarra eta laugarrenean bi. Aitzitik, 2007an, bi emakume zerrendaburu izan ziren, eta beste bi emakume egon ziren bigarren tokian, lau hirugarrenean eta bostetik bi laugarrenean. 2011n, esan dezakegu atzerapen erlatibo bat gertatu dela, 2007. urtearekin alderatuta. Emakume zerrendaburu bakarra dago ordezkaritza lortzen duten lauetatik; 2 emakume daude bigarren tokian eta beste 3 hirugarren tokian. 2015ean, emakumeen posizioak nabarmen egin zuen hobera. 2003an emakume hautagaien portzentajeak EGBELaren % 40koa betetzen zuen, baina ez EGBLaren % 50ekoa. 2007an, % 61era iritsi zen, EGBELaren gehienekoa, % 60koa, gaindituz, une horretan EGBLak ahalbidetzen baitu hori. 2011n, berriz, % 50 lortu zen, eta 2015ean 2 puntu egin zuen hobera, % 52ra iristeko. Hori dela eta, EGBLak ez du eragin positiborik izan, % 50eko ordezkaritza egonkortzeari dagokionez.

### **Oria**

9 dira lau deialditan bete beharreko postuak. EGBLak eragin positibo bat izan du, zeina islatzen baita emakumeen presentziak deialdietako hauteskunde-zerrendetan gora egin izatean. 2003an % 26, 2007an eta 2011n % 49 eta 2015ean % 54. Eragina handiagoa da ordezkaritza lortu duten alderditan. 2003ko % 30etik abiatuta, 2007, 2011 eta 2015ean % 47, 52 eta 53 lortzen da, hurrenez hurren. Betetzen duten tokiari dagokionez, beherakada bat gertatzen da arauaren aplikazioarekin, zerrendaburuei dagokienez. 2003an % 17 izatetik 2007an % 0 izatera. 2011n eta 2015ean posizioetan hobera egiten da, % 33raino, EGBLak bilatzen duen % 50etik urrun. Ordezkaritza lortzen duten alderdien portaera okerragoa da ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdien baino. 2003an eta 2007an % 0 da, 2011n % 33, eta 2015ean % 25eraino jaisten da. Oro har EGBLaren eragina positiboa izan da.

### **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Lurralde osoa hartuta, EGBLaren eragina positiboa izan da. 2003ko % 42tik, EGBELean ezarritako gutxienekoa gaindituz, 2007an % 56 lortzen da. Jada aipatu dugun bezala, % 56 hori lortu ahal izan da EGBLak bideratu egiten zuelako, Konstituzio Auzitegiak 2009an epaia eman baino lehen. Horrek 2007ko

% 56koa azaltzeaz gainera, erakusten du 2011ko % 50ekoarekin 6 puntu galdu zirela, eta 2015ean ere % 51koa aurkitzen dugula. Nabarmendu beharra daukagu 2007an zerrendetan emakumeak % 80 izan zirela ordezkaritzarik lortzen ez duten alderdian, zeren eta soilik emakumeak aurkeztu zituzten zerrenda feministak izan baitziren.

### Zerrendaburu diren emakume hautagaiak

#### Donostialdea

EGBLaren ondoriozko bilakaera irregularra izan da, eta eragina erlatiboa, baina ez da finkatu 2003rako jada ageri zen joera bat, % 17ko datuarekin; izan ere 2007an jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa ere eman zen, % 50era iritsita, baina 2011n % 42rekin joera finkatu beharrean aldatu egiten da, 2015eko % 25k erakusten duen bezala. Ordezkaritza lortzen duten alderdiak kontuan hartzen baditugu, portzentajeak okerragoak dira: 2003ko % 0tik 2007ko, 2011ko eta 2015eko % 40ra, 25era eta 0ra, hurrenez hurren. 2007an, ordezkaritzarik gabeko zerrendetan, emakume zerrendaburuak % 100 ziren.

#### Deba-Urola

EGBLaren ondoriozko bilakaera irregularra izan da, eta eragina erlatiboa, zerrenden osotasunari begiratuta. 2003an, % 20 zen; 2007ko bilakaera positiboa izan zen, % 33raino, eta 2011n aldaketa kualitatiboa izan zen, % 56rekin, baina 2015ean 2007ko % 33ra itzuli zen. EGBLaren eraginaren bilakaeran ez dago joera positiborik, baina kontuan hartzen baditugu ordezkaritza lortzen duten zerrendak, beste ondorio bat atera dezakegu. 2003ko % 20tik 2007ko % 40ra pasatzen da, eta bai 2011n, bai 2015ean % 50 lortzen da, EGBLak bilatzen duena; hori dela eta, EGBLak eragin positiboa izan du, % 50ekoa egonkortzeko joera izan duelako.

#### Bidasoa-Oiartzun

EGBLaren ondoriozko bilakaera irregularra izan da, eta eragina erlatiboa, zerrenden osotasunari begiratuta. 2003an, % 17 zegoen; bilakaera positiboa izan zen 2007an, % 50ekin, jauzi kualitatibo bat emanez. 2011n, ordea, % 36rekin eta 2015ean % 38rekin berriz ere huts egiten da % 50eko helburua ez lortzeagatik. Ezin dugu esan bilakaeran joera positiboa izan denik, baina ordezkaritza lortzen duten zerrendak kontuan hartzen baditugu, eragina askoz ere irregularragoa da. 2003an % 0 izatetik, 2007an % 40 izatera, 2011n % 25 izatera eta 2015ean % 75 izatera pasa zen.

#### Oria

EGBLaren eragin eskasa. 2003an emakume bakarra ere ez zegoen zerrendaburu; 2007an ezta ere. 2011n, lehen aldiz agertu zen emakume bat zerrendaburu, eta ordezkaritzaren % 33 lortu zuen. Zenbateko absolutu berarekin, portzentajeak 2015ean % 25 egin zuen behera. Ordezkaritza lortzen ez duten alderdien portaera nabarmen hobea da. 2003an emakume bat, % 33, egon zen, eta gero, 2005ean % 0ra jaitsi zen, EGBLaren aplikazioarekin. 2011n, berriz, % 33koa errekuperatu zen, baina kasu horretan bi zerrendatako buru ziren 2 emakumerekin, eta 2015ean, % 50ekoa lortu zen, emakume zerrendaburu bakarrarekin.

## **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Gipuzkoa osoa hartuta, ordezkaritza lortzen duten zerrendetan, emakume zerrendaburuuen igoera nabarmen bat gertatzen da 2007an, 2003an % 6 izatetik 2007an % 32 izatera pasa baitziren. 2011n, joera horri eutsi zitzaison, puntu bat igota, % 33raino, eta bi puntu gehiago, berriz, 2015ean, % 35eraino. Barruti guztietan, Oriakoan izan ezik, fenomeno bera gertatzen da: 2007an igoera nabarmen bat eta 2011n aintzat hartzeko moduko atzeratze bat. 2015ean Donostialdeak eta Oriak okerrera egin zuten; Bidasoa-Oiartzunek hobera, eta beste barrutia eutsi egin zion. EGBLaren eragina irregularra izan da.

### **Ordezko hautagaiak diren emakumeak**

#### **Donostialdea**

Bilakaera askotarikoa da. 2003an % 50 izatetik 2007an % 62 izatera, 2011n % 47 izatera eta 2015ean % 71 izatera pasa zen. 2003an jada EGBLaren % 50ekoa betetzen zen; 2007an % 62raino igo zen, EGBELak ezarritako gehienekoa, % 60koa, gaindituta; 2011n, berriz, % 47raino jaitsi zen eta 2015ean, azkenik, % 71raino igo. Horrenbestez, ondoriozta dezakegu eragin desberdin bat egon dela, joerarik markatzen ez duena. Portaera antzekoa da ordezkaritza lortzen duten alderdi guztietan eta ordezkaritzarik lortzen ez dutenetan.

#### **Deba-Urola**

Bilakaera askotarikoa da. 2003an % 40 izatetik 2007an % 50 izatera, 2011n % 44 izatera eta 2015ean % 63 izatera pasa zen. Ordezkaritza lortzen duten zerrenden kasuan EGBLaren eragina handiagoa da. Zerrenden osotasunean 2003an ageri den % 40tik abiatzen da, eta 2007an EGBELak ezarritako % 50ekoa lortzen da. 2011n, portzentaje horri eusten zaio, eta 2015ean, berriz, hobetzen da, % 67raino. Horrenbestez, EGBLaren eragin positibo bat badago.

#### **Bidasoa-Oiartzun**

Aurreko barrutian ikusitakoaren antzeko fenomeno bat gertatzen da. Bilakaera askotarikoa da: 2003an % 36 izatetik 2007an % 53 izatera, 2011n % 44 izatera eta 2015ean % 60 izatera pasa zen. Ordezkaritza lortzen duten alderditan hauteskunde guztietan ageri da bilakaera positiboa. 2003ko % 22tik % 42, 43 eta 50era, 2007an, 2011n eta 2015ean, hurrenez hurren. Esan dezakegu EGBLaren eragina desberdina izan dela, baina positiboa.

#### **Oria**

Aurreko barrutian ikusitakoaren antzeko fenomeno bat gertatzen da. Bilakaera askotarikoa izan da: 2003an % 29 izatetik 2007an % 50 izatera, 2011n % 47 izatera eta 2015ean % 67 izatera pasa zen. 2007an, emakumeen presentziak igoera nabarmena izan zuen, EGBLaren % 50era iristeraino. 2011n, hiru puntu galdua, % 47koa aurkitzen dugu, eta pentsa genezake joera aldatu egiten dela, baina 2015eko % 67koak ez du hori finkatzen. Ordezkaritza lortzen duten alderditan portaera kontrakoa da lehenengo aldian, zeren eta 2003ko % 50etik 2007ko % 44ra pasatzen baita. Ikusten dugu eragin negatibo bat egon dela, baina 2011ko % 50ekoak eta 2015eko 71koak eragin positiboa erakusten dute; hori dela eta, esan daiteke EGBLak eragin desberdin baina positiboa izan duela.

## **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Gipuzkoa osoa hartuta, emakume ordezkoen ehunekoak egonkortzera jo du, EGBLaren % 50 inguruan hain zuen ere. 2003an % 39 izatetik 2007an eta 2011n % 46 eta % 45 izatera pasa da, hurrenez hurren, eta 2015ean % 65 izatera. Barruti guztietan fenomeno bera gertatzen da: 2007an igoera nabarmena, 2011n atzeratze erlatibo bat eta 2015ean berriz ere gora egitea, indarrez gainera. EGBLaren eragin irregular horren aurrean, datozen hauteskundeetan zerrendek duten portaerari erreparatu egin beharko zaio.

### **2. 2. Hauteskundeetako emaitzak**

#### **Emakume hautetsiak**

##### **Donostialdea**

EGBLak eragin positiboa izan zuen 2007an; 2011n eutsi egiten zaio eta 2015ean igo egiten da. 2003an emakume hautetsien portzentajea % 29 zen, EGBLak bilatzen duen % 50etik behera. 2007an, eragina argia da, zeren eta % 41 lortzen baita. 2011n horri eusten zaio eta 2015ean % 47raino igotzen da. EGBLaren eragina argia eta jarraitua da, baina ez da bilatzen den % 50ekoa lortzen.

##### **Deba-Urola**

EGBLak eragin oso positiboa du: 2003an emakume hautetsien % 21 izatetik 2007an % 50 izatera eta 2011n % 64 izatera pasatzen da, EGBLaren % 50ekoa erdietsiz eta are gaindituz ere. 2015eko emaitzak okerragoak badira ere, EGBLaren % 50ekoa lortzen da; hori dela eta, eragin positibo bat badago, nahiz eta joera oraindik ere ezagutu ez.

##### **Bidasoa-Oiartzun**

EGBLaren eragina oso positiboa izan da. 2003an emakume hautetsien % 27 izatetik, 2007an % 45 izatera, 2011n % 64 izatera eta 2015ean % 55 izatera pasa zen. EGBLaren eragina oso positiboa izan da, eta % 50koaren inguruko joera finkatzen hasia da.

##### **Oria**

EGBLak eragin moderatua izan du: 2003an emakume hautetsiak % 11 izatetik 2007an eta 2011n % 33 izatera pasa da, EGBLak ezarritako % 50ekora iritsi gabe, ez eta EGBELaren % 40ra ere. 2015ean, % 44 lortzen da, EGBELaren gutxienekoa gaindituz, baina ez da iristen EGBLaren % 50era. Eragina positiboa, baina ahula.

#### **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Lurralde osoa hartuta, ikusten dugu EGBLak eragin positiboa duela: 2003an emakumeak hautetsien % 24 izatetik 2007an % 43 izatera eta 2011n % 51 izatera iritsi dira, EGBLaren % 50ekoa erdietsita. 2015ean, % 49rekin, % 50era jaisten da, eta horrekin pentsa dezakegu portzentajea % 50ekoaren inguruan egonkortuko dela, baina hori berretsi egin beharko da hurrengo hauteskundeetako emaitzekin.

## **Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera**

### **Donostialdea**

PSE-EEk (PSOE) eta EAJ-PNVk baizik ez dute lortzen emakumeen ordezkaritzarik lau hauteskundeetan: PSE-EEk (PSOE) % 40 lortu zuen 2003an, eta % 50, berriz, 2007, 2011 eta 2015ean, nahiz eta azken bietan hautetsi bat gutxiago egon; EAJ-PNV emaitza txiki batetik abiatzen da, 2003an % 29 lortu baitzuen, 2007an % 100era iritsi zen eta 2011n eta 2015ean % 50ekin egonkortu zen. PPk emakumeen ordezkaritza 2003an eta 2007an baizik ez zuen lortu, % 25eko emaitzarekin, EGBLak bilatzen duen % 50etik oso urrun. EH BILDUk % 50 du 2011 eta 2015ean, baina 2015ean emakume hautetsi bat gutxiago izan zuen. EB/ARALAR, EA eta EB-Bk ez dute emakume hautetsirik lortzen, eta PODEMOS-AHAL DUGUk, berriz, bat lortu zuen 2015ean: EGBLak bilatzen duen % 50eko emaitza da hori. EGBLak eragin positibo moderatua izan du, zeren eta 2011n ordezkaritza lortzen duten alderdi guztiek, PPk izan ezik, emakume hautetsien % 50 erdiesten baitute; hori, gainera, 2015ean errepikatu egiten da. Itxaropen positibo bat badago, joerari eustekoa, baina ezin da esan egoera finkaturik dagoenik.

### **Deba-Urola**

EAJ-PNVk baizik ez du emakume hautetsirik lortzen lau hauteskundeetan. 2003an, % 22rekin, EGBELaren gutxienekekotik 18 puntura gelditzen da; 2007an, % 50ekin, gutxieneko hori gainditzen du eta EGBLaren % 50ekoa betetzen du; 2011n, berriz, % 75 lortzen du, EGBELak ezarritako gehienekoa, % 60koa, gaindituz. Azkenik, 2015ean, EGBLaren % 50era bueltatzen da. 2007, 2011 eta 2015ean ordezkaritzaren portzentaje hori aldatzen da, baina ez emakume hautetsien kopurua, zeina hiru alditan 3koa baita. Esan dezakegu EGBLak eragin oso positiboa izan duela. PSE-EEk (PSOE), zeinak lau hauteskundeetan lortu baitzuen ordezkaritza izatea, bi hauteskundetan baizik ez zuen emakume hautetsirik izan, 2007an eta 2011n, % 33 eta % 50, hurrenez hurren. PP, ARALAR eta EH BILDUk lau hauteskundeetatik bitan lortzen dute ordezkaritza izatea. Lehenengoak 2003an eta 2007an lortu zuen, eta ordezkaritzaren % 100 ziren emakumeak; bigarrenak 2011n baizik ez zuen lortu, orduan ere % 100ekin; eta hirugarrenak 2011n % 57 lortu zuen eta 2015ean % 50. Oro har, EGBLaren eragina positiboa izan da, eta eraginkortasun handiagoa izan du 2011n. 2015ean, berriz, % 50ekoari eutsi dio.

### **Bidasoa-Oiartzun**

PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNVk emakume hautetsiak lortu dituzte lau hauteskunde-deialdietan. PSE-EE (PSOE) 2003an % 33 izatetik 2007an % 40 izatera pasa zen; 2011n emakume hautetsiak % 67 ziren, eta 2015ean hautetsien kopuruari eutsi zion. Ez du ematen ordezkarriak galdu izanak eragina izan duenik emakumeek hautagai-zerrendetan zeukaten posizioan, zeren eta galtzen diren postuak gizonek betetzen baitituzten. EGBLak EAJ-PNVn izan duen eragina positiboa da lehenengo unean baina negatiboa 2015ean. Alderdi hori 2003an % 40 izatetik 2007an eta 2011n % 67 izatera pasa da, eta 2015ean % 33raino jaitsi da. EB-ARALARrek emakume hautetsi bat lortu zuen 2007an, bi alderdiak elkarrekin aurkeztu direnean hauteskundeetara, % 100eko portzentajearekin. EH BILDUk, 3 emakume hautetsirekin, % 75 lortu zuen 2011n; 2015ean, berriz, bat galdu zuen, % 67 lortuz. Horrek erakusten digu emakumeek irteerako postuak dauzkatela zerrendetan. Zalantzak gabe esan dezakegu EGBLak eragin positiboa izan duela.

### **Oria**

EAJ-PNVk baizik ez du emakume hautetsirik lortu aurkeztu den lau hauteskundeetan: % 17 2003an, % 50 2007an eta 2011n, jaitsita, % 33. 2015ean horri eusten dio. PSE-EEk (PSOE), zeinak ordezkaritza lortzen baitu deialdi guztietan, hautetsi bakarra lortu zuen 2007an, eta horrek % 50 egiten du. 2011n hori galdu zuen eta ez zuen 2015era arte erre kuperatu. EH BILDUk % 40 lortu zuen 2011n eta % 50, berriz, 2015ean, emakume hautetsien kopuru berarekin. EGBLaren eragin positiboa izan da, nahiz eta erlatiboa izan.

## **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Oro har, hauteskunde guztietaur aurkeztu ez diren alderdian, emaitzarik onena PODEMOS-AHAL DUGUn aurkitzen dugu, % 67rekin; ondotik, ARALAR eta EH BILDU dato, % 50ekin, EB-ARALAR, % 33rekin, EA, % 14rekin, eta, azkenean, EB-B, % Orekin. Hauteskunde guztietaur aurkeztu direnetatik, EAJ-PNV da emaitzarik onena lortzen duena, % 47, % 50ekora iritsi gabe. Ondotik PSE-EE (PSOE) dator, % 40rekin, eta azkeneko tokian PP % 14,5ekin. EGBLaren eragina gorabeheratsua da, zeren eta alderdietako bakarrean ere ez baita goranzko bilakaera argirik aurkitzen. Portzentajeak hauteskunde batetik bestera aldatzen dira, eta EGBLaren eragin argia 2007an ikusten da, zeren eta alderdi guztiekin hobetu baitzituzten beren emaitzak. Hori ondorengo hauteskundeetan finkatu zen.

### **Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera**

#### **Donostialdea**

PSE-EEk (PSOE) 2tan aurkeztu zituen emakume zerrendaburuak, 2007an eta 2011n, eta EAJ-PNVk, berriz, behin bakarrik, 2007an. Gainerakoek sekula ere ez dute halakorik egin. EGBLaren eragina arina da, eta 2015ean izan zituen emaitzarik txarrenak, emakume zerrendaburu bakarra ere ez baitzen izan ordezkaritza lortu zuten alderdian.

#### **Deba-Urola**

Lau deialdian ordezkaritza lortu duten alderdiak PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNV dira. Lehengoak ez zuen emakume zerrendabururik aurkeztu 4 deialdietako bakarrean ere; bigarrenak, berriz, 2011n baizik ez zuen aurkeztu. PP, EH BILDU eta ARALARrek bi deialdian lortu zuten ordezkaritza izatea. Lehenengoak bietan aurkeztu zituen emakume zerrendaburuak, 2003an eta 2007an; bigarrenak, berriz, bietako batean, 2015ean; hirugarrenak, azkenik, 2011n. Deialdi bakar batean ordezkaritza lortzen duten alderdiek, EB-ARALAR, EB-B, EA eta PODEMOS-AHAL DUGUk, emakume-zerrendaburuak aurkeztu zituzten; azken horrek 2015ean eta EB-ARALARrek, berriz, 2007an. EGBLaren eragin eskasa.

#### **Bidasoa-Oiartzun**

EAJ-PNVk lau deialdietatik hirutan aurkezten du emakume zerrendaburu bat. PSE-EEk (PSOE), zeinak lau hauteskundeetan lortu baitzuen ordezkaririk, 2015ean aurkeztu zuen emakume zerrendaburu bat. EH BILDUk, ordezkaritza lortu zuen bi deialdietako batean, 2015ean, eta EB-ARALARrek, berriz, 2007an, zeina baita ordezkaritza lortu duen deialdi bakarra. PPk ez du emakume zerrendabururik aurkeztu ordezkaritza lortu duen hiru deialdietako bakarrean ere, eta EB-B eta PODEMOS-AHAL DUGUk ere ez dute hori egin ordezkaritza lortu duten aldi bakarrena, lehenengoa 2003an eta azkena 2015ean. EGBLaren eragina irregularra da.

#### **Oria**

EH BILDUk eta PODEMOS-AHAL DUGUk baizik ez dute emakume zerrendabururik aurkeztu, lehengoak 2011n eta bigarrenak 2015ean.

## Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Oro har, hauteskunde guztietaurik aurkeztu ez diren alderdietan, emaitzarik onena PODEMOS-AHAL DUGU, ARALAR eta EB-ARALARren aurkitzen dugu, % 50ekin; ondotik EH Bildu dator, % 35ekin, eta azkenean EA, % Orekin. Hauteskunde guztietaurik aurkeztu direnetatik EAJ-PNV da, % 31rekin, emaitzarik onena lortzen duena. Ondotik PSE-EE (PSOE) dator, % 19rekin, eta azkeneko tokian PP, % 14,5ekin. EGBLaren eragina gorabeheratsua da, zeren eta alderdietako bakarrean ere ez baita goranzko bilakaera argirik aurkitzen. Emaitzen portzentajeak hauteskunde batetik bestera aldatzen dira.

### 2. 3. Ondorioak

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, esan daiteke EGBLak eragin oso aldekoa izan duela 2007an eta aldekoa, berriz, 2011n. 2015ean, gainera, hobera egin zuen. Zerrenden osaerari dagokionez, horietan emakumeen gutxienez ere % 50 egon behar izateak eragin du 2003an % 42 izatetik 2007an % 56 izatera pasatzea, eta 2011n % 50era jaistea. 2015ean, azkenik, puntu bat egin zuen gora. Ordezkaritzaren lortzen duten alderdien eragina handiagoa da 2011n eta 2015ean, eta horrek aukera ematen digu EGBLaren eragin positiboaz eta egonkortzeaz hitz egiteko. 2007an, zerrendetan emakumeak % 100 bitarte izateko aukera bazegoen, eta hori da 2007ko % 56koaren azalpena. 2011ko % 50ekoa azaltzeko bidea da ordurako ez zegoela aukerarik emakumeen % 50 baino gehiago zuten hautagai-zerrendarik aurkezteko.

Emakumeek zerrendaburu gisa betetzen duten posizioari dagokionez, esan daiteke EGBLak eragin oso positiboa izan duela 2007an. Eragin positibo horri 2011n eutsi zitzaison, ordezkaritzaren portzentajean puntu bat gora egin zelako, 2015ean berriz ere hobetu zen. Alderdi guztiei begiratuta, 2003an emakumeen zerrendaburuak guztizkoaren % 17 ziren, eta 2007an, EGBLaren aplikazioarekin, emakumeentzako bertsio aldekoenarekin, % 35era pasa zen. 2011n, azkenik, % 41eraino igo zen. 2015eko % 32ko jaitsiera puntual bat erakuts dezake, edo joera-aldaketa bat. EGBLa eraginkorragoa izan da ordezkaritza lortzen duten zerrendetan, zerrenden guztizkoan baino. 2003an % 6 izatetik 2015ean % 35 izatera pasa da, 2007an eta 2011n % 32 eta % 33 lortuta.

Zenbaki absolutuetan, emakume hautetsien portzentajeak pixkanaka egin du gora. 2003tik 2007ra ordezkaritzaren % 24 izatetik % 43 izatera pasa da. EGBELak ezarritako % 40ko gutxieneak lortzen da, baina ez EGBLak ezarritako % 50ekoa, nahiz eta aipatu behar dugun eragina oso positiboa dela, 19 puntu igorari begiratuta. 2011n, emakume hautetsien % 51rekin, eta 2015ean % 49rekin EGBLak eragin positibo argia izan du. Alderaketa eginez, ordezkaritzaren % 50 ingururekin, emaitza hobeak lortzen dira EGBLaren aplikazioarekin EGBELaren aplikazioarekin baino, zeren eta 60-40 proportzionaltasun printzipioak, ikuspuntu teoriko batetik, arazo gutxiago dakarrela dirudien arren, beheranzko kuota finko baten gisara funtzionatzen du emakumeentzat: 40 sekula ez % 60. EGBLak arrazoizko eraginkortasuna dauka erabakiak hartzeko organoetan dagoen emakumeen ordezkaritza eza zuzentzeko.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan, emakume hautetsien portzentajeak alderdi guztietaurik modu desberdinan aldatu dira. PP pasatu da 2003an % 25 izatetik 2007an % 33 izatera eta 2011n eta 2015ean % 0 izatera. Hori dela eta, esan dezakegu EGBLak eraginik ez duela izan, edo eragin negatiboa ere izan duela. EAJ-PNV 2003an % 26 izatetik, 2007an % 63 izatera, 2011n % 57 izatera eta 2015ean % 44 izatera pasa zen. Alderdi horrek joera positiboari eusten dio. 2011n hamahiru puntu galtzen baditu ere, horren azalpena izan daiteke beste batzuetan jada aipatu duguna: 2007an, emakumeek zerrendetan zuten portzentajeak ez zuen zertan % 50ekoa errespetatu seiko tartetan, eta hori da emakume hautetsien % 63koaren azalpena. Nolanahi den ere, eragina aldekoa edo oso aldekoa da, EGBELaren gehienekoak, % 60koak, gainditzen baita. 2011n posizioak galtzen badira ere, % 57koari eusten zaio eta 2015ean gertatzen da joera-aldaketa, % 44rekin,

% 50era iristen ez bada ere. Eragina oso positiboa da lehenengo fasean, eta hurrengo hauteskunde batzuetara arte itxaron beharko da egiazatzeko joerak beheranzkoia izaten jarraitzen duen edo % 50koa egiturazko errealtitate bihurtzen den. PSE-EE (PSOE) 2003an % 25 izatetik 2007an % 44 izatera eta 2011n % 50 izatera pasa zen, EGBLaren «berdintasun eragingarriaren» helburua lortuta. 2015ean, ordea, % 44ra bueltatu zen. Beriz ere berretsi beharra dugu emakumeen irteera-posizioak alderdiek ordezkaritza lortzeko dauzkaten itxaropenen menpe daudela dioen hipotesia. EB-ARALAR koalizioak 2007an baizik ez zuen emakume hautetsirik lortu, ordezkaritzaren % 33 lortuz. 2011n, bakarrik aurkeztu zen ARALAR, eta emakume hautetsi bat lortu zuen, ordezkaritzaren % 100. EH BILDUk emakume hautetsien % 54 lortzen du: ordezkaritza lortzen duen bi deialdien batez bestekoa da hori.

### 3. Gipuzkoako gobernu organoak

#### 3. 1. Gobernu organoena osaera

##### Ahaldun Nagusia

Emakume ahaldun nagusien portzentajea % 0 da. Legegintzaldi guzietan ahaldun nagusia gizonezko bat izan da: 3tan EAJ-PNVkoia eta behin EH BILDUkoia.

##### Ahaldunorde Nagusia

Emakume ahaldunorde nagusien portzentajea % 0 da. Legegintzaldi guzietan ahaldun nagusi ordeak gizonak izan dira. Guztira, lau legegintzaldietan 7 ahaldunorde nagusi egon dira: 3 EAJ-PNVkoak, 3 EAkoak eta 1 PSE-EEkoia (PSOE).

##### Foru diputatuak

Diputatu gizonezkoen eta emakumezkoen zenbateko absolutua legegintzaldi guzietan aldatzten da. Zehazki, aztertzen ari garen legegintzaldietan 10 dira 2003an, 10 2007an eta 7 2011n eta 8 2015ean. EGBLaren bilakaera oso positibo bat gertatzen da, arauak jasotzen duen gehienekora, % 60ra iritsi gabe. 2003ko % 30etik 2007ko % 40ra pasatzen da, EGBLak bilatzen duen helburua lortuz, baina % 40koa gutxienekoa denez eta 2011n % 60ra irits daitekeenez, ezarritako gutxieneko portzentajea gainditzen da, 2011n % 57 lortzen baita, eta 2015ean % 50era itzuli zen. EGBLak eragin positibo argia izan zuen. Foru diputatu izan diren 20 emakumeetatik, % 45 EAJ-PNVkoak izan dira, % 30 EAkoak, % 15 EH BILDUkoak eta % 10 PSE-EEkoak (PSOE). EBELaren aplikazioa dela-eta balorazio positiboa egiten dugu.

#### 3. 2. Ondorioak

Zalantzak gabe, EGBLaren eragina positiboa izan da, Bizkaian bezala: sekula ere emakume ahaldun nagusi bat edo ahaldunorde nagusi bat lortu ez izanak erakusten du arauaren eraginkortasuna ez dela nahikoa ordezkaritza goreneko postuetan ezarrita dagoen kristalezko sabaia hausteko.

## IX. BATZAR NAGUSIEI BURUZKO GOGOETAK

Hiru batzar nagusietan lau hauteskunde-prozesuetan izan diren datuak ikusita, zenbait ondorio interesgarri atera ditzakegu.

Zerrenden osaerari dagokionez, emakumeek % 49ko presentzia dute. 2003an emakumeen ordezkaritza % 40ra iritsi zen, eta portaera hobeak izan zuen Bizkaian eta Gipuzkoan, % 42rekin, eta okerragoa, berriz, Araban, % 36rekin. 2007an, EGBLa aplikatu ondoren, emakume hautagaien portzentajeak nabarmen egin zuen hobera, eta presentziaren % 53 izatera iritsi ziren. Hiru batzar nagusiak % 50era iristen dira, baina portaerarik onena Gipuzkoan aurkitzen dugu % 56rekin. 2011n eta 2015ean portzentajea % 50ekoaren inguruan egonkortzen da, % 50rekin eta % 51rekin, hurrenez hurren. Bizkaiko batzar nagusietan, 2011n, % 49rekin, ez da EGBLak agintzen duen % 50era iristen; horrek zerikusia du zerrendak osatzen dituzten pertsonen kopurua bakoitza izatearekin, eta, horrenbestez, bete egiten da aginduak eskatzen duena.

Zerrendaburuak kontuan hartuz gero, panoramak nabarmen egiten du behera. Presentziaren portzentajea % 32koa da, presentzia paritariotik 18 puntu beherago, eta 8 puntu beherago, halaber, presentzia orekatuaren gutxienekekotik. 2003. urtean, portzentajea % 22koa izan zen. EGBLaren aplikazioarekin, hobekuntza txiki bat gertatzen da, % 25erainokoak, eta bigarren aldiz aplikatzen denean da nabarmenagoa presentziaren \$% 42koa; tamalez, ordea, ez da hori joera gisa finkatzen, zeren eta 2015ean % 33raino jaitsi baita emakume zerrendaburuuen zenbatekoak. Lurralde historikoei begiratuta, portaera onena Bizkaia izan zuen, % 36rekin, eta okerrena Araban, % 25ekin. Bai orokorrean bai lurraldez lurralde, emaitza onenak 2011n lortu ziren, eta Bizkaia izan zen portzentaje onena erakutsi zuena, % 45, presentzia paritariotik 5 puntura. Araban 2007an lortu zen % 6koa, EGBLaren aplikazioaren ondoren, eta Gipuzkoan 2003an lortu zen % 17koa dira emaitza txarrenak.

Deialdi guztiei begiratuta, emakume hautetsien portzentajea % 42koa da. 2003an, % 29 eskas zen, eta EGBLa aplikatu ondoren % 41 izatera iritsi zen. 2011n, eutsi egin zitzaien hobekuntzarako joera horri, eta % 49 lortzen da. 2015ean, ordea, puntu bat jaitsi zen, ordezkaritzaren % 48 lortzeraino. EGBLaren aplikazioaren eragina zalantzak gabekoa da, eta azken bi deialdietan ordezkaritzaren % 50ekora iritsi da. Horixe da, halaber, Bizkaiko kasua, non emaitzarik onena lortzen baitira, % 43rekin, eta Arabakoa, zeinak % 40 lortzen baitu, emaitzarik txarrena. 2011n, Arabak eta Gipuzkoak, % 51rekin, EGBLak bilatzen duen % 50ekoa lortzen dute. Ideia bat aurreratuko dugu: batzar nagusietako ordezkaritzaren portzentajea % 45etik % 49ra doan tartean egonkortzen ari da.

Emakume hautetsi zerrendaburuei begiratuta, EGBLak eraginkortasun askoz txikiagoa izan du. Horien ordezkaritza-portzentajea % 30 da. 2003an % 17 izan zen, eta EGBLak indarra hartzearekin % 24koa lortu zen 2007an; portzentaje hori nabarmen hobetu zen, % 40raino, 2011n eta 2015ean. Berriz ere gertatzen da hobekien portatzen den lurraldea Bizkaia dela: 2015ean portzentajerik onena lortu zuen, % 47. EGBLa aplikatu baino lehen, Gipuzkoa da portzentaje okerrena duena, % 6, eta % 30ekoaren inguruan egonkortzen da hurrengo hiru deialdietan, hiru lurralteko txikienak lortuz.

Behin bakarrik aurkeztu diren alderdietatik, PODEMOS-AHAL DUGU daukagu portzentaje onenarekin, % 58, eta C'S, berriz, okerrenarekin, % 0. Behin baino gehiagotan edo hauteskunde guztiak aurkeztu diren alderdien portaera kontuan hartuta, 2003an eta batzar nagusi guztiak hartuta, portzentaje onena EAJ-PNVk lortzen du, hautetsien % 34koarekin; ondotik, PP dator, % 31rekin, PSE-EE (PSOE) % 29rekin eta EB-ARALAR alderdia, emaitza txarrenekin: % 22. EGBLa 2007an aplikatu ondoren, emakumeen ordezkaritzan

% 50 lortzen duen bakarra EAJ-PNV da, % 51rekin. PP puntu batera gelditzen da, PSE-EE (PSOE) 7 puntura, % 43rekin, eta EB-ARALAR, azkenik, 25 puntura. Aitzitik, 2011n, emaitza onena lortzen duena, ordezkaritzaren % 100ekin, EB-ARALAR da. EAJ-PNVk % 50ekoari eutsi ez ezik, emakume hautetsien portzentajea % 53raino igotzen du; joera hori, ordea, 2015ean aldatu zen, baina EGBLak bilatzen duen ordezkaritzaren % 50koari eutsita. El PSE-EEk (PSOE) % 43koari eusten dio 2007an eta 2011n, eta % 48raino igotzen du 2015ean, % 50etik bi puntura geldituta. EH BILDU, zeinak abiapuntu gisa baitzuen 2007an emakume hautetsien % 0 izatea, % 51ra iritsi zen 2011n eta % 49ra 2015ean; horrekin, joeraren halako egonkortze bat gertatzen da % 50ekoaren inguruan. PP da 2011n da portzentaje okerrena lortzen duena, % 39rekin: 10 puntu egiten du behera 2007an lortu zuen % 49tik, eta beheranzko joerari eusten dio 2015ean, % 35ekin.

## Ondorioak

Lehenengoa eta azpimarragarriena da EGBLak eragin positiboa duela aztertutako item guztieta. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusietan aplikatu ondoren, emakumeen portzentajeak % 50eraino egin zuen gora hautagai-zerrendetan, horixe baitzen arauak eskatzen zuen portzentajea.

Emakume zerrendaburuen portzentajeek emaitza nabarmen txikiagoak lortzen dituzte, % 32ko batez bestekoarekin. Datu hori kontuan hartuta, eta jakinda emakume hautetsien portzentajea % 42koa dela, 8 puntu beherako zerrendetan dagoen emakumeen portzentajetik, esan dezakegu emakumeek zerrenda horietan betetzen duten tokia faktore erabakigarri bat dela erabakiak hartzen dituzten organoetan ordezkaritzaren % 50 lortzeko edo ez lortzeko.

Logikoa denez, emakume hautetsi zerrendaburuen portzentajea, % 30, txikiagoa da emakume hautetsien zenbateko osoa baino, % 42, baina emakume hautagai zerrendaburuen portzentajea, % 32, baina txikiagoa ere bada. Zerrendetan betetzen den tokiaren garrantzia dela eta, nabarmendu beharra dago emakume hautagai zerrendaburuen portzentajearen, % 32, eta emakume hautetsi zerrendaburuen portzentajearen, % 30, arteko aldea 6 puntu txikiagoa dela emakume hautagailen portzentaje orokorraren, % 50, eta emakume hautetsien portzentaje orokorraren, % 42, artean dagoena baino. Bistan dagoen zerbait da, baina zerrendaburua izatea irteerako posizioa hobea da hautatua izateko. Gauza bera gertatzen da, seiko tarteetako bakoitzean dauden posizioekin.

Aztertutako datuetatik ondorioztatzen den beste egitate bat da ezen ordezkaritzaren % 50 lortzeko EGBLaren erreforma bat egin beharra dagoela, zerrendetako lehentasun-ordena ezartze aldera.

Gobernu organoei dagokienez, kristalezko sabaia ezartzen da. Sekula ere ez da izan emakume ahaldun nagusi lurralte historikoetako bakarrean ere. Ahaldunorde nagusiaren figurari dagokionez, bitan baizik ez dute emakumeek postu hori bete, eta bietan Araban izan zen: 2011n, PPko bat, eta 2015ean, EAJ-PNVko bat. Foru diputatuetan ikusten den eragina handiagoa da, eta % 40ra iristen da lurralte guztieta 2007an, eta % 50era 2011n. 2015ean, azkenik, % 50ekoa gainditzen da.

## X . EAEko UDAL HAUTESKUNDEAK

### 1. Sarrera

EAEko udal hauteskundeetan, eta Eusko Legebiltzarrerako edo batzar nagusietarako hauteskundeetan ez bezala, aplikatzeko den araua ez da [EGBLa](#). Hauteskunde horietarako araua [EGBELada](#). EGBLak ez bezala, EGBELak ezartzen du zerrendetan «ez dela sekula egongo sexu bakoitzetik ez % 40 baino gutxiago, ez eta % 60 baino gehiago ere 5 pertsonako tarte bakoitzean». EGBELak 2007an hartu zuen indarra; hori dela eta, hautatutako deialdiak honako hauek dira: lege hori indarrean sartu aurreko azkenekoa, [2003ko maiatzaren 25eko](#), eta ondorengo beste guztiak: [2007ko maiatzaren27koa](#), [2011ko maiatzaren 22koa](#) eta [2015eko maiatzaren 24koa](#). Lehenengo deialdian [Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organiko](#)ka ez zegoen aldatuta berdintasunaren inguruko beste inongo legeren bitartez; gainerako hirurekin, berriz, horixe gertatu zen.

Gainerako hauteskundeetan ez bezala, azterketa lurrarde guztieta ordezkaritza lortu duten alderdietara mugatu da. Udal hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi horien artean, berriz esan beharra daukagu alderdiak legez kanpo uzteak eragindako sigla-dantzaren eta hauteskunde-koalizio konplexuen ondorioz eta hainbat udalerritan presentzia nabarmena izan duten beste alderdi batzuk agertzearen eta desagertzearen ondorioz, batzuetan emaitzen ondorioak bi kasuren arabera jaso dituela azterketa honek. Honako hauek bakartzat hartuko dira: alde batetik, EAJ/PNV eta EAJ/PNV-EA, eta bestetik, EH, EAE-ANV, EH BILDU. Lehenengo kasuan, EAJ/PNV aipatuko dugu; bigarrenean, berriz, EH BILDU.

Biztanle kopurua udalerrien lagina ezartzeko irizpideetako bat izan da. Arauak berandutze epe bat<sup>42</sup> ezartzen zuen 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan aplikatzeko, baina azterlan honi begira deialdi guztieta hartu dugu kontuan hori. Beste irizpide bat izan da lurrarde historiko bakoitzaren lagin adierazgarri bat edukitza. Lagina 112 udalerrik osatzen dute: 1.000 biztanletik beherako 14 udalerri (Baños de Ebro, Iruraiz-Gauna, Lanciego, San Millán, Aulesti, Mañaria, Artea, Elantxobe, Fruiz, Trucios-Turtzioz, Abaltzisketa, Aduna, Aizarnazabal, Leintz-Gatzaga); 1.000 eta 3.000 biztanle bitarteko 13 udalerri (Zuia, Alegria-Dulantzi, Ayala-Aiara, Iruña de Oca, Atxondo, Dima, Mundaka, Bakio, Sopuerta, Loiu, Astigarraga, Zestoa); 3.000 eta 5.000 biztanle bitarteko 19 udalerri (Oyon-Oion, Salvatierra, Markina-Xemein, Berriz, Iurreta, Zaldibar, Sondika, Zamudio, Plentzia, Urduliz, Lemoa, Ugao-Miravalles, Orduña, Igorre, Astigarraga, Zestoa, Eskoriatza, Ibarra, Soraluze); 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko 26 udalerri (Amurrio, Abadiño, Abanto-Zierbena, Balmaseda, Berango, Derio, Elorrio, Etxebarri, Güeñes, Lekeitio, Muskiz, Ondarroa, Ortuella, Aretxabaleta, Deba, Lazkao, Legazpi, Lezo, Mutriku, Orio, Ordizia, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zumaia); 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko 22 udalerri (Llodio, Arrigorriaga, Bermeo, Ermua, Gernika-Lumo, Mungia, Sopela, Amorebieta-Etxano, Andoain, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Elgoibar, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Oñati, Oiartzun, Pasaia, Tolosa, Zumarraga); 20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko 12 udalerri (Basauri, Durango, Erandio, Galdakao, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Mondragón, Eibar, Errenteria, Zarautz); 50.000 eta 100.000 biztanle bitarteko 3 udalerri (Barakaldo, Getxo, Irun) eta 100.000 biztanletik gora dituzten 3 udalerri (Vitoria-Gasteiz, Bilbao eta Donostia), honako hauteskundeetarako [2003ko maiatzaren 25eko](#), [2007ko maiatzaren 27koa](#), [2011ko maiatzaren 22koa](#), eta [2015eko maiatzaren 24koa](#).

<sup>42</sup>Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren bi eta hiru apartatuak. Bi. Lerrokada berria gehitu zaio 187. artikuluko 2. paragrafoari; lerrokada horrek hurrengo idazkera izango du: «Lege honen 44 bis artikuluan ezarritakoa ez da galdatuko 3.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrietan aurkezten diren hautagai-zerrendetan.» Hiru. Lerrokada berria gehitu zaio 201. artikuluko 3. paragrafoari; lerrokada horrek hurrengo idazkera izango du: «Lege honen 44 bis artikuluan ezarritakoa ez da galdatuko 5.000 biztanle edo gutxiagoko uharteetan aurkezten diren hautagai-zerrendetan.»

## **2. Hauteskunde-zerrendak**

### **2. 1. Emakume hautagaiak**

#### **1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak**

2003an, EAE osoan, hauteskunde-zerrendetan aurkezten ziren emakumeen portzentajea % 36 zen, nahiko hurbil EGBELak eskatzen duen % 40tik, baina oso urrun EGBLak ezartzen duen % 50etik eta askoz ere urrunago EGBELak baimentzen duen gehienekotik, % 60tik. 2007ko araua aplikatzearekin, ez baitzen udalerri horietan bete beharrekoa, hobekuntza txiki bat gertatzen da termino portzentualetan, % 37, baina ez termino absolutuetan, zeinak berdin mantentzen baitira. 2011ko eta 2015eko portzentajeak ez dira nabarmen aldatzen, % 38 eta % 35 dira hurrenez hurren. Bizkaia da guztietai portaera onena duena hauteskunde guztietai.

#### **1.000 eta 3.000 biztanle bitarteko udalerriak**

2003an, udalerri horien guztizkoan, emakumeen % 34 geneukan zerrendetan. EGBELaren aplikazioarekin, kontuan izanda aurrekoetan bezala ez zela nahitaez bete beharrekoa, portzentajeak nabarmen egiten du hobera, eta arauaren gutxienekoa betetzetik puntu batera gelditzen da: % 39. Ondorengo hauteskundeetan gutxienekoa lortzen da, baina EGBLaren % 50etik eta EGBELaren gehienekotik urrun. Portaerarik onena Araban aurkitzen dugu, 2015ean: % 46. 2011n eta 2015ean % 40 inguruko portzentajea lortzen da EAE osoan.

#### **3.000 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriak**

EGBELa nahitaez bete beharrekoa da udalerrien multzo horrentzat. 2003an zerrendetan zeuden emakumeek % 32 egiten zuten. 2007an % 38ra iristen da, EGBLak eskatzen duen gutxienekotik bi puntura. 2011ko eta 2015eko hauteskundeetan, % 48rekin, EGBELaren eragina handiagoa da. Portaera antzekoa da hiru lurralteetako udalerrietan.

#### **5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Emakumeen presentzia % 34koa da 2003an, eta 2007an, berriz, % 45ekoa. Horrek esan nahi du 11 puntu igoera egon dela, EGBELak eskatzen duen ordezkaritzaren gutxienekoa gaindituz, baina baimendutako gehienekora, % 60ra, iritsi gabe. Horrenbestez, EGBELak eragin oso positiboa du. 2011n, ordezkaritzaren % 48rekin, 3 puntu inguruko igoera gertatzen da: hobekuntza arin bat dela esan dezakegu. 2015ean, berriz, % 47rekin okertze txiki-txiki bat gertatzen da. Ez da EGBLaren % 50era iristen, eta are gutxiago EGBELak baimentzen duen gehienekora, % 60ra. Kasu guztietai, EGBELak eragin positiboa izan du, nahiz eta 2007an txikiagoa izan 2011n eta 2015ean baino, zeren eta inplizituki gizonezkoentzat erreserbatuta dagoen ordezkaritzaren % 60ko erdiesteko ezintasuna sumatzen hasten baita.

## **10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Emakumeen presentziaren 2003ko portzentajea, % 35, % 46raino handitu zen 2007an. Horrek esan nahi du 11 puntuigoera delako, EGBELak eskatzen duen ordezkaritzaren gutxienekoa gaindituz, baina baimendutako gehienekora, % 60ra, iritsi gabe. Horrenbestez, EGBELan eragin oso positiboa dago hura onetsi eta berehala. 2011n, emakume hautagaien kopuruak behera egin zuen zenbaki absolutuetan, eta % 46ko portzentajeari eutsi zion; 2015ean, ordea, pixka bat egin zuen gora, % 47raino. Kasu guztietan, EGBELaren ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40koa, gainditzen da, baina bietako batean ere ez da iristen EGBLaren % 50era; are gutxiago EGBELaren gehienekora, % 60ra. Aurreko populazio-tartean ageri denaren portaera berarekin, deialdi guztietan EGBELak eragin positiboa izan du, baina eragin hori 2007an izan da sakonagoa 2011n eta 2015ean baino. 2007an igoera nabarmena izan zen, baina 2011n eta 2015ean igoera hori txikia izan zen, eta horretan susma daiteke halako oztopo ikusezin bat dagoela, emakumeei % 60ra iristea eragozten diena. Ez dugu ikusten EGBLak, nahiz eta aplikatzeko den araua izan, eraginik izan duenik ordezkaritzaren portzentaje hori eskatzen den % 50ekoa izateko, eta Konstituzio Auzitegiak epai bidez esan duenez, 60-40 proportzionaltasun-printzipioaren parametroen barruan dago.

## **20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Araban populazio hori duen udalerririk ez dago. Emakume hautagaien portzentajea 2003an % 33 izatetik 2007an % 46 izatera pasa zen. Horrenbestez, 13 puntu egin zuen gora, EGBELak eskatutako gutxieneko ordezkaritza gaindituz baina baimendutako % 60ra iritsi gabe. Horrenbestez, EGBELaren eragin oso positiboa dago lehenengo une horretatik. 2011n, % 46ko portzentajeari eusten zaio, eta 2015ean portzentaje horrek hobera egiten du, % 48raino. Kasu guztietan, EGBELaren ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40koa, gainditzen da, baina bietako batean ere ez da iristen EGBLaren % 50era; are gutxiago EGBELaren gehienekora, % 60ra. Aurreko populazio-tartean ageri denaren portaera berdinarekin, esan dezakegu portaera bera izan dela eta 2011n eta 2015ean halako geratze bat gertatu dela. 2007an igoera nabarmena izan zen, baina 2011n igoera txikia izan zen, eta horretan susma daiteke halako oztopo ikusezin bat dagoela, emakumeei ordezkaritzaren % 60ra iristea eragozten diena. Oraingoan ere ez dugu ikusten EGBLak eraginik izan duenik. Portaera antzekoa da hiru lurralteetan.

## **50.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak**

EGBELaren eragina oso positiboa izan zen 2007an, eta 2003an ordezkaritzaren % 39 izatetik % 47 izatera pasa zen, aurreko sei tarteetan gertatzen denaren antzera. EGBELak ezartzen duen % 40eko gutxienekoa gainditzen da, eta EGBLaren % 50era iritsi gabe. 2011n eta 2015ean ordezkaritzak % 47 izaten jarraitzen du. Badirudi 40-50 portzentajea dela emakumeek lor dezaketen ordezkaritzaren sabaia, nahiz eta arauak % 60 bideratu.

## **100.000 biztanletik gorako udalerriak**

2003an, ordezkaritza % 37 zen eta 2007an, berriz, EGBELa indarrean sartzearekin, igoera nabarmen bat gertatzen da % 49koa. Portzentajeak 12 puntu egin zuen gora, baina ez 2011n, ez eta 2015ean ere ez zitzzion eutsi. EGBELak eragin positiboa izan du, beraz, baina ez du ematen ordezkaritzaren gutxienekotik, % 40tik, gora egiteko joerarik dagoenik.

## Ondorioak

*Erkidego osoa hartu eta aztertutako udalerri guztiak aintzat hartuta, orain arte esandakoa berresten dugu. 2007an, EGBELak eragin positibo argia izan zuen, zeren eta emakume hautagaiak 2.582 izatetik, % 34ko presentziarekin, 3.903 izatera pasa baitziren, % 44koarekin. 2011n eta 2015ean, 4.680 eta 3.917 emakume hautagairekin, ordezkaritzaren portzentajea % 46raino eta 47raino igo zen. EGBELak eragin handixeagoa izan zuen Bizkaian eta txikixeagoa, berriz, Araban, baina ez da eragin adierazgarriz, zeren eta eragina antzekoa baita lurralte guztietan. Halaber, EGBELaren eragina homogeneoa da udalerri guztietan, biztanleen kopurua zein den ere. Deigarri gertatzen da kasu bakarrean ere ez lortzea emakume hautagaiak % 60 izatea, horixe baita EGBELak bultzatzen duen «presentzia orekatuaren» printzipioak bideratzen duena; halaber, harrigarri gertatzen da kasu bakarrean ere ez lortzea EGBLak bilatzen duen % 50ekoa. Badirudi «presentzia orekatuaren» printzipioak, EGBELak oinarri duenak, bideratzen duela % 40 inguruko joera bat izatea, eta portzentaje hor bilakatzea halako «itzaleko kuota» bat, gizonei % 60koa bermatzen diena. Emakume hautagaien portzentaje horrekin hautetsi ateratzen diren emakumeen portzentajeari erreparatu beharko diogu.*

## 2. 2. Zerrendaburu diren emakume hautagaiak

### 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak

2003an emakume zerrendaburuak % 30 izatetik 2007an % 41 izatera pasa dira. Ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40, eta puntu bat gehiago lortzen da. Joera horri ez zaio 2011n eusten, zeren eta % 31raino jaisten baita, ia 2003ko posizioetara itzuliz. 2015ean 6 puntu berreskuratzen diren arren, % 37rekin, EGBELaren gutxienekora iritsi gabe jarraitzen da. Lurraldeen arabera, Bizkaia da lurralte bakarra non hiru hauteskundeetako portzentajeak % 32tik gorakoak diren 2003an. Araban, oinarria 2003ko % 25koa da, eta 2007an 2 puntu atzera egiten da. 2015ean, berriz, % 38koa lortzen da, Gipuzkoako % 22tik gora, baina Bizkaiko % 42tik behera. Gipuzkoa da, 2007an % 56 lortuta, EGBELak eragin handiena izan duen lurraldea, baina 2011n eta 2015ean lege horrek eragin txikiiena izan duen tokia da, bi hauteskunde horietan % 22 lortu baita. Emakume zerrendaburu hautetsien portzentaje horiek guztiak emakume hautetsien portzentaje orokorretatik behera gelditzen dira; horrek adierazten du emakumeek zerrendetan duten tokiak garrantzi handia duela. Halaber, tarteen osaera erabakigarría da emakume hautetsien guztizko portzentajeak azaltzeko. Bosteko tarteetan 3 emakume eta 2 gizon, edo alderantziz, 3 gizon eta 2 emakume, egon daitezkeen arren, datuek diote hautatutako formula azken hori dela, eta gainera, horretan, emakumeek ez dituztela hartzen 5eko tarte bakoitzaren lehenengo tokiak.

### 1.000 eta 3.000 biztanle bitarteko udalerriak

EAE osoa hartuta, 2003an emakume zerrendaburuak % 20 izatetik 2007an % 21 izatera pasa dira. Ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40koa, ez lortzeaz gainera, ordezkaritzako puntu bat ere galtzen da. Joera horri ez zaio eusten, zeren eta 2011n puntu hori berreskuratzen baita eta 2009an % 29 lortzen baita, 2003ko emaitzatik 8 puntu gorago, baina oso urrun EGBELak ezarritako gutxienekotik. Populazioaren tarte horretan, Bizkaia berriz ere da hiru hauteskundeetako ehunekoak, % 30, 30 eta 32, hurrenez hurren, hasierako, 2003ko, % 19tik gora dituena. Araban eta Gipuzkoan, 2003ko portzentajeak —lehengoaren kasuan, % 14rekin, eta bigarrenaren kasuan % 44rekin— oso urrun dauden aurren, eta 2015ekoek —% 18 Araban eta % 44 Gipuzkoan— arrakalari eusten badiote ere, EGBELaren eragina berdin gorabeheratsua da. Bi lurralteetan portzentajeek behera egiten dute 2007an EGBELa aplikatzarekin, 2011n pixka bat errekuperatzen dira eta 2015ean hobera egiten dute. Arabako kasuan 2003koa gainditzen da eta Gipuzkoan errekuperatu ere egiten da. EGBELaren eragina gorabeheratsua da: negatiboa 2007an eta positibo

samarra 2011n eta 2015ean. Kasu guztietauk oso urrutia daude EGBLaren gutxienekotik, % 40tik, eta, horrenbestez, EGBLaren % 50etik eta EGBELaren gehienekotik, % 60tik. EGBELaren eraginak okerrera egiten du tarte honetako udalerrieta, aurreko tartearekin alderatuta.

### **3.000 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriak**

2003an, emakume zerrendaburuen portzentajea % 20 da, eta EGBELaren aplikazioarekin % 25 izatea baizik ez da lortzen 2007an, eta puntu bat gehiago 2011n, eta berriz ere hiru puntuko atzeratze bat gertatzen da 2015ean, % 23raino. Tarte horretan, portzentaje onena Araban aurkitzen dugu, 2011n, % 42rekin; izan ere, Iurralde eta deialdi bakarra da non EGBELaren gutxienekoa, % 40, lortzen den; portzentaje txarrena, berriz, Bizkaian aurkitzen dugu 2011n, % 18. Horrekin, gainera, Iurralde horretan aurreko tarteetan izandako portaera hausten da, zeren eta 2003ko irteerako portzentajearen aldean beherakada oso arin bat gertatzen baita, % 19; 2015ean, ordea oneratzea dator, hiru Iurraldeetako portzentaje onenarekin, % 27. Iurralde osoari eta deialdi guztiei begiratuta, EGBELak tarte horretan izan duen eragina, % 24rekin, aurreko tartetik puntu bat gorago dago, baina oso urrun dago 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien tartetik, % 37tik.

### **5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Hautagai zerrendaburuen kopuruak gora egiten du zenbateko absolutuetan, 2003an 25 izatetik 2007an 43 izatera pasatzen baita, % 21etik % 28ra igoz. Joera horri ez zitzaison eutsi 2011n, 3 puntuko beherakada bat izan baitzen, % 25; 2015ean, aldiz, igoera argi bat gertatu zen, % 33rekin. Inongo kasutan ere ez da 40ra iristen. EGBELaren eragina homogeneoa da Iurraldeko Iurralde: Iurralde guztieta eta hauteskunde guztieta hasierako portzentajeak, 2003koak, gainditzen di ra. Araban, 2007an aurkitzen dugu apalena, % 14, baina baita altuena ere, % 83, 2015ean. Halaber, Iurralde bakarra da non ehunekoak hauteskunde hauteskunde hobera egiten duten; besteetan, berriz, gorabeheratsuak dira. EGBELaren eragina positiboa da. Oro har, aurreko tarteetan ikusi dugun gauza bera gertatzen da: % 24ekin portzentajeak hobera egiten du aurrekoekin alderatuta, baina 1.000 biztanletik beherako udalerrieta % 37ra iritsi gabe, zeina badirudi halako kristalezko oztopo bat dela ordezkaritzarako.

### **10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Emakume hautagai zerrendaburuak 18 izatetik, % 17ko portzentajearekin 2003an, 39 izatera pasatzen dira, % 31rekin, 2007an. Hau da, 14 puntuko igoera egon da. Hori, halere, ez da nahikoa EGBELak adierazitako gutxieneko ordezkaritzara iristeko. Igoera horrek ez digu aukerarik ematen EGBELan eragin positiboa bate hitz egiteko, onetsi eta lehenengo une horretan. 2011n, ordezkaritzaren ehunekoak zer edo zer igo zen, % 32raino, eta 2015ean % 36raino; horrenbestez aurrerapen etengabeko bat gertatzen da. Araban 2011n eta 2015ean izan ezik, % 50rekin eta % 80rekin, hurrenez hurren, beste inoiz ere ez da lortzen EGBELak adierazitako ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40, lortu, ez eta EGBLaren % 50koa ere, eta are gutxiago EGBELaren gehienekoa, % 60. Aurreko populazio tartearen portaera bera lortuz hiru deialdietan, ordezkaritzaren % 29rekin, esan daiteke EGBELak eragin erlatibo eta apala izan duela.

### **20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Araban batere udalerririk ez dago biztanle kopuru hori duenik. Emakume zerrendaburuen kopurua termino absolutuetan 2003an 14 izatetik 2007an 16 izatera pasa ziren, 2011n 21 izatera eta 2016an 29 izatera (%

25, 24, 24 eta 37 da hori). Bizkaian portzentajea hauteskundetik hauteskundera hobetzeko joera hori izaten jarraitzen dugu, eta Gipuzkoan berriz ere portaera gorabeheratsuak aurkituko ditugu. EGBELaren eragina positiboa da populazio tarte horretan, baina txikixeagoa da aurreko tartekoa baino, zeren eta % 28raino jaisten baita. Aurreko populazio tarteetan portaera eta portzentajeak antzekoak dira, horren barne direla 1.000 biztanletik beherako tartean azalduztako aldeak.

### **50.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Oraingoan ere, Araban ez dago udalerri bat ere tarte horretan. EGBELak eragin oso positiboa izan zuen 2007an, 3 hautagai zerrendaburutik, ordezkaritzaren % 21ekin, 7ra (%35) pasatu baitzen: azken hori une honetara arte aztertutako zazpi tarteetatik seitan aurkitutako gehienekoa da. Ez da EGBELan ezarritako gutxienekora, % 40ra, iristen. 2011n, 11 emakume hautagai zerrendabururekin, portzentaje altuagoa lortzen da, % 41. Ikusten da 2007an 14 puntuoko gorakada bat izan zela, eta 6 puntuoka, berriz, 2011n. Joera horri ez zaio 2015ean eusten, zeren eta 2003kora iritsi gabe, lortzen den portzentajea, % 28, oso urrun baitago aurreko hauteskundeetako portzentajetik. Gipuzkoan, 2011n gertatu zen atzera-egitea, eta 2015ean beheranzko joerari eutsi zitzaion. Bizkaian, 2015ean gertatu zen atzera-egitea. 2007an joera oso positiboa bada ere, azken hauteskundeetan joera alderantzizkoa da. Badirudi berresten dela % 40koa «emakumeentzako mugako kuota» bat dela, eta % 60koa «gizonen kuota» dela, «presentzia orekatuaren» kontzeptutik aldenduta.

### **100.000 biztanletik gorako udalerriak**

2003ko emaitza, 9 emakumerekin, % 31, 2007an gainditzen da, 10 baitira emakume hautagai zerrendaburua, presentziaren % 38rekin. 2011n, berriz, atzera-egite bat gertatzen da, % 21eraino. Kasu horietan guztietai emakume zerrendaburuak ordezkaritzaz urrun gelditzen da EGBELaren gutxienekotik, % 40tik. Aurreko tarteak kontuan hartuta uste bagenezake ere populazio gehiagoko udalerriek emakumeen eta gizonen «ordezkaritzaz orekatua» erraz zezaketela, datu horiek behartzen gaituzte uste hori ezesteria, zeren eta 1000 biztanletik beherako udalerrietan aurkitzen ditugun datuen antzekoak baitira. Emaitzek ez dute argitasunik ematen, zeren eta EGBELak 2007an izan zuen eragina garrantzi txikikoa bada, badirudi 2011ko atzera-egiteak eragin negatibo bat iradokitzen duela, baina 2015eko errekkuperazioak % 38rekin, eragin gorabeheratsu bat erakusten digu, EGBELaren gutxienekoarekin, % 40ekin.

### **Ondorioak**

*Erkidego osoa hartuta*, esan dezakegu EGBELak 2007an eragin positibo bat izan zuela, zeren eta 2003ko 112 zerrendaburuetatik (% 22) 172ra (% 28) pasatu baitzen. Zenbaki absolutuetan emakume zerrendaburu gehiago badaude ere, 2011n portzentajeak beherantz egin zuen, % 27raino, eta 2015ean errekkuperatu egin zen, 180 emakume hautagairekin, hau da, % 33rekin. Udalerri guztiak hartuta, Araban eta Bizkaian portzentajeak hobera egin du hauteskundetik hauteskundera. Gipuzkoan ez, ordea, 11 puntutan behera egin baitu 2011n. Gauza bera gertatzen da erkidegoko udalerri guztiak kontuan hartzen baditugu: portzentajeak hobera egiten du hauteskundetik hauteskundera, 2011n izan ezik, orduan beherakada arin bat gertatu baitzen, 3 puntuoka. Behin ere ez da iristen % 40ra. EGBELak emakume hautagai zerrendaburuak ordezkaritzari buruzko inongo irizpiderik ezartzen ez duen arren, horrek ez du esan nahi garrantzirik ez duenik arauaren eraginkortasuna neurtzeko eta haren balizko gabeziak eta hobekuntza-esparruak detektatzeko.

### **3. Hauteskunde-emaitzak**

#### **3.1. Emakume hautetsiak**

##### **1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak**

2003an eta 2007an emakume hautetsien kopurua, 26, eta zerrendetako presentziaren portzentajea, % 27, bera da; horrenbestez, EGBELak ez du eraginik. 2011n, kopuruari eusten zaio, baina portzentajeak puntu bat egiten du gora, eta 2015ean, beriz, portzentajeak 3 puntu egiten du gora, % 31raino. Baldin eta EGBELak, bere «presentzia orekatuaren» printzipioarekin, helburu bazuen emakumeak eta gizonak 40-60 portzentaje batean presente egotea erabakiak hartzeko postuetan, haren aplikazioarekin lortutako emaitzak oso urrun gelditu dira hartatik, zeren eta presentziaren gutxienekora ere ez baita iristen. Emaitza txar horiek azaltzeko, gogorarazi beharra dago ez dela nahitaezkoa EGBELa biztanle kopuru hori duten udalerrietan. Lehenengo hiru kasuetan, emakume hautetsien portzentajea 10 puntu behera dago emakume hautagaien portzentajetik. Araban, lege horren eragina negatiboa da 2007an, zeren eta ordezkaritzaren 4 puntu galdu baitziren, % 21; halere, portzentaje txikieta 2011n aurkitzen dugu, Gipuzkoan, % 18rekin. Bizkaian emakume hautetsien portzentajea hauteskundetik hauteskundera igotzen joan zen, zerrenden osaeran gertatzen zen bezala, baina haren aldean 10 puntu beherago. Esan dezakegu EGBELak nolabaiteko eragin positiboa izan duela, baina eraginkortasun mugatukoa, zeren eta ez baita iristen EGBELaren presentziaren gehienekora, % 60ra, ez eta gutxienekora ere, % 40ra.

##### **1.000 eta 3.000 biztanle bitarteko udalerriak**

EGBELaren eragina askoz ere argiagoa da tarte honetako udalerrietan. 2003an, emakumeen portzentajea, % 24rekin, 3 puntu txikiagoa zen aurreko tartean baino, baina 2015eko hauteskundeetan, portzentajea, 10 puntu igo ondoren, % 34raino, aurreko tartetik hiru puntu gorago gelditzen da. EGBELaren eraginik handiena Gipuzkoan aurkitzen dugu, zeren eta 2003an % 22ko presentzia izatetik 2015ean % 39koa izatera pasatzen baita. Arabarekin batera, emakume hautetsien portzentajeak gora egiten du hauteskundetik hauteskundera. Bizkaian, eragina txikiagoa da, nahiz eta zenbaki orokorretan egiaztatzen dugun EGBELak eragin positibo bat izan duela, baina aurreko tartean bezala inongo lurraldetan edo hauteskundetan ez da lortzen emakumeak % 40ra iristea.

##### **3.000 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriak**

EGBELaren eraginak gora egiten jarraitzen du tarte honetan. 2007an, % 33rekin, ez da lortzen emakume hautetsien gutxienekora, % 40ra, iristea, baina 2011n eta 2015ean, bietan, % 44 lortzen da, ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40, gainditura, nahiz eta 2003ko abiapuntua % 25 baizik ez izan. Hiru lurraldeetan gutxienekoa, % 40, lortzen da, eta emaitzarik onena ateratzen dituena Araba da, emakume hautetsien % 45ekin 2015ean, EGBLak bilatzen duen % 50etik 5 puntura eta EGBELak jasotzen duen gehienekotik 15 puntura.

##### **5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Emakume hautetsiak 2003an 96 izatetik (% 29) 2007an 134 izatera (% 40) pasatu ziren. Horrek esan nahi du 11 puntuiko igoera bat gertatu dela, EGBELaren ordezkaritzaren gutxienekora iritsita, nahiz eta gehienekora, % 60ra, iritsi ez. Horrenbestez, EGBELak eragin oso positiboa izan zuen lehenengo une

horretan. 2011n, 139 hautetsirekin eta ordezkaritzaren % 41ekin, puntu bateko igoera gertatzen da, eta hori hobekuntza txiki bat dela esan dezakegu; 2015ean, 143 hautetsirekin, 2011ko % 41eko portzentajea errepikatzen da. Hiru hauteskundeetan EGBELak eragin positibo bat dauka, eta horrek erakusten du 2007an eraginkortasun handiagoa izan duela.

### **10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Emakume hautetsien kopurua 2003an 102 izatetik, % 27ko presentziarekin, 144 izatera pasatzen da 2007an, % 39rekin. Horrek esan nahi du 12 puntuko igoera bat gertatu dela, EGBELaren gutxienekotik puntu batera. EGBELak eragin positiboa izan duela esan badezakegu ere, aipatu beharra dago haren eraginkortasuna mugatua dela bilatzen den helburua erdiesteko: emakumeek ordezkaritzaren % 40 lortzea, gutxienez ere. 2011n, emakume hautetsien kopuruak gora egiten jarraitzen du zenbaki absolutuetan, 156ra iristen baita, bai eta zenbaki erlatiboan ere, % 42raino. 2015ean, hobekuntza progresibo arina izateko joerari eusten zaio. Aurreko populazio-tartearen ageri denaren portaera berarekin, deialdi guztietan EGBELak eragin positiboa izan du. 2007an igoera handi bat gertatzen da, EGBELak ezarritako gutxienekotik, % 40tik, puntu batera geratzeraino; 2011n eta 2015ean, gainera, igoerak gertatu ziren. Portaera antzekoa da hiru lurralteetan.

### **20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Araban batere udalerririk ez dago biztanle kopuru hori duenik. Emakume hautetsien kopurua 2003an 83 izatetik, % 32ko portzentajearekin, 101 izatera pasatzen da 2007an, % 40rekin. Horrek esan nahi du 8 puntuko igoera bat gertatu dela, EGBELaren gutxienekora iritsita. Horrenbestez, EGBELaren eragin positiboa bat badago, bera onetsi eta berehala. 2011n, 111raino (% 44) igotzen da emakume hautetsien zenbaki absolutua. 2015ean, goranzko joera arinak jarraitzen du, 113 emakume hautetsirekin (% 45). Hiru kasuetan, EGBELaren ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40koa, gainditzen da, baina hiruetako batean ere ez da iristen EGBLaren % 50era; are gutxiago EGBELaren gehienekora, % 60ra. Lurraldeei begiratuta, EGBELaren eragina antzekoa da hiru lurralteetan: igoera kualitatibo bat 2003tik 2007ra, % 40koa lortuz, ordezkaritzaren gutxienekoa. Halere, hiruetako batean ere ez da lortzen EGBLaren % 50era iristea, eta Bizkaia da emakume hautetsien portzentaje handiena duena. Horrenbestez, esan dezakegu aurreko tartearen ikusi dugunaren antzeko portaera dagoela. 2007an igoera nabarmena, baina 2011n igoera txikia: horretan susma daiteke halako oztopo ikusezin bat dagoela, emakumeei ordezkaritzaren % 60ra, EGBELak baimendutako gehienekora, iristea eragozten diena. Oraingoan ere ez dugu ikusten EGBLak eraginik izan duenik.

### **50.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak**

EGBELak eragin oso positiboa izan du 2007an, aplikatu zen lehenengo aldian, 22 emakume hautetsitik (% 29) 30era igoz (% 40). EGBELak ezartzen duen gutxienekoa, % 40koa lortzen da. 2011n, 32 emakume hautetsirekin eta portzentajearen % 43rekin, esan dezakegu goranzko joera bat badagoela, 2015eko emaitzekin berresten dena: 37 emakume hautetsi, % 49, EGBLak ezarritako % 50etik puntu bakarrera. Badirudi berresten dela % 40-50eko portzentajea EGBELaren eraginkortasunaren muga dela.

### **100.000 biztanletik gorako udalerriak**

2003an, 28 emakume hautetsirekin, emakumeen ordezkaritza % 38koa zen. 2007an, ordea, EGBELa indarrean sartzearekin, igoera nabarmen bat gertatzen da, zeren eta 36 hautetsirekin eta % 43ko

ordezkaritzarekin, portzentajeak 7 puntu gora egiten baitu. 2011n, emakume hautetsien kopuruari, 36, eta ordezkaritzaren portzentajeari, % 43, eusten zaio; 2015ean, beriz, bi emakume hautetsi gehiago lortzen da (% 46). EGBELak eragin positiboa izan du, beraz, baina ordezkaritzaren gutxienekoaren (% 40) inguruan geratzen da.

## Ondorioak

*Erkidego osoa hartuta*, eta kontuan hartuz aztertutako udalerri guztiak, 2007an EGBELak eragin positibo argia izan zuen, zeren eta emakume hautetsien kopurua 440 izatetik (% 29) 580 izatera (% 37) pasatu baitzen, EGBLak eta EGBELak planteatutako gutxienekoak lortu gabe. Errealitate hori homogeneoki azaltzen da hiru lurralteetan, zeren eta haietan emakume hautetsien portzentajeek hobera egiten baitute, kasu bakarrean ere % 40ra iritsi gabe. 2011n, emakume hautetsien kopuruak gora egiten jarraitzen du, 640 izateraino (% 41). Badirudi arauaren aplikazio jarraituak haren eragingarritasuna hobetzen duela, zeren eta oraingoan EGBELaren gutxienekora, % 40ra iristen baita. Lurralde guztietan % 40 lortzea zor zaio Bizkaian eta Gipuzkoan izan diren emaitza onei, zeren eta Araba % 40koa lortzetik 4 puntura gelditzen baita, % 36 baizik ez baitu lortzen. 2015ean, 663 emakume hautetsirekin, beriz ere puntu bat gora egiten da ordezkaritzan, eta horrek % 42koa dakar. Oraingoan, Bizkaia da portzentajeari eusten dion lurralde bakarra, eta Gipuzkoa da, beriz, portzentaje handiena lortzen duena, % 44. Espero zen bezala, emakumeek irteerako postuetan posizio okerragoa izatearekin eta emakumeek zerrendaburu gisa presentzia txikia izatearekin, emakume hautetsien portzentajeek nabarmen egiten dute okerrera. Lurralde eta deialdi guztietan, emakume zerrendaburuen portzentajeara % 15-30 ingurukoa da, orokorra baino 10 puntu beherago. Esan dezakegu, EGBELak eragin positibo bat izan duela, zeren eta gaur den egunean EGBELaren gutxienekoa, % 40koa gainditzen baita, nahiz eta ez iritsi EGBLaren % 50era, ez eta EGBELaren gehienekora, % 60ra, ere. Datozen deialdietako emaitzek berretsiko digute zein portzentajetan egonkortzen den emakumeen ordezkaritza, eta arauaren eraginkortasuna baloratu ahalko da, baina gure susmoa da EGBELaren gutxienekoaren, % 40koaren inguruan eta EGBLaren % 50ekoaren inguruan geraturik dagoela. Emakume hautetsien adierazlea lotuta dago emakume hautetsien adierazlearekin eta zerrendaburuen adierazlearekin, eta, neurri txikiagoan, ordezkoen adierazlearekin.

### 3. 2. Emakume hautetsiak, alderdi politikoaren arabera<sup>43</sup>

#### 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak

Alderdi araberako emaitzak askotarikoak dira: EAJ-PNV da hiru barrutietako udalerrietan eta deialdi guztietan emakume hautetsiak lortu dituen alderdi bakarra. EH BILDUk ere emakume hautetsiak lortzen ditu lurralde guztietan, baina ez deialdi guztietan. PSE-EE (PSOE) eta PPk Araban baizik ez dituzte emakume hautetsiak lortzen. 2007an EAJ-PNV eta EH BILDUk portzentajean gora egin zuten. Lehenengoaren kasuan % 26tik % 32ra iristen da, EGBELaren % 40koa lortu gabe; bigarrenaren kasuan, beriz, % 40ra iristen da, % 32tik % 41era iristen baita. PP eta PSE-EE (PSOE) joera kontrakoa da: 2007an emakume hautetsien portzentajeak behera egiten du; horrenbestez, EGBELaren eragina negatiboa da. Lehenengoaren kasuan % 22tik % 11ra jaisten da, % 40etik oso urrun geldituta; bigarrenaren kasuan, beriz, % 100etik % 50era pasatzen da (jaitsera gorabehera, % 50ekora iristen da). 2011n EAJ-PNV eta EH BILDUK baizik ez zuten lortu emakume hautetsien % 40ra iristea; 2015ean, beriz, EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE) baizik ez zuten lortu. EGBELaren eragina askotarikoa izan da, zeren eta EAJ-PNVk baizik ez du lortu joera positibo bat izatea hauteskundetik hauteskundera.

<sup>43</sup>Azterketa lurralde osoan aurkezten diren alderdietara eta taldeetara mugaturik dago.

## **1.000 eta 3.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Tarte honetako alderdi guztieta EGBELaren eragina aurreko tartean aurkitzen dugunaren antzekoa izan da; salbuespen bakarra da oraingoan abiapuntuko portzentajeak okerragoak direla eta EGBELaren lorpenak, beriz, eskasak. PSE-EE (PSOE) eta EB-ARALARrek 2003rako bazuten jada % 40 (EGBELa ez zegoenean). Ondotik, EH BILDU eta PSE-EEk (PSOE) baizik ez dute lortzen % 40ra iristea. Lehenengoak 2011n lortu zuen eta bigarrenak 2015ean, % 60rekin. EGBELaren eragina eskasa izan da.

## **3.000 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriak**

2003an, portaerarik onena PPrena da, % 25ekin, eta okerrena, berriz, PSE-EErena (PSOE), % 5ekin. 2007an, EH BILDU eta EB/ARALAR iritsi ziren arauaren % 40ra. Lehenengo % 43rekin eta bigarrena % 50ekin. Gainerakoak, PSE-EE (PSOE), EAJ-PNV eta PP, ez dira iristen EGBELaren % 40ra. Elkarte independenteak baizik ez dira iristen EGBLaren % 50era; horrenbestez, eutsi diezaokegu adierazitako ideiari, alegia, EGBELaren ordezkaritza proportzionalaren printzipioa (60-40) emakumeentzako % 40koaren inguruko kuota bat dela. 2011n, egoera nabarmen konplikatu zen. PSE-EEk (PSOE) % 63 eta EH BILDUk % 46 lortu zuten, baina beste guztiek behera egin zuten. 2015ean, guziak iritsi ziren % 40ra, PP izan ezik.

## **5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerriak**

2003an, portaera onena EAJ-PNVk izan zuen, bai eta hautagai-zerrenda independenteek ere, % 28ko portzentajearekin. Alderdi bakarra ere ez da iristen EGBELaren % 40ra. Tarte horretan, portaerarik txarrena EB-ARALARrena da, % 11rekin. PSE-EE (PSOE) eta PP, % 18 eta 23 lortuta, hurrenez hurren, ez dira iristen ezarritako gutxienekora, % 40ra. 2007an EAJ-PNV, EH BILDU eta PSE-EEk (PSOE) % 46, 48 eta 41ekin, hurrenez hurren, EGBELaren gutxienekora, % 40ra, iristen dira; hori dela eta, kasu horietan guztieta eragina positiboa izan dela esan dezakegu. Gainerako guztieta, EGBELaren eragina gorabeheratsua izan da. EB-ARALARren kasuan, 6 puntu egin zuen gora, % 17raino, baina PPren kasuan, portzentajeak % 23tik % 7ra egin zuen behera. 2011n, EAJ-PNV, PSE-EE (PSOE) eta EB-ARALARrek emakume hautetsien portzentajearen behera egin zuten. Lehenengoaren kasuan, 10 puntu, % 46tik % 36ra; bigarrenaren kasuan, berriz, % 41etik % 9ra, eta hirugarrenaren kasuan, azkenik, % 17tik % 0ra. Aitzitik, PPn joera aldaketa bat dago, zeren eta % 7tik % 44ra pasatu baita. 2015eko emaitzak positiboenak dira. 2015ean, guztiek gainditzen dute EGBELaren gutxienekoa, eta PSE-EE (PSOE) eta PPk % 56 eta % 100 lortzen dute, hurrenez hurren. Horrenbestez, EGBELaren eragina handiagoa da tarte horretan aurrekoan baino.

## **10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriak**

Aurreko tartearen bezala, 2003an portaerarik onena EAJ-PNVk izan zuen, % 31rekin. EGBEL indarrean egon den hauteskundeetan eta EAEko esparruan, ordezkarien gutxieneko % 40ra (eta baita 10 puntutan gainditu ere, % 50era iritsita) heldu den alderdi bakarra da. Tarte honetan portaerarik txarrena EB-ARALARrena da, % 16rekin. PSE-EE (PSOE)k eta EH-BILDUk gutxieneko % 40a gainditzen dute, lehenengoak % 46rekin eta bigarrenak % 47rekin. PP eta EA ez dira iristen EGBELen gutxienekora, % 37 eta % 36 dutela hurrenez hurren. PPk portzentajerik altuena eta baxuena lortzen ditu 2015ean: hautetsi batekin Araba/Álavan % 100 lortzen du, eta Gipuzkoan eta Bizkaian % 0 hautetsirik gabe. Oro har, hauteskunde hauteskunde hautetsien portzentajea igotzen duten alderdi bakarrak EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) dira. Beste alderdiek gorabeherak dituzte, hauteskundearen eta lurrardearen arabera aurrera edo atzera eginez. EGBELaren eragin gorabeheratsua, baina joera positiboa duela.

## **20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak**

2003an, portaerarik onena EAJ-PNVk izan zuen, % 31rekin, eta txarrena, berriz, PSE-EEk (PSOE), % 18rekin. 2007an, alderdi guztiekin, PPk izan ezik, EGBELak jasotako ordezkaritzaren % 40koa gainditzen dute; horrenbestez, eragin positibo bat badago. Tarte honetan, joera EGBELaren gutxienekoa egonkortzekoa da. 2011n, ikusten dugu joerari % 40koaren inguruan eusten zaiola alderdi guztietan, EB-ARALARren izan ezik. PSE-EE (PSOE) eta EH BILDUk emakume hautetsien % 51koa lortzen dute, EGBELaren gutxienekoa, % 40koa, gaindituz, eta EGBLaren % 50era iritsita. Emakumeen % 60koa nekez erdietsiko den helmuga bat bilakatu da. Alderdik bakarrak ere ez du lortu inongo deialditan. EGBELaren eraginak hobera egiten jarraitu du tarte honetan.

## **50.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak**

2003an PPk baizik ez du lortzen EGBELaren gutxienekoa gainditzea, 15 emakume hautetsirekin eta ordezkaritzaren % 53rekin. PSE-EE (PSOE), EAJ-PNV eta EB/ARALAR, % 39, 27 eta 21ekin, ez dira iristen. 2007an, guztiekin hobetu zuten beren emakume hautetsien portzentajea, EB-ARALARrek izan ezik. EGBELak eragin desberdina izan du tarte honetan: ez dugu ikusten goranzko joera argirik dagoenik. Gauza bera gertatzen da 2011n eta 2015ean: edo % 40koaren inguruko geratze bat dago, edo atzera-egite bat, PP eta EB-ARALARren kasuan gertatzen den bezala.

## **100.000 biztanletik gorako udalerriak**

2003rako PSE-EE (PSOE), EB/ARALAR eta EH BILDU % 40tik gora daude. 2007an, EGBELaren eragina oso nabarmena da EAJ-PNV eta EB-ARALARren kasuan: lehenengoan portzentajea % 78koa da eta bigarrenaren kasuan, berriz, % 50ekoa. Biek ala biek EGBELaren gutxienekoa, % 40koa, gainditzen dute, eta EAJ-PNVk gehienekoa ere, % 60, gainditzen du. Portzentaje horiei ez zaie, ordea, eusten ez 2011n, ez eta 2015ean ere, eta indizeak berriz ere % 40koaren inguruan geratzen dira.

## **Ondorioak**

*Erkidego osoa hartuta, orain arte aipatu ditugun hipotesietako batzuk berrets ditzakegu.* 2003an, formazio gehienak ez ziren % 40ra iristen, EGBELak ezarritako gutxienekora, hiru barrutietako bakarrean ere. Gipuzkoan, EH BILDU da emakume hautetsien % 100 lortzen duen alderdi bakarra. Hiru barrutietan eta deialdi guztietan ordezkaritza dutenen artean PSE-EE (PSOE) da emakumeen portzentaje onena duena, % 33, eta portzentaje txarrena, berriz, EB/ARALARrena da, 21 hautetsirekin (% 20). 2007an, alderdi guztiekin beren emakume hautetsien portzentajea hobetu dute, baina PSE-EE (PSOE) eta EH BILDUk baizik ez dute lortzen EGBELak ezarritako gutxienekoa, % 40, gainditzea. 2011n, EAJ-PNV eta EH BILDU dira % 40 lortzen dutenak. Behin edo behin baino gehiagotan emakume hautetsiak lortzen dituzten alderdietako bakarra ere ez da iristen EGBLaren % 50era; horrek aukera ematen digu baiezatzeko joera egonkor mantentzen dela EGBELaren % 40koaren inguruan, eta ez dela inoiz iristen EGBLaren % 50era; are gutxiago EGBELaren, gehienekora, % 60ra. Alderdien portaera antzekoa da hiru barrutietan.

### **3. 3. Zerrendaburu diren emakume hautetsiak alderdi politikoaren arabera**

*Erkidego osoa hartuta, ikusten dugu EGBELaren eragina okerragoa dela adierazle honetan. 2003an, emakume hautetsi zerrendaburuen portzentajea % 29 zen PPn, % 24 PSE-EEn (PSOE), % 14 EAJ-PNVn, % 20 EB-Bn, % 20 EB/ARALARren eta % 50 EH BILDUn. Guziak, EH BILDU izan ezik, EGBELak bilatzen duen % 40tik urrun geratzen dira. EGBELa 2007an aplikatzearekin, ez da hobekuntzarik gertatzen alderdi guztieta. PPk, emakume hautetsi gutxiagorekin, portzentajeari eusten dio; PSE-EEk (PSOE) bi emakume hautetsi galtzen ditu, eta ordezkaritzaren % 24tik % 22ra pasatzen da, bere emaitza okertuta. Bi formazio horietan, EGBELaren eragina ez da positiboa. EAJ-PNVn eragina oso positiboa da lehenengo une batean, zeren eta hasierako % 14tik 2007ko % 61era pasatzen baita, eta 2011n horri eusten dio. 2015ean, ordea, % 30eraino jaisten da. Aurkitu ditugun gorabehererek erakusten dute EGBELaren eragina oso erlatiboa dela. Zalantzak gabe, kontuan hartu beharra dago beste faktore batzuk badaudela ordezkaritzaren portzentaje horien berri ematen dutenak. EB/ARALARren, gorabehera txiki batzuk gertatzen dira, EGBELaren eragin irregularra adierazten dutenak. EH BILDUn emaitza horiek okerrera egiten dute: 2003ko % 50etik 2007ko % 37ra, 2011ko % 35era eta 2015eko % 30era. EGBELaren eragina deuseza edo negatiboa da. Adierazle horretan, hobekuntza batzuk aurkitzen baditugu ere, ez dugu ikusten joera positibo jarraitu bat dagoenik, ezta EGBELaren gutxienekoaren inguruan (% 40) egonkortasuna lortzeko ere.*

## **4. Ondorio orokorrak**

EAeko udal hauteskundeetan, ordezkaritza lortzen duten zerrendetan aurkezten diren emakume hautagaien kopurua kontuan hartuta eta aztertutako udal guztiei dagokienez, esan dezakegu 2007an EGBELak eragin positibo argia izan zuela, emakume hautagaiak 2.582 (% 34) izatetik 3.903 (% 44) izatera pasa baitziren. 2011n, 4.680 emakume hautetsirekin, portzentajeak % 46raino igo zen, EGBLaren % 50era eta EGBELaren gehienekora, % 60ra, iritsi gabe. 2015ean, emakume hautagaien zenbateko absolutua 3.917raino jaitsi zen. Emakumeen presentziaren portzentajeak puntu bat gora egiten du, % 47raino. Hurrengo deialdiak aztertzen jarraitu beharko dugu ikusteko zein portzentajetan egonkortzen den emakumeen ordezkaritza, hartara EGBELaren eraginkortasuna baloratu ahal izateko.

Erkidego osoa hartuta, zerrendaburu diren emakumeen kopuruak 2007an hobera egin zuen; horrenbestez, EGBELaren eragina positiboa dela esan dezakegu. 2003an, 112 inguru dira (% 22) zerrendaburu diren emakumeak, eta 2007an, azkenik, 172 dira (% 28). Portzentaje horrek puntu bat behera egin zuen 2011n, baina 2015an, zerrendaburu bat gutxiagorekin, 178, emaitza hobeak lortzen da: % 33. EGBELak ezer ere ez dio emakume hautetsi zerrendaburuen ordezkaritza-portzentajeari buruz, baina datu oso garrantzitsua da, arauaren eraginkortasuna baloratzeko aztertu beharra dagoena. Eragingarritasun txikia izateak araua aldatzea ekarri beharko luke.

Emakume hautetsiek zenbateko absolutuetan eta erlatibuetan ondo gora egin izanak EGBELaren eragin positibo bat erakusten digu; eraginkortasuna, ordea, mugatua izan da, zeren ordezkaritzaren gutxienekoa, % 40, lortzeko bi hauteskunde behar izan baitira. 2007an, EGBELak eragin positibo argia izan du, emakume hautetsietan 2003ko % 29tik % 37ra iritsi baita, baina % 40ko helburua lortu gabe. 2011n, 640 emakume hautetsirekin, emakumeen presentziaren portzentajea pixka bat hobetu zen, % 41eraino. EGBELaren gutxienekoa, % 40, gainditzen da, baina EGBLaren % 50era iritsi gabe, ezta EGBELaren gehienekora ere, % 60ra; 2015ean portzentajeak berri ere egiten du gora. Hurrengo hauteskundeetako emaitzek adieraziko dute zein portzentajetan egonkortzen den emakumeen presentzia, eta arauaren eraginkortasuna baloratu ahalko da.

Erkidego osoa hartuta, une honetara arte azaldu ditugun hipotesietako batzuk berresten ditugu, alderdi

bakoitzeko emakume hautetsien portzentajeari dagokionez. 2003an, bakarra ere ez zen iristen EGBELak ezarritako gutxienekora, % 40ra. PSE-EE (PSOE) da portzentaje onena lortzen duena, % 33rekin, eta EB/ARALAR, berriz, txarrena lortzen duena, % 20rekin, eta bien artean, PP % 30rekin eta EAJ-PNV % 27rekin daude, EGBELaren % 40ko ordezkaritzatik urrun. 2007an, EGBELaren aplikazioak berekin dakin emakume hautetsien emaitzak hobeak izatea alderdi guztietan PPn izan ezik, azken horretan portzentajeari eusten baitzaio. Ordezkaritzaren % 40 EH BILDU eta PSE-EEK (PSOE) baizik ez dute lortzen. Gainerakoek hobera egiten dute, baina EGBELaren gutxienekora iritsi gabe. 2011n, EAJ-PNVk lehenengo aldiz lortu zuen emakume hautetsien % 40 izatea eta EH BILDUk % 46koari eutsi zion. PPk 2007ko bere portzentajeari hobetzen badu ere, % 40 lortu gabe jarraitzen du, eta PSE-EE (PSOE) eta EB-ARALARrek emakume hautetsien beren portzentajean behera egiten dute. 2015ean, ez PPk ez EB-ARALARrek ez dute % 40 lortzen; gainerakoek bai, 2011ko emaitzetan hobera eginez. EGBELaren eragina askotarikoa da alderditan. EAJ-PNVren emakume hautetsien portzentajeak hobera egiten du hauteskundetik hauteskundera; EH BILDUk 2007ko portzentajea mantendu edo okertzen du.. PSE-EE (PSOE) eta EB-ARALARrek gorabeherak dituzte: lehenengoak % 40ra iristea lortzen du, baina bigarrenak ez. PPk portzentajeari eutsi edo hura hobetzen du, baina emakume hautetsien % 40ra iritsi gabe.

EGBELak emakume hautetsi zerrendaburuuen adierazlean duen eragina guztietan okerrena da. Abiapuntua da 2003an independenteek, bi emakume zerrendaburu zituztela eta % 30rekin, portaerarik onena zutela; izan ere, gainerakoek, PP, PSE-EE (PSOE), EAJ-PNV eta EB/ARALAR, portzentaje okerragoak dauzkate, EGBELan jasotako gutxienekotik, % 40tik, oso behera. EGBELa 2007an aplikatzearikin, hobekuntza bat espero daiteke, baina ez da halakorik gertatzen alderdi guztietan. PP eta PSE-EE (PSOE)k emakume hautetsi zerrendaburuuen portzentajean behera egiten dute, eta EAJ-PNV, EB/ARALAR eta Independenteek portzentajea hobetzen dute. Kasu guztietan ikusten dugu EGBELak eragin positiboa izan duela, baina oso urrun EGBELaren gutxienekotik, % 40tik eta EGBELaren % 50etik. Adierazle horretan, ez dago joerarik % 40ren inguruko (EGBELaren gutxienekoa) ordezkaritza bat lortzeko edo egonkortzeko.

## 5. Gobernu organoen osaera. Alkatetzak

- Zenbaki absolutuetan, EAEn emakumezko alkateak 33 dira 2003an (% 13). 2007an, EGBELa aplikatu ondoren, emakumezko alkateak 48 dira (% 19). EGBELaren eragin txiki bat gertatzen da, zeren eta portzentaje hori arauaren gutxienekotik oso urrun gelditzen baita. 2011n, emakumezko alkateen zenbatekoak behera egiten jarraitzen du, 56 izateraino; horrek portzentajeari % 22 egiten du. Joera horrek gorantz jarraitzen du, baina eraginkortasun-maila erlatiboa dauka. 2015ean, emakumezko alkateen kopuruan gora egiten jarraitzen du: 64 (% 25). EGBELaren eragina, beraz, positiboa da baina haren eraginkortasuna eztabaidagarria da, zeren eta EGBELak gomendatzen duen % 40tik 15 puntu gelditzen baita, hiru hauteskundeetan aplikatu ondoren eta onetsi zenetik 10 urte iragan direnean.
- Lurraldeei erreparatuta, Arabak 2003an 8 emakumezko alkate zeuzkan, % 16; Bizkaia 11 zeuzkan, % 10, eta Gipuzkoak 14 zeuzkan, % 16. Hirurek portzentaje txikia dute, eta Bizkaia 6 puntu beherago dago Araba eta Gipuzkoa baino. EGBELa aplikatu ondoren, 2007an Gipuzkoak da EGBELaren eragin handiena duen lurraldea. Araban, portzentajeak 2 puntu egiten du gora (emakumezko alkate bat gehiago), Bizkaian 5 puntu gora (sei emakumezko alkate gehiago) eta Gipuzkoan 9 puntu gora (bederatzi gehiago). % 40ko helburua oraindik ere lortzen zaila den helburua da. 2011n, ehunekoek hobera egiten dute Bizkaian eta Gipuzkoan, baina okerrera egiten dute Araban. Azken horretan, 4 puntu galdu ziren, eta emaitzak 2003koak baino okerragoak izan ziren. Gipuzkoan aurrera-egitea oso apala da: 2 emakumezko alkate gehiago, hiru puntu gorakadarekin, guztira % 28raino iristeko. Bizkaian aurrera-egitea aipagarriagoa da: 25 emakumezko alkate (% 15etik % 22ra pasatzen da). Azkenean, 2015ean eragin nabarmenena Araban aurkitzen dugu, non 2011ko % 14tik % 29ra iristen baita. Bizkaian puntu bat egin da aurrera, % 22tik % 23ra, eta Gipuzkoan 2 galdu ziren (% 28tik % 26ra). EGBELaren

eragin positiboa ez da behar bezain eraginkorra arauaren gutxienekoa, % 40, lortzeko.

- EGBELak alderdian izan duen eraginari begiratuz gero, EAE osoan emakumezko alkateen portzentaje txikiena duena EH BILDU da, 2007an % 35 lortu baitzuen eta 2011n EGBELaren % 40ra ere iritsi ez zelako, ez eta EGBLaren % 50era ere, eta 2015ean 5 puntu behera egin zuelako. Ondotik, EAJ-PNV dator: EGBELak eragin progresiboa izan du, zeren eta haren ehunekoak hobera egiten baitu hauteskundetik hauteskundera, oso pixkanaka lehenengo bietan eta sendotasun handiagoz azkenekoan. 2003ko % 12tik 2015eko % 24ra portzentajea bi halako bihurtu da, baina EGBELak ezartzen duen gutxienekotik, % 40tik, 16 puntura gelditzen da, eta 26 puntura EGBLaren % 50etik. PPn EGBELaren eragina oso txikia da. Lau hauteskundeetatik soilik 2007an lortzen du emakumezko alkate bat izatea (% 25). PSE-EEn (PSOE) eragina gorabeheratsua da, zeren eta 2003ko % 0tik 2007ko % 17ra pasatzen baita; 2011n, ordea, hasierako % 0ra bueltatzen da, 2015ean berriz ere gora egiteko, % 20raino. Hauteskunde-elkarrekin 2003an eta 2007an lortu zituzten emakumezko alkateak, % 19 eta 20, hurrenez hurren.
- Emakumezko alkateen presentzia oso urrun dago «orekatua» izatetik; hori dela eta, ondoriozta dezakegu EGBLak eragin txikia izan duela.
- Emakumezko alkateen portzentajea oso txikia dela egiaztatzen dugu. Datu hori lagungarri zaigu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari buruzko beste mito batia aurre egiteko; izan ere, mito horren arabera, ordezkaritza goreneko postuetan (gobernuetako burutzak eta lehendakaritza eta abar) emakumeak falta izatearen arrazoia da hobeki mugitzen direla herritarrengandik hurbilago dauden beste ordezkaritza-organo batzuetan; esate baterako, udaletan.

## XI . AZKEN GOGOETAK

EGBLaren eta EGBELaren existentzia da emakumeek legebiltzarretan eta EAEko erakunde desberdinak gobernu organoetan presentzia paritarioa eduki behar izatearen erantzuna. Kontuan hartzen badugu emakumeek hauteskunde-zerrendetan zer presentzia duten, bi arauak parekotasunaren adierazpide berezitua erakusten dute. EGBLak «parekotasun mugatuaren printzipioaren»<sup>44</sup> arabera azaltzen du, zeren eta parekotasuna exijitzen baitu, sexu bakoitzetik % 50 6ko tarte bakoitzean, lehentasun-hurrenkera sartu gabe; horrekin, emakumeek eta gizonek tarte paritario batean betetzen duten tokia funtsezkoa izango da hautatua izateko ala ez izateko. EGBELak irismen txikiagoa duen parekotasun-ideia bat adierazten du, «presentzia orekatuaren printzipioaren» bidez. Eskatzen du zerrendak nahitaez osatzea honako formula honen arabera: «ez da sekula egongo sexu bakoitzetik ez % 60 baino gehiago, ez eta % 40 baino gutxiago ere, 5 pertsonako tarte bakoitzean». Arau honetan, zerrendan betetzen den tokia oraindik ere garrantzitsuagoa da hautatua izateko ala ez izateko. Gobernu organoen osaerari erreparatuz gero, bi arauak parekotasunaren kontzeptu bera adierazten dute: «printzipio orekatuaren» printzipioa.

EGBLa Eusko Legebiltzarrerako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurrarde historikoetarako batzar nagusietarako hauteskundeetan aplikatzea eta EGBELa, beriz, EAEko udal hauteskundeetan, aukera ematen digu haien eraginkortasun-gradua alderatzeko, bilatzen duten helburuari erreparatuta, alegia, «emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria».

*EGBLak eraginkortasun handiagoa emakumeak zerrendetan egoteko portzentajeari dagokionez:* Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde guztietaiko hautagai-zerrenden portzentajeetan, EGBLa aplikatu denetan, emakumeen % 51ko batez besteko presentzia lortu da erkidego osoan, eta aginduzkoa den % 50ekoa bete da hiru barrutietan eta deialdi guztieta, Bizkaian 2012an izan ezik, orduan % 49 lortu baitzen. Araba da batez besteko portzentaje onena duen barrutia: % 52. Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, EGBLaren aplikazioak antzeko emaitzak eskaintzen ditu: batez beste % 51 presentzia hiruetan, salbu eta Bizkaian 2011n, % 49koa izan baitzen. Oraingoan, batez besteko portzentaje onena, % 52koa, Gipuzkoan aurkitzen dugu. EGBLak eragin oso positiboa du, eta % 51ko presentzia ageri da bi hauteskundeetan eta EAE osoan. Aitzitik, udal hauteskundeetan, EGBELaren aplikazioak aukera ematen du emakumeen presentzia % 60ra bitartekoia izateko, eta lortutako emaitza % 46 da. Baimendutako gehienekoa, % 60, lortu ez eta gainera ez da iristen EGBLaren % 50era, nahiz eta gutxienekoa, % 40, betetzen den. Hiru lurrardeetan eta deialdi guztieta % 40koa gainditzen duen batez besteko bat lortzen da, baina ez da sekula % 60ra iristen. Emaitzarik onena Bizkaian aurkitzen dugu, % 46ko batez bestekoarekin; txarrena, beriz, Araban, % 44rekin. Gipuzkoa bien artean dago: % 45.

*EGBLak eraginkortasun handiagoa emakumeak zerrendaburu egoteari dagokionez.* Nahiz eta badakigun bi arauetako bakarrak ere ez duela item hori jasotzen bere azterketan, oso ere beharrezko da, zeren eta emakumeek eta gizonek zerrendetan betetzen duten tokiak berebiziko garrantzia baitu, bi arauek adierazten duten parekotasun-kontzeptua dela eta. Tarte bakoitzeko zerrendaburuen azterketa funtsezkoa da bi arauen eraginkortasun-maila ebaluatzeako, bilatzen duten helburua lortzeari dagokionez. Emakume zerrendaburuen portzentajeak gora egiten du EGBLaren eta EGBELaren aplikazioarekin hauteskunde guztieta eta EAE osoan, baina aurreko itemean lortutakoak baino portzentaje txikiagoekin, zeren eta bate beharrekoia baitzen. EGBLaren aplikazioarekin lortu zen Legebiltzarrerako hauteskundeetan zerrendaburuen % 33 eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan zerrendaburuen % 34 emakumeak izatea. EGBELa udal hauteskundeetan aplikatzearekin, portzentajea % 29raino jaisten da. Gipuzkoa da emaitzarik onenak lortzen dituen lurraldea, eta hiru hauteskundeen osotasunean, Legebiltzarreko hauteskundeetan

<sup>44</sup> Parekotasunaren kontzeptua adierazteko proposatzen dudan terminoak ez du lehentasun-ordenarik.

zerrendaburuen % 40 emakumeak dira, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, zerrendaburuen % 37, eta udal hauteskundeetan % 31. Erkidego osoa hartuta gertatzen den bezala, lurralte honetan EGBELak eraginkortasun txikiagoa du EGBLak baino.

*EGBLak eraginkortasun handiagoa emakume hautetsien portzentajeari dagokionez.* Eusko Legebiltzarrean, emakume hautetsien % 50eko batez bestekoa lortzen da EGBLa aplikatu den lau deialdian, baina ez da horietako guztietai lortzen. Eraginkortasun handiena 2016an izan zen, % 55ekin, eta txikiena, berriz, 2009an, % 45ekin, nahiz eta hauteskunde guztietai 2001eko % 35koa gainditu. % 50eko batez bestekoa lortzen da Gipuzkoak lortzen dituen emaitza bikainei esker; izan ere, hautetsien % 60ra iristen da 2005ean. Portzentaje txikiena Bizkaian aurkitzen dugu 2009an, % 40rekin. Ikusten dugu EGBLaren exijentzia —emakume hautagaiak % 50 izatea 6ko tartetan— ez dakarrela berarekin emakume hautetsiak % 50 izatea, baina bai lortzen da hauteskunde eta lurralte guztietai EGBELaren gutxieneikora, % 40ra iristea. Batzar Nagusietako portaerak eraginkortasun nabarmen txikiagoa du. Hiru batzar nagusietako hautetsien batez bestekoa, EGBLa aplikatu den aldian, % 46koa da, eta % 50etik 4 puntura gelditzen da. Berriz ere portaerarik onena Gipuzkoan aurkitzen dugu, eta txarrena, berriz, Araban eta Bizkaian, % 39rekin, bietan 2007an, hain zuzen EGBLa aplikatu zen lehenengo urtean. Bizkaia lurralte bakarra da non bilakaera hori positiboa izan den deialdi guzti-guztietai. Gipuzkoan eta Araban bilakaera positiboa izan da bai. baina negatiboa ere bai. Udal hauteskundeetan emakume hautetsien portzentajearen batez bestekoa % 40 da, berriz ere EGBELak Gipuzkoan eragin handiagoa izateari esker.

*EGBLak eraginkortasun handiagoa emakume hautetsi zerrendaburuen portzentajeari dagokionez.* Legebiltzarrean emakume hautetsi zerrendaburuen batez bestekoa % 34 da. Eraginkortasun handiena 2016an izan zen, % 60rekin, eta txikiena, berriz, 2009an, % 0rekin. Portaera anitzena Araban gertatzen da, 2009an % 0 eta 2016an % 60 baita emaitza. Gipuzkoak, berriz, portzentaje onenak dauzka, eta bertan ere % 60ra iristen da 2016an. EGBLaren betekizunak, 6ko tarteetan emakume hautagaien % 50 izatekoak, ez du berekin ekartzen emakume hautetsi zerrendaburuetan % 50era iristea, eta EGBELaren gutxieneikotik, 40tik, ere urrun geratzen da. Batzar nagusietako portaera nahiko antzekoa da. Emakume hautetsi zerrendaburuen ehuneko % 34ko batez bestekoa lortzen da batzar nagusi guztiak hartuta. Oraingoan lurraldeko portaera homogeneoagoa da, eta Gipuzkoan da erregularrena. Udal hauteskundeetan emakume hautetsi zerrendaburuen portzentajea % 28koa da.

Aztertutako lau itemen emaitzak alderatzen baditugu, honako ondorio hauek atera behar ditugu:

- a. Bi arauak aurrerapen bat dakarte emakumeen presentziak gora egiteari dagokionez item guzti-guztietai.
- b. Bi arauek ez dute behar besteko eraginkortasunik bilatzen duten hori lortzeko.
- c. Ez dute lortzen hautagai-zerrendetako emakumeen eta gizonen portzentajeak eramatea emakume eta gizonen hautetsien portzentajeetara. Eusko Legebiltzarrean emakume hautetsien % 50 lortzeko emakume hautagaien % 51 behar da; gizon hautetsien % 50 lortzeko, berriz, nahikoa da gizon hautagaiak % 49 izatea. Batzar nagusietan, desberdintasuna handiagoa emakume hautagaien zenbateko berarekin, % 51rekin: emakume hautetsien % 46 baizik ez da lortzen. Gizon hautagaien % 49rekin, ordea, gizon hautetsien % 64 lortzen da. Udal hauteskundeetan okerragoa da, zeren eta EGBELak eraginkortasun txikiagoa baitu EGBLak baino. Emakume hautagaien % 46rekin emakume hautetsien % 40 lortzen da; gizon hautagaien % 54rekin, ordea, gizon hautetsien % 60 lortzen da.
- d. EGBLaren lortzen da Eusko Legebiltzarrean emakume hautetsiak % 50 izatea, baina ez du gauza bera lortzen batzar nagusietan.
- e. EGBELaren «Presentzia orekatuaren printzipioak», modu neutroan adieraziak —“sekula ez % 60 baino gehiago edo % 40 baino gutxiago sexu bakoitzetik”—, emakumeentzako % 40ko «mugako kuota» baten gisara jokatzen du.

Gobernu organoei dagokienez, bilakaera positiboa izaten ari da, baina bi arauetako bakarra ere ez da eraginkorra «kristalezko sabaiarekin» amaitzeko; izan ere, horrek berekin dakin EAEn sekula egon ez izana emakume lehendakari bat. Ordezkartzaren eskalan behera egiten dugun neurrian, emakume lehendakario deak % 40 direla, EGBLak eskatzen duen gutxienekoa. Kolore bakarrekoak ez diren gobernuetan, badirudi botere-kuota handiagoa duten alderdiek prestutasun handiagoa dutela parekotasunaren alde, zeren eta emakume sailburuen portzentaje handiagoak izendatzeten baitituzte kuota txikiagoa dutenek baino. Hori sailburuordeen izendapenean ere errepikatzen da. Gauza bera esan dezakegu lurralte historikoetako gobernu-organoei buruz. Sekula ere ez da emakume ahaldun nagusirik egon: bitan emakume ahaldunorde nagusi bat egon da eta lautan emakume foru diputatuak. EGBLak eragin oso positiboa izan du, beraz. Deigarri gertatzen da emakume alkateen portzentaje txikia, zeina «presentzia orekatua» lortzetik urrun baitago. Harrigarri gertatzen da gaur egun imaginario patriarkalaren argudioa elikatzen jarraitzea; izan ere, horren arabera emakumeak ez daude egitura handietako kupuletan —ordezkartzeta politikokoetan ere ez— hobeki moldatzen direlako egitura txikietan, pertsonengandik hurbilen daudenetan.

Emakumeen eta gizonen karrera politikoari dagokionez, portaera ez da parekidea. Susmatzen dugu publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa patriarkalaren ondorioz gertatzen dela ere, bai eta emakumeek alderdi politikoetan betetzen dituzten botere-posizio ahulen ondorioz ere.

Azkenik, hauteskundeetako ahaldun, artekari eta administratzaileei buruz lortu ditugun datuak, nahiz eta figura horiek ez dauden bi arau horien aplikazioaren pean, oso adierazgarriak dira eta garrantzi handikoak alderdi politikoek beren egituren barruan duten portaerari dagokionez, emakumeen eta gizonen «berdintasun eragingarria» lortzeari begira.

## XII. BIBLIOGRAFIA

BIGLINO, P.: «La composición equilibrada de las listas electorales». Honako honetan: *Nuevas expectativas democráticas y elecciones*, Iustel, Madrid, 2008. Or.: 73-103

CAMPOS, A.: La igualdad de mujeres y hombres: 30 años de Parlamento Vasco. La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, Valencia, CORTS: Anuario de Derecho Parlamentario, 45, 2010.-La participación de las mujeres en los procesos políticos y la incidencia de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres en la institución democrática de las Juntas Generales de Gipuzkoa. Honako honetan: *Igualdad y Democracia: el género como categoría de análisis jurídico*. Valentzia, Corts Valencianes, 2014. Or.: 143-159.

COBO, R.: «Democracia paritaria y sujeto político feminista». Honako honetan: *Anales de la Cátedra Francisco Suárez*, 36 2002 Or.: 29-44.

MACÍAS JARA, M.: *La democracia representativa paritaria*, Servicio de Publicaciones, Universidad de Córdoba: diputación de Córdoba, Delegación de Igualdad, Kordoba, 2008.

MARTÍNEZ, M. A., GARRIDO, A.: *De la política de la presencia a la política de la diferencia. Representación de las mujeres en cuatro parlamentos nacionales (Méjico, Chile, Argentina, Uruguay)*, CIDOB, Bartzelona, 2010.

MESTRE,R; ZUÑIGA,Y (Koord.): *Democracia y participación política de las mujeres*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013.

ROMANÍ, L (Koord.): *El derecho a la participación política de las mujeres: resultados de la aplicación de la ley de igualdad en las elecciones a las Cortes Generales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014. SCOTT, JW.: *Parité. Equidad de género y la crisis del universalismo francés*, FCE, Mexiko D.F, 2012.

VENTURA, A. Y SEVILLA, J.: «Fundamento constitucional de la igualdad de mujeres y hombres en la representación política». Honako honetan: *El derecho a la participación política de las mujeres: resultados de la aplicación de la ley de igualdad en las elecciones a las Cortes Generales*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014. Or.: 41-59.

